

Andre Baraziart

MEDITAZIONE TTIPIAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea...*,
André Baratciart. Fauver Duharte, 1784

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00721.htm>

**GIRISTINOKI BIZITZEKO ETA
HILTZEKO MOLDEA,
ZEINETAN KAUSITZEN BAI DIRE
EGUNAREN GIRISTINOKI
IRAGATEKO MOLDEA, MEZA
SAINDUKO, HAGONIAKO ETA
KOMUNIONEKO OTHOITZAK,
IGANDEKO BEZPERAK
ILHABETEAREN EGUN
GUZIETAKO
MEDITAZIONEAK
ETA KONSZIENTZIAREN EXAMINA**

Baionan, Fauvet-Duhart, Erregeren Liburu Egile
eta Saltzailea baithan, Apoumalouko karrikan,
1784

Permisionearekin

APROBAZIONEA

Plazer eta atenzione handienarekin irakurtu izan dut liburu berri hau; hunen autora sabantegia eta sobera khartsua ezagutzen dut fedearen kontra gauzarik xumeena abantzatzeke. Eskuarazko liburu guzien artean ez zen batere gure bihotzen Jainkoa ganat itzul-arazteko eta harekin juntatuak egon-arazteko deseinu berezi eta solido batean egina zenik: Giristino guziei bere Salbamenduaren seguratzeko nezesario dire bi gauza horiek, eta liburu hunen egileak bildu eta esplikatu izantu erreflexionerik borthitzenak eta kapableenak Arimen Jainkoa ganat altxatzeko eta bethiko estekatzeko. Ene irakurtzaile maitea, ez duzu behar hemen bilhatu ez termino hautaturik, ez arrimu beharriaren kontentatzeko kapable denik, bainan bai gure Arimaren Salbatzeko hoberen diren egiak ezagutzea eta gustatzea; eta xede Jainkozko hortan bihotza Jesu-Kristo ganat altxaturik, irakurtzen baduzu lehiatu gabe, baratuz ukitzen zituzten lekhuetan, ez duzu deus ere eskas aurkhituko. Lehia zitezte beraz, irakur-

tzaile maiteak, egun oroz bederen kapitulu baten irakurtzera, zuen okupazionek permetitzen duten arte guziez, edo bederen arrats guziez bakharrik edo familiaren artean, eta egia Sainduenekin familier eginez, Munduaren meziprezatzen, Pasioneen zapatzen, sentsuen gobernatzen, tentazioneen benzutzen, zuen eginbiddeen Jainkoa gatik bethetzen, bekhaturik xumeenen ebitatzen, eta Jaunaren garbiki maitatzen ikhasiko duzue eta Salbatuko zirete.

Larrasoron Uztailaren 14e 1784
Sinatua Dagerre, Semenarioko Superiora

APROBATION

Vu le jugement du Sieur Daguerre, Superior du Seminaire de Larressore, que nous avons commis pour faire l'examen d'un livre basque intitulé *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea*, avons applaudi au choix des motifs qu'à employé l'Auteur pour en assurer le succès et à l'art de les faire gouter par ceux qui seront dans le cas de lire son ouvrage; en conséquence lui perme-

ttions de le publier dans ce Diocese. A Bayonne, le 20 juillet 1784.

Signé De Hureaux, Vicaire Général et Official

IRAKURTZAILEARI

Egiazko gizon argituek, eta erreligionearen intresak maite dituzten guziek ezagutzen dute meditazionearen premia, eta egun guzietz frogatzen ere dituzte haren abantailak; egia eternalen ahanzmendua da lurraren gainean gerthatzen diren hoben eta itsuskeria guzien ithurburua; erreflexione husuen medioz neurritzen eta bortizitzen da fedea, gizonak ezagutzen eta arbuia-tzen ditu bere errebelamenduak, ukho egiten dio munduari eta osoki ematen zaio bere Jainkoari: meditazionearen usaia hain baitezpadakoa eta probotxusa delarik arren, batzuek ez dute denborarik, berzeek ez dakite nola egin meditazio-nea, eta guziek kausitzen dute astia eta moldea bere intres iragankorren gainean pensatzeko, eta maiz mila gauza funsgabekoen, eta kuriosta-sun phuruzkoak direnen gainean erreflexione

seriosenen egiteko; ez da bizkitartean intresik eternitatekoak baino hurbilago danik ukitzen gaituenik; gure salbamenduarentzat dugun ez antsiatasunaz baizen ezin uz dezakegu beraz salbatzeko dugun moian hori. Zenbaiten aitzekia faltsoen hobekiago suntsitzeko, eta denbora berean eskuara baizen ez dakiten arima Jainkotiarren laguntzeko handizki desiratzen nuen zenbait meditazio gure erdaran ematea; ene talendu eskasak, eta gure eskualdun phuruen errenkurek eta larderiak desira horren bethetzetik urrundu naute orai artean, eta ez nintzen orai ere obra huni lotzera menturatuko, aphez iakintsun eta saildu bezain eskualdun garbi izatu den erretor khartsu baten eskuarazko kontsiderazio- ne batzuk ez banindute animatu: kontsiderazio- ne hauk populuaren arteko zenbait presuna hautetsien fagoretan iskribatuak izan direlaketz, bere nekhe izerdiz bizia irabazten dutenentzat luzegi izanen ziren, eta menturaz ez ziren ere hautan aski trebe izanen; halatan ahal bezain laburki eta klarki moldatu izan ditut, guziek eta egun guziez irakur detzaten, eta irakurtzean, gehienik ukitzen dituzten egien gainean zenbait

erreflexione egin dezaten amoreak gatik: halarik ere ez diot ene buruari agindu errateko guzien gerizean emanen naizela; bainan esperantza dut ene borondate onaren ariaz obra hau presuna Jainkotiar guziez onhetsia eta begitharterekin errezibitua izanen dela. Hemen edirenen dituzte egunaren Giristinoki iragateko Moldea, meza sainduko, hagoniako eta komunioneke othoitzak, igandeko bezperak, ilhabetearen egun guzietako meditazioneak eta kontzientziaren examina: meditazione haukien artean badire batzuk bertzeak baino usaie gehiagotako zerbitza daitezkenak; hainitz probotxus laiteke meza aitzinean irakurtzea mezako sakrifizioaz den meditazionea, meza behar bezala entzutera preparatzeko; kofesioaz eta kontrizioneaz direnak kofesio on baten egiteko; eta finean komunio-nearen gaineko biak komunio-nerat disposatzeko, eta komuniatu ondoan eskerren bihurtzeko; molde huntan liburu xoil hunek izanen ditu bertze hainitzek elkharrekin dituzten abantailak. Hau irakurtzen dutenen othoitzetan gomendatzen naiz.

EGUNAREN GIRISTINOKI IRAGATEKO MOLDEA

Atzarri zaren bezain laster, Jainkoari bihotza altxa diozozu, egizu gurutzearen seinalea eta aipha zatzu Jesusen, Mariaren eta Josepen izenak, errozu zure buruari; menturaz egun hau eternitateaz izanen duk segitua; nola behar duk beraz pasatu egun hau?

Beztitzean begira zatzu modestiarik zorrotzenaren erregelak, erra-tzu pater eta abe maria, edo egizu bertze zenbait othoitz, eta eman zaite debozionerekin zure goizeko othoitzaren egiten.

Goizeko othoitzaren ondoan, edo ahal duzunean egizu oren erdi baten, edo bederen oren laurden baten meditazionea; guziak dire egun guziez oren erdi bat baino gehiago dosteta funsgabetan, eta ez deuskerietan galtzen ez dute-nak, eta doi-doiako fortuna baten ilhunbetan bizi den presuna batek bere familiaren hazteko eguneko oren eta memento guziak enplegatu behar baditu, lanean hari delarik meditazione hori egin dezake, lana bera eta ikhusten dituen gauza

guziak Jainkoaren perfekzioeen eta munduko funs-gabetasunaren kontsideratzeko suiet edo motibotzat zerbitza daiteke.

Lanaren aitzinean zure lana Jainkoari ofri diozozu Jesusek zure salbatzeko iasan duen nekhearen batasunean; trabailatzean zure xede printzipala ez bedi izan diru irabazteko, baina bai Jainkoari obeditzea, plazer egitea, eta zure bekhatuez penitentzia egiteko pena haren sofritzea; zure lanean Jainkoari maiz bihotza altxa diozozu, eginez fedezko, esperantzazko, amodiozko, edo bertze halako zenbait akta, nihor ohar ez diteken maneran; zure lana ongi badoha, benedika zazu laguntzen zaituena, gaizki badoha, errezibi zazu Jainkoak zure pazientzia frogatzeko nahi duen mortifikazione hori; molde hortan egiten ditutzun lanez merezimenduzko tresorik handienak ardietsiko ditutzu; bere nekhe izerdiz bizia irabazten duen nekhazale batek, bizitze komun eta arrunt baten exerzizioez, ez du estaturik gorenetan kausitzen direnek baino gutiago obratzen bere salbamendua; eta asko presuna izanen dire uste dugun baino gorago zeruan altxatuak bere estatuko eginbide

mendrenen bethetzeko izatu duten leialtasuna dela kausa; obra eder batzu dire, duda gabe, Elizeran egotea, othoitzaren egitea; baldin ordean othoitzean egoteko zure etxeko lanak uzten badituzu, zure othoitzza ez zaio Jainkoari agradatzzen; izpiritu Sainduak handizki laudatzen du iruten haritzen zen, eta bere etxeko lan xehez okupatzen zen emazteki borthitz hura.

Janean, edanean, loan eta zure dibertimenduetan ez duzu plazera bilhatu behar plazera gatik, baina zure osasunaren kontserbatzeko eta Jainkoaren zerbitzuan haren enplegatzeko xedea izan behar duzu: artha izan zazu bereziki konpainia eta errekreazione onhestak, eta perilos ez direnak hautatzeko, eta ez sekulan kolpatzeko karitatea, garbitasuna, eta bertze berthuteak; zure sentsuko presunekin errekreatu behar zare, bertze sentsuko presunak ez dituzu hautatu behar premiaz baizen, eta orduan ere mintzatu behar zaizkote ahal bezain modeski, serioski eta laburki.

Ez dezazula, ahal baduzu, egunik utz meza saindua entzun gabe, eta ez bazaitzu posible mezan kausitzea, meza izkila aditzean bihotzez

aphezari iunta zaite, eta meza gogoz entzun zazu, hartako eginez, nihor oharu gabe, meza erreialki entzutean egiten dituzun othoitzetarik zenbait.

Egun guzietz arrosarioa erranen duzu, zure aingeru begiraleari eta zure patroin sainduari zenbait othoitz egiten diozutelarik.

Mahainean iartzean eta mahainetik altxatzean hartako katiximan diren othoitzak egiten dituzu, anjelus egunean hiruretan eta abe maria orena aditzean erraten duzularik.

Kofesatu behar zare bederen ilhabete guzietz, artetako bezta buruetan, eta zure sor egunean; komunionearen husutasuna, edo bakhantasuna zure kofesorak erregelatuko du.

Igandeak eta bestak santifika zatzu herriko meza nausian bezperetan, prediku eta katixime-tan aurkitzen zarelarik, mundutarren bilkhueta-rik ihes eginez, debozionezko irakurtze eta bertze obra onetan egun hura iragaten duzularik.

Eguna akhaba zazu arratseko othoitzaz, egi-ten duzularik zure kontzientziaren examina xehe bat zure hutsen ezagutzeko, eta hetaz Jainkoari

barkhamendu eskatzeko, gau hartan hil behar baizine bezala.

Bilhuz zaite modestiarekin, har zazu ur benedikatua, etzan zaite zure arima Jainkoaren eskuetan ezarri ondoan, eta lokhar zaite zenbait pensamendu saindutan.

MEZA SAINDUKO OTHOITZAK

Meza behar bezala entzuteko Preparazionea

Zure Aldare sainduaren oinetan ahuspez emanik, adoratzen zaitut, Jainko bothere guziak ditutzuna; fermuki sinhesten dut, entzuterat nohan Meza dela Jesu-Kristo zure Seme Jainkoaren Gorputz eta odolaren sakrifizioa, ofritzeko manera hala berekoa ez izan arren, har berak Kalbarioko mendian gizon guzientzat ofritu zuen sakrifizio hura bera. Egidazu grazia sartzeko, o ene Jainkoa, Aphezaren eskuz, hau zuri digneki ofritzeko behar ditudan dispozizionetan. Ofritzen darotzut, bat egiten naizelarik J Christoren eta haren Elizaren intenzionekin: 1. Zure Majestate dibinoari zor zaioen homaia eta ohore soberanoa errendatzeko; 2. Egin darozkigutzun on eta ungi guziez eskerrak bihurtzeko; 3. Munduko bekhatu guzientzat eta bereziki eneentzat zuri satisfakzio egiteko, finean arimako salbamenduaren-

tzat eta gorphutzeko biziarentzat behar ditudan laguntzak eta sokhorriak zure ganik ardiesteko. Zure ganik grazia hauk guziak uste ditut, J. Kristo zure semearen merezimeduen bidez, zeinak nahi baitu berak izan, Sakrifizio adoragarri hunen Apheza eta biktima.

Mezaren hastean, eta Konfiteor erratean

Ene bekhatuen iakiteko eta ezagutzeko, o ene Jainkoa, behar ez duzun arren ene aithorrik eta kofesiorik, eta ene gaixtakeria guziak ene bihotzean irakhurtzen ditutzun arren, kofesatzen darozkitzut halere zeruaren eta lurraren aitzinean: aithortzen dut ofentsatu zaitudala gogoz, hitzez, eta obraz. Ene bekhatuak handiak dire, bainan zure miserikordiek neurririk ez dute. Urrikal nakizu, o ene Jainkoa, orrhoit zaite zure haurra, zure eskuko obra, zure odolaren prezioa naitzela.

Birjina saindua, Zeruko Aingeruak Parabisuko Saindu eta Saindak, guretzat othoitz egizue; eta

nigarrezko eta miseriazko haran hunta dolhame-
netan gaudezen orduetan, grazia eska-zazue
guretzat, eta ardiets diezaguzue bekhatuen
barkhamendua.

Introitean

launa! zuk Patriarkhei eta Profetei inspiratu
diotzozute, zure Seme baxhotxa lurrerat iausten
ikhusteko, hain desira khartsuak, indazu heien
khar saildutik parte bat; eta egizu, bizitze mor-
tal hunen enbrazuen erdian, ene baitan senti
dezadan zurekin bat izateko lehia saildu bat.

Kyrie eleisonetan

Dolhamen eta suspira doblatuez, o ene Jain-
koa, errekeritzen zaitut, egidazu miserikordia,
eta momento guzietan, bizi naizeno, erran banie-
zazu: *launa! nauzun urrikari*: ez liteke oraino aski
ene bekhatuen nonbrearentzat eta handitasuna-
rentzat.

Gloria in excelsis

Zerua baino gorago zaren Jainko guziz bothe-
retsua! Zerua eta lurra betheak dire zure loria-
ren majestateaz, Zeruko eta lurreko kreatura
guziei orai juntatzen natzaiote izpirituz eta biho-
tzez zure obra guzien glorifikatzeko; baina
ordainez eman diezadazu munduak ezin eman
dezaken bakhea: zuri xoilki, o ene Jainkoa, zor
zaizkitzu laudorioak, ohoreak, eskerrak eta loria
mende guzietako mendetan. Halabiz.

Oremusetan, edo Orazionetan

Agrada bekizkitzu, launa, guretzat egiten
zaizkitzun othoitzak; igutzu, Eliza zure esposak,
Aphézaren ahoz, gure fagoretan galdegiten
darozkitzun graziak eta berthuteak. Ez dugu
merezitzen (hala da) entzunak izatea; baina
kontsidera-zazu grazia horiek eskatzen darozki-
tzugula, Jesu-Kristo, zure Semearen bidez, zeina

zurekin bizi baita eta erreginatzen baitu menden mende guzietan. Halabiz.

Epistolan

Epistola huni begiratzen diot, o ene Jainkoa, zure borondateak irakhasteko egortzen darotazun guthun bati bezala; othoi, indazu manatzen darotazunaren konplitzeko indarra. Zuk zeronek, launa, profetei eta apostoluei inspiratu diotzatzute, iskribuz utzi darozkiguten egiak: heien argitarik parte indazu eta pix zazu ene bihotzean, hek erretzen zituen su sakratu hura, maita zaitzadan eta zerbitza, hek bezala, ene bizi guzian.

Ebanjelioan, xutiturik

Xutitzen naiz, o Legegile soberanoa, zuri markatzeko Ebanyelio sainduan diren egia handiak, ene odolaz zigilatzerat prest naizela. Egia horiek ene bihotzean zeronek, othoi, launa, bar-

neraino graba zatzu. Horiek betzate erregela ene gogoetak, ene hitzak eta ene obrak. Ez dut gehiago segitu nahi zure maximez bertzerik: mintza zaite, launa, huna non aditzen zaitudan, sehi baten sumetimendu oso berekin. Indazu zure erranen konplitzeko hanbat indar, nola baitut fermentasun heien sinhesteko.

Credoan

Jainko bothere guzia duzuna, Zeruaren eta lurraren Kreatzailea! Sinhesten ditut zinez eta fermuki zuk Elizari irakhatsiak diren gauza guziak; prest naiz, launa, ene odolaren isurtzera zuk eman derautazun fedearen sostengatzeko: infidelen edo heretikoen dixiduak, ez lausenguak ez litezke gai ene khordokatzeko, mundutarren trufa eta meziprezio guziek ez naute gibelatuko ene sinheste egiazkoari lekhukotasunaren bihurtzetik, arrisku suerte guzien erdian haltoki eta agerian erran nezake orai erratera nohan gauza bera; errazu *Credo*.

Ofertorioan

Kreatura hilkor, eta bekhatuz kargatu bat bai-zen ez naizen arren, ofritzen darozkitzut Apheza-
ren eskuz, o egiazko Jainko bizi eta eternala, ogi
hori eta arno hori, zeinak izan behar baitute gan-
biatuak zure Seme Jesu-Kristoren gorphutzerat
eta odolerat. Errezibi zazu, Jauna, ezin erranezko
sakrifizio hau amultsuki eta gozoki, eta sofri
zazu, ofrenda saindu horri junta diozada, ene
gorphutzaz, arimaz, ontasunez, bizi-az, eta ditu-
dan guziez egiten darotzudan sakrifizioa. Egizu
nitaz, o ene Jainkoa, kreatura berri bat; ogi hori
eta arno hori zure bothereaz ganbiatzerat zoha-
zen bezala.

Aphezak bere erhiak garbitzean

Garbi nazazu, Jauna, sakrifikatua izaterat
doatzun Bildotsaren odolean; nola guzietarik
xahutua, eta zure graziaren espos arropaz beztu-
tua, zure ganat esku xuri eta bekhatu gabeak

altxa detzadantzat, eta esperantza izan egun batez errezibitua izateko zure hautatuei Zeruan preparatu diozuten banket sakratuan.

Ixiltorik Aphezak erraten dituen Othoitzetan

Agrada bekizu, o ene Jainkoa, zure izen sainduaren ohoretan eta loriarentzat, gure abantailetan eta zure Eliza sainduarenetan, ofreitzen zaitzun sakrifizioa; haren intentzione beretan sarthurik, huna non galdetzen darozkitzudan, Elizako orai, Aphezaren bidez, eskatzen darozkitzun grazia guziak: hortakotz bat egiten naiz Aphezarekin, akorda dietzagutzun amoreak gatik Jesu Kristo gure Jaunaren bidez eta ize-nean.

Prefazioan

Ordu da, o ene arima, altxa gaitezen behere huntako gauza guziez gorago. Tira etzatzu,

Jauna, tira etzatzu gure bihotza zure ganat: sofri zazu, zor zaizkitzun laudorioak eta eskerrak errendatzeko, iunta detzagun gure boz flakoak, Izpiritu dohatsuen alegantziako eta extasiako aire justuarekin; eta desterruko lekhu huntan erran diezazugun hek gloriaren egoitzan kantatzen darotzutena: *Saindua, Saindua, Saindua da armadetako Jainko launa, izan bedi glorifikatua zeruetako gorenean.*

Sanctus erran ondoan

Aita bethierekoa, artzainetako Artzain sobe-ranoa! zure Eliza kontserba eta goberna zazu, finka zazu eta heda lurraren baster guzietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat emo-zute Kristau guziei. Benedika zazu gure Aita saindua, gure Aphezpikua, gure Errege, gure Erretora, eta zure Elizaren sinhetstean bizi diren guziak.

Lehenbiziko Mementoan

Jauna, orai zure erresuman zarena, orrhoitzaite nitaz zure miserikordian; eta Sakrifizio saindu hunen merezimenduz indatzu nezesario ditudan berthute guziak. Eta batak bertzearengat othoitz egitea manatu darokuzunaz geroz, Jauna, othoi, adizatzu eta entzun humilki eta konfidantziarekin egiten darozkitzudan othoitzak ene ahaidenzat, adiskidenzat, arimako eta gorp-hutzeko ungielentzat. Ene bihotz guziaz halaber gomendatzen darozkitzut ene etsaiak eta tratamendu gaixto zenbeit egin ahal darotaden guziak: ahantz bekizkitzu heien bekhatuak, eta neureak: ene bihotzetik khen ezatzu khirastasun eta gaitzirizko guziak; eta desira araz diezadazu eta ardiets araz heien amodioa. Mundu guziak senti beza Sakrifizio hunen ona. O ene Jainkoa, iguzu guziei bake egiazko bat, zeinak, elkarrekin unionean atxikitzen gaituela, bethikotz baigaitu unionean emanen Birjina Amarekin, zure Apostoluekin, Martirekin, Saindu eta Sainda guziekin, eta finean eternitate guzian zurekin.

Aphezak kalitzaren eta Ostiaren gainean eskuak zabalduak daduzkanean

Heda zazu, Jauna, ene gainerat zure esku dibinoa, posesionetan sartzeko ene bihotzean eta ene sentsuetan; ene baithan korreyitzeko zure kontra den guzia; ni konsekratzeko zure Aita Jainkoari zure baithan eta zutaz; eta ni moian hortaz libratzeko deabruaren eskuetarik eta damnazione eternaletik.

Ostia saildua altxatzean

O Jesus, ene salbatzailea, egiazko Jainkoa eta egiazko Gizona, sinhesten dut zinez eta fermuki Ostia saildian errealki hor zarela; adoratzeko zaitut hor, ene Jauna eta Jainkoa zarena. Iguzu, niri eta hemen garen guzietan, Misterio adoragarri huntan zor darotzugun debozionea, amodioa, eta ezagutza.

Khalitza altxatzean

Adorutzen dut Khalitz hortan, o ene Jesus dibinoa, ene erospenaren prezioa, eta gizon guziena. Odol adoragarri hortarik xorta bat iausterat utz zazu ene arimaren gainerat, izan dadin-zat garbitua bekhatu guzietarik, eta sustatua zure Amodioaren Khar sakratuaz.

Jainkoa altxatu ondoan

Ez darotzugu gehiago ogia eta arnoa ofritzen, bainan bai Kristo zure Semearen Gorphutz adoragarria, o ene Jainkoa, haren Pasionearen, pitx-tearen, zerurat igatearen orrhoitzapenetan: gure eskutik, launa, errezibi etzatzu, eta bethe gaitzatzu zure graziez.

Bigarren Mementoan

Orrhoit zaite halaber, launa, Purgatorioan diren arima gaixoez: dohatsuki zureak dire eta zure esposak ere dire. Bereziki gomendatzen darozkitzut ene ahaideenak, adiskideenak, ari-mako eta gorphutzeko ungiiegileenak, eta othoizzen beharra gehien dutenak.

Nobis quoque peccatoribus erratean

Guzia bekhatorea naizelarik, ausartatzen naiz galdetzerat grazia bera enetzat, erran nahi da, o ene Salbatzailea! zure glorian parte pixka bat. Mila bekhatuz hango zuzena galdu dudala, ikhusten dut eta aithortzen zure presentzian, o ene Jainkoa! ene mereziei begiratzen badiozute, ez duket esparantzarik plazatua izateko Erresuma hartan, zeinetarat Apostoluek, Martirek, eta Birjina sainduak ezin ardietsi baitute, bethi sofrituz eta berthute giristinozko guziak pratikan emanaz baizen. Nola beraz ausarra ere othe nai-

teke, launa, esparantza izaterat? Zure odolak egiten du ene fidantzia guzia. Barkha dietzakidatzu ene faltak, eta penitentzia egiazko batez digne errenda nazazu hartarat heltzeko.

Pater erratean

Kreatura ez deus eta dohakabe bat baizen ez naizen arren, halere, Jainko handia! ausartatzen naiz zu ene aita deitzerat, zeren hola nahi duzun: egidazu grazia, o ene Jainkoa, ez dezadan nihoiz ere gal zure umearen kualitatea. Izan bedi zure izena santifikatua Zeru lurretan. Erregina zazu orai beretik zure graziaz ene bihotzean, zurekin erregina dezadantzat eternitatean zure glorian; eta zure borondatea konpli dezadantzat lurrean, sainduak konplitzen duten bezala zeruan. Ene Aita zare, indazu beraz, othoi, zeruko Ogi hura, zeinetaz neurritzen bai ditutzu zure haurrak. Barkhamendu akorda diezadazu, nik zure amoreak gatik bihotz onez ofentsatu nautenei akordatzen diotedan bezala, eta ez dezazula permiti nihoiz tentamendu batek ere garai nazan:

aitzitik, zure graziaz lagundurik, egizu bentzu detzadan ene salbamenduaren etsai guziak.

Agnus Dei erratean

Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuez kargatu nahi izatu duzuna, garbi zatzu eta borrhaneure guziak zure odolean; hain khario erosi duzun bakea izateko, digne errenda nazazuntzat. Indazu bake hura zurekin, bake hura proximoarekin, bake hura neure buruarekin; inspiratzen darotazularik humiltasun osoena; eta ene baithan ithotzen ditutzularik bendekuzko desira guziak.

Domine, non sum dignus erratean

Ah launa, sobera baizen ez da egia, ez dudala merezi zure errezibitzea; indigne errendatu naiz osoki ene bekhatuez: guziez urriki dut eta dolore, zeren damustatu baitzaituzte eta zure ganik urrundu bainaute: zure hitz bakhar batek

senda dezake ene arima: ez nazazula abandona,
o ene Jainkoa; eta zure eskutik atxik nazazu.

Apezaren Komunionean, nork berak komuniatzen ez duenean erreaki

O Ene Jesus maitagarria! egun zure Haragi
sainduaz neurritua izateko zoriona ez badut;
sofri zazu errezibi zaitzadan bederen izpirituz eta
bihotzez, eta zurekin bat egin nadin fedeaz,
esperantzaz eta karitateaz. Sinhesten dut zure
baithan; zure baithan dut ene esparantza; eta
maite zaitut ene bihotz guziaz.

Ala dohatsu baitninteke, ene Salbatzaille
maitea, zure-ganat hurbiltzeko, zure mahain
sainduan presentatzeko, zure Gorphutz sakratua
errezibitzeko, eta zure odola edateko estatutan
banintz. Ah! zer frankia, zer kontsolazione, zen-
bat grazia ez diozute ematen hetaz neurritzen
ditutzunei!

Nork berak komuniatzen duenean, horren orde egin behar dire komunionekeo Aktak

Ostia pixkak Aphezak biltzean

launa, zure graziarik mendreena hain gehiagoki baliosa da: ia erran dut; ez dut merezi zure mahainean, zure haurren herrunkan iartzea; bainan permeti diezadazu bil detzadan bederen erortzen diren papurrak, Kananearrak galdetzen zuen bezala. Egizu ez dezadan zure inspirazionetarik batere negliya; ezen negliyentzia horrek obliga zaitzake guziez eskas egiterat.

Post-komunionean

Konsomatu dire guziak, o launa! ene begien aitzinean sakrifikaturik zatoz. O ene Jainkoa! ez naiz nihoiz geldituko zuri laudoriozko sakrifizioa errendatzetik: eta guziz bihotz, zu ofensatuaz doloratu, zaurthu eta humiliatu baten sakrifizioa ofritzetik.

Azkeneko Orazionetan

Nahi duzu launa, arterik utzi gabe gure othoitzak adreza dietzatzugun; zeren dugun bethi zure grazien beharra: isur zazu gure gainerat eta iguzu othoitzaren izpiritua, zeina baita humiltasunezko, konfidentziazko eta amudiozko izpiritu bat: hortaz errekeritzen zaitugu Jesu-Kristo zure Semeaz, zeinak zurekin erreginatzen baitu glorian.

Benedikzionaeren aitzinean

Trinitate guziz saildu eta adoragarria, Aita, Semea eta izpiritu Saindua, Jainko xoil eta bakhar bat zarena; zutaz sakrifizio hau hasi dugu, zutaz sinatzen dugu: agrada bekizu, eta ez gaitzatzula egor zure benedikziona gabetarik.

Azkeneko Ebanyelioa erratean

Berbo eternala, gauza guzien Egilea, denborak bethe zirenean gure-gatik Gizon eginik, Sakrifizio miragarri hau establitu duzuna; esker-rrak humilki errendatzen darozkitzugu, zeren egin darokuzun grazia, hunen entzuteko, hunen efetu salbagarriak errezibi detzaguntzat. Aingeru eta Saindu guziek hortaz lauda bezaitzate bethi zeruan, eta gu has gaitzen zu hortaz benedikatzen lurrean, konportatzen garelarik egungo egunean zure legearen arabera.

Barkha diezadazu, o ene Jainkoa, ene izpirituko barriamendua eta ene bihotzeko hotzetasuna, zutaz okupatua eta zuretzat sustatua izan behar zuten moment hortan. Ahantz bekizkitzu, launa, ene bekhatuak, zeinentzat J, Kristo zure Semea, aldare hunen gainean inmolaturik heldu baita: eta ez dezazula permeti aski ondikozkoa izan nadin, zu hemendik harat ofentsatzeko; baina egizu, zuzenki konportatzen naizelarik, bethi begira diezazudan ene gogoeten, ene hitzen, eta ene obren erregelari eta azken finari bezala. Halabiz.

KOFESATZEKO MOLDEA

Kofesio on bat egin nahi duena hartarat aitzinetik preparatu behar da, eta examina errexkiago egiteko, bat-banazka kurritu behar ditu Jainkoaren eta Elizaren manamenduak, zazpi bekhatu kapitalak; gogorat ekharri behar ditu izatu dituen okasioneak, tentazioneak, lanak, egitekoak, eta bereziki bere estatuko eta ofizioko eginbideak, eta kostumaz edo usantzaz egiten dituen bekhatuak.

KONTZIENTZIAREN EXAMINA **Jainkoaren lehenbiziko** **Manamenduz**

Manamendu hunen kontra bekhatu egiten dute... ahalkez, edo bertzela kofesioan bekhatuak estaltzen, eta estatu hartan komuniatzen dutenek. Akzinez, solhas gaixtoez, edo sobraniazkoez Elizak, lur sailduak, edo bertze zerbait gauza Jainkoari kontsekratua denik profanutzen,

edo mezprezaten dutenek. Sorgin, azti, edo asmatzailetan sinheste dutenek; ametsetan, zorionezkoak edo zorigaitzezkoak direlako egunetan fede ematen dutenek; Elizak aprobatzen ez dituen akzione, hitz, edo obserbazione suerte batzuetan fidantzia ezartzen dutenek, eta ogia, ura, edo bertze zer nahi den Elizaz benedikatua denik usaie profanoetako zerbitza-arazten duten guziek. Fedeak irakhasten darozkigun egietarik zenbait sinhetsi nahi ez dutenek, edo hetaz bere nahitara dudatzen dutenek. Bere salbamendua-
ren esperantza galtzen, edo Jainkoaren miseri-
kordian sobra pausatuz, konbertitzea egunetik egunera luzatzen dutenek, eta bere indarretan fidatuz, edo Jainkoaren laguntzan sobra konda-
tuz, bekhatuzko okasionean jartzen direnek. Jainkoaz, eta bere salbamenduaz orhoitu gabe denbora hainitz pasatzen dutenek. Fedea, kari-
tatea, kastitatea, edo bertze zenbait berthute kolpatzen duten presuna libertinak errepreni-
tzen ez dituztenek. Munduaren ahalkez, mundu-
tarren trufen beldurrez berthutezko obretarik gibelatzen direnek. Jainkoaren probidentziaz murmuratzen, edo errenkuratzen direnek.

Botuak arinki, edo konplitzeko xederik gabe egiten, eta obligatuak direlarik atxikitzen ez dituztenek. Jan aitzineko, eta jan ondoko, goizeko eta arratseko othoitzak, eta penitentziak neglijentziaz uzten, edo lehiarekin eta atentzionerik gabe egiten dituzte guziek. Penitentzia arinen izateko, edo bizitzeko molde bera segitzeko esperantzan kofesor largoenak bilhatzen dituztenek.

Bigarren Manamenduaz

Manamendu hunen kontra bekhatu egiten dute... arnegu egileek, juramentu gezurraren ganean, eta egiaren ganean premiarik gabe egiten duten guziek. Blasfemia, edo injuriozko hitz bat Jainkoaren, sainduen, edo erreligionearen kontra erraten dutenek. Inprekazioeak egiten dituztenek, erran nahi da, hasarreturik, edo hasarretu gabe, bihotzez, edo mihiz xoilki erraten dutenek, bere buruei, edo bertzei desiratzen diotela leher egitea, deabruak eramatea, ozpi-

nak bolatzea, edo bertze zenbait inkuntru gaix-
totan heltzea.

Hirurgarren Manameduaz

Manamendu hunen kontra bekhatu egiten
dute... igandetan eta bestetan premiarik, edo
Elizaren permisionerik gabe lanean haritzen
direnek, eta bertzeak har-arazten dituztenek;
egun saindu hautan meza osoa, edo pharte bat
bere faltaz huts egiten dutenek, eta barraiadura
borondatezkoekin meza entzuten dutenek; Eliza-
ko ofizioetako denboran ostatuan edo plazan
jaten, edaten, edo jokoan haritzen direnek; meza
nausian, bezperetan, predikuetan eta katiximan
kausitzen ez direnek, edo hautan kausitzen dire-
larik arren, jokoan, dantzan, ostatuan, edo ber-
tze zenbait dosteta funs-gabetan gainerako den-
bora enplegatzen dutenek.

Laugarren Manamenduaz

Manamendu hunen kontra bekhatu egiten dute... burasoak trufatzen edo mezprezatzen dituztenek; burasoei zorrozki behatzen, edo ihardesten diotenek, hekien jotzera ausartatzen direnek, edo jotzeaz mehatxatzen dituztenek; burasoak desobeditzen, edo gogo gaixtoz, eta errenkurak eginez baizen obeditzen ez dituztenek; bere gabeetan, eta zahartzean lagundu gabe uzten dituztenek, edo hei ematen dioten laguntzaz iroi egiten diotenek: burasoak hil ondoan, hekien xedeak konplitzen ez dituztenek, eta hekientzat othoitzak egin-arazten ez dituzten guziek; osabak, izebak, eta bertze ahaide, eta aitzindariak bere adinaren eta autoritatearen arabera ohoratzen ez dituztenek. Nausiak eta etxeko-andreak obeditzen eta errespetatzen ez dituzten sehiek, etxeko ontasunak, bereak bali-tuzte bezala, kontserbatzen ez dituztenek, eta etxeko berriak kanpoan kondatzen eta kondarazten dituztenek. Bere umeak hazten, beztitzen, instruitzen, Elizako ofizioetarat egortzen, hutsetan korrejitzen, bekhatuzko okasionetarik begiratzen ez dituzten, eta exenplu gaixtoaz,

edo atzartasun eskasez Jainkoaren ofentsatzeko bidea bere umeei ematen dioten burasoek.

Bortzgarren Manamenduaz, zeinetan zarratzen bai ditut inbidia, kolera, eta abarizia

Manamendu hunen kontra bekhatu egiten dute... kontseilu, edo exenplu gaixtoz Jainkoaren ofentsatzeko okasionea ematen dutenek, eta bereziki karitatearen, kastitatearen edo bertze zenbait berthuteren kontra mintzaten direnek. Erretaula deshonestak jenden bistarat agertzen dituztenek. Xede gaixtorik ez izan arren, bilhuzki, modestiarik gabe, edo ergelki bezituak, eta kofiatuak ibiltzen diren, edo aire mundano, eta arraitasun sobrarekin gizonkien aitzinean agertzen diren emaztekiek. Lagunak egin ez duen gaizkia erraten dutenek, edo egin duena eta gordea zena, ezagut-arazten dutenek, lagunaren kontrako kanta kantatzen, edo kanta-arazten dituztenek, eta maiz haukien aditzaileek. Proximoaren gaitzaz atsegin dutenek, hari gaitza

desiratzen, hitz gaixtoak erraten, kolpe ematen edo eman-arazten diotenek; haren onaz jeltosten, edo inbidiaz tristatzen direnek; hari aspertu nahiz hauzi ematen, edo xede berean antolamendua errefusatzen dutenek; bere etsaiari gaitzik nahi ez diotela erraten dutelarik, hura mintzatzen eta salutitzen ez dutenek. Koleran edo bizitasunean ematen direnek. Ontasun biltzeagatik bere buruei gauza nezesarioak ere errefusatzen diotzatenek, eta amoina egin ahal deza ketelarik egiten ez dutenek. Bere sabelean ekhartzen duten fruituaren hil-arazteko bideak, edo moianak hartzen dituzten, edo haren kontserbatzekoak neglijatzen dituzten emaztekiek. Hiltzea desiratzen, eta hiltzeko, edo osasunari bidegabe egiteko arriskutan ematen direnek.

Sei eta bederatzigarren Manamenduez

Manamendu haukien kontra bekhatu egiten dute... gogoeta, edo desirkunde lizunak bere nahitara gogoan atxikitzen dituztenek: hitz libro-

ak erraten, kanta arinak kantatzen, edo aditzeaz atsegin hartzen dutenek. Behatze, ukitze edo bertze zenbait akziona deshonest bere gainean, edo bertzen norbaiten gainean, egiten edo errezibitzen dutenek, emazteak emaztekiarekin edo gizonak gizonkiarekin izanik ere. Adiskidetasun sobra libreak, libertinen konpainiak, dantzak, eta urrundarik ere kastitatearen kolpatzera ekhar detzaketen dibertimenduak hautatzen dituztenek. Pintura edo figura, eta bertze zer nahi den gauza deshonestei atseginekin behatzen diotenenek. Amodioz mintz diren liburuak irakurtzen dituztenek. Modestia gutirekin beztitzen direnek. Elkharren arteko deshoneskeriez ezkontzaren saindutasuna desohoratzen duten senhar-emazteak.

Zazpi eta hamargarren Manamenduez

Manamendu haukien kontra bekhatu egiten dute... bertzeren ontasuna bortxaz, edo fineziaz hartzen dutenek, eta injustuki izatea desiratzen

dutenek. Ixilka burasoen ontasuna saltzen edo ematen dutenek. Sal-erosian laguna enganatzen dutenek. Hauzi makhur edo zuzen kontrakoez bertzerenaz jabetzen direnek, eta hartako paper faltsoak egiten, edo egiazkoak gordetzen dituztenek. Zilhegi ez diren prestamuak egiten dituztenek, eta funtsa bethikotz abandonatu gabe, intresa tiratzen dutenek; dakitelarik ez direla pagatzeko estatutan izanen, prestamuak hartzen dituztenek. Zorren pagatzea, altxatzera emanak errendatzea, sehiei, eta langilei soldata, eta jornala ematea luzatzen dutenek. Detxuma zuzenki egiten ez dutenek. Joko debekatueta haritzen direnek, jokoan malezia egiten, eta jokoan bere, edo partidaren ahalaz gehiago ezartzen dutenek. Gauza kausituak beretzen dituztenek; edo norenak diren jakiteko eginbidetan ematen ez direnek. Denbora galtzen, edo lanean bere indarra estaltzen duten sehiek eta langileek. Manuz, kontseiluz, lagunduz, kontsentimenduz, ohoin estalki baliatuz, edo bertzela ebaskoetan edo bidegabetan kutsatzen edo parte hartzen dutenek. Proximoaren gauzak desegiten, hausten edo urratzen dituztenek; eta

haren bidegabeak, hartako botherea edo kargua dutelarik, gibelatzen ez dituzten guziek.

Zortzigarren manamenduaz

Manamendu hunen kontra bekhatu egiten dute... gezurra erraten dutenek. Lagunaz funtsik aski gabe jujatzen, edo xuxpitzak arinki egiten dituztenek. Jujearen aitzinean egaren kontra mintzatzen direnek, edo dakiten egia erraten ez dutenek. Sekretuan jakin duten gauza salhatzen dutenek.

Azkeneko bi manamenduak zarratuak dire seigarren eta zazpigarren manamenduetan.

Eliza ama Sainduaren Manamenduez

Jainkoaren manamenduetan zarratuez bertzealde, manamendu haukien kontra bekhatu egiten dute... kofesatu gabe urthe osoa uzten dutenek. Arrazoinaren adineraz geroz bazko

astean bere herrian komuniatu gabe egoten direnek. Sori ez den egunetan haragi edo urin egiten dutenek. Hogoï eta bat urthe konplutuz geroz, Elizak manatu barurak hausten dituztenek, edo kolazionean sobra jaten dutenek, eta kolazioneko janharietan Diozesako usaia segitzen ez dutenek. Elizan irakurtzen diren Monitorio edo eskumikuentzat errespeturik ez dutenek.

Bekhatu Kapitalaz

Urguiluaz hobendun dire... bere buruak sobra estimatzen, eta laguna meziprezatzen dutenak. Gormandizaz hobendun dire... sobra jaten edo edaten dutenak, eta janhariak sobra gostukoak, edo garastiegiak bilhatzen dituztenak. Alferkeriaz hobendun dire... laneko nagi direnak, ohean sobra egoten direnak, eta jokoan, edo dosteta alferretan denbora enplegatzen dutenak.

Bertze laur bekhatu kapitalak ezarri dire borts eta seigarren manamenduetan.

Nork bere estatuko, eta ofizioko eginbideak arthoski examinatu behar ditu; hetan egiten

diren hutsak maiz ondore tristeenez segituak
dire.

KOMUNIONENKO OTHOITZAK ZEINETAN ZARRATUAK BAI DIRE KOMUNIONEAREN AITZINEKO ETA ONDOKO AKTAK

Komunione Sainduaren aitzineko othoitza

Jainko adoragarri, salbatzaile amultsua, ene gorphutzeko begiei Sakramendu huntan estaltzen zaiztena! Ezagutzen eta aithortzen dut ene begiak ez litezkela gai zuri behatzeko, eta ezdeusetarat bilhaka nindekela, zure Jainkozko distiadura, gloria eta majestatean agertzen bazine; ene flakhotasuna gatik gerizatzen zare beraz ogiaren eta arnoaren idurien azpian; baina gorphutzeko begiez ikhusten banu baino fermukiago sinhesten dut aldareko sakramendu sainduan zarela egiazki eta errealki zure gorphutz, arima, odola eta Jainkotasunarekin; prest naiz, Jesus maitea, noiz nahi den egia hunen sustenguan ene biziaren ematera. Ene arimak borthitz-

ki desiratzen du zure gorphutzaren errezibitzea, ene bihotzeko gutziarik handiena da zurekin bat egitea; baina nola iguriki dezaket zu ethor zaitzen ene ganat? Nor naiz ni zuk niri zure buruaren emateko? Zu zare gizonen Kreatzailea eta Aingeruen nausia, eta ni zure eskuetako obra; zu zare saildutako saildua, eta ni bekhatore guzietarik dohakabena; halere, o Jesus guziz ona! zure ganat deitzen nauzu, ene bihotzean nahi duzu egin zure egoitza: zeronek ez bazindu erraten nork sinhets lezake? Nor hurbiltzerat ausarta laiteke, zeronek ez bazindu manatzen? Zure hitz ezti, gonbidatze amultsuek, zure manu adoragarriek animatzen naute, baina ene bekhatuen nonbreak eta pisutasunak gibelatzen naute: horla nahi duzunaz geroz, ene esperantza guzia zure ontasun eta miseriakordia infinituan emanik, heldu naiz egun zure ganat, eria bere midikua ganat bezala, gose eta egarri dena biziaren ithurrirat, eta atsekabez bethea bere kontsolatzaile podoroso ganat bezala; huna, Jauna, non naizen zure dohainez probotxatzeko enetzat preparatu duzun atseginezko banket huntan; errezibitzen ditut bozkarioekin zur fagoreak; oxala! ene

indignitateak ez baliote trabarik ematen; ezagutzen duzu zure zerbitzaria, konpli zazu zure graziaz ene baithan eskas den guzia; egizu, Jainko guziz botheretsua, ene bihotza urth dadin guzia zuretzat, eta ez dezadan zutaz kanpoan bilha kontsolazionerik. Isur-azu zure grazia ene arimarat, emadazu parte zure benedizione eztieta, egin nazazu gai zu digneki errezibitzeko sakramendu handi hortan, atzar nazazu ene lokhuma pisutik, thira zazu ene bihotza zure ganat, bisita zazu ene arima, eta bisita hortaz saildu zazu, izan dezan zoriona Aingeruen ogiaren errezibitzeko fede fermu, eta amodio khartsu batekin, esperantza, humiltasun eta errespeturekin.

O Birjina gloriosa, Jainkoaren ama! Zuk amultsuki errezibitzen eta fagoratzen dituzu zure baithan bere fidantzia ematen duten guziak; esperantza horren azpian heldu naiz egun zure ganat; egizu beraz, grazia dibinoaren ama, zure seme maiteak egun ene baithan prepara dezan bere egoitza, sor-araz eta finka detzan ene bihotzean berak galdegiten dituen dispozizioeak: egizu, o Ama amultsua, egun egiten dudakomunioeak gibela nazan gaizkitik, borthitz

nazan ongian, eta izan dadin enetzat phizte glorios baten bahi preziatua.

Komunione Sainduaren ondoko othoitza

O Jesus maitea, Zeru lurren jabea, eta nausia, Zerueta lurra bere edertasun guziarekin ixil beitez zure aitzinean, ezen deus badute laudagarririk, deus ederri guziak heldu zaizte zure ontasunetik eta manifizentziatik, eta halere egun jautsi nahi izan zare lurrik eta herrautsik baizen ez den bekhatore dohakabe hunen ganat, eman darotazu zure gorphutz saindua janharitzak, eta odol preziatua edaritzat; zure Jainkotasuna eta gizontasun enplegatu izan ditutzu ene gabearen bethetzen, eta beharren konplitzen. Oi zein handia den egun ene ganat jautsi den Jauna! Zein maitagarria den egun errezibitua dudan arrotza, eta zein xarmagarria haren konpainia! Zein leiala ene bisitatzerat ethorri den adiskidea! Zein ederra enekin juntatu den esposa! Zein miragarria eta maitatzea merezi duena,

lurraren gainean maita eta desira daitezken guziak infinituki ixitzen dituenaz geroz! Zenbat amodio, zenbat errespetu, ezagutze eta laudorio ez darozkitzut zor, Jauna, zure gorphutz sakratuaz egin darotazun dohaina gatik! Maitatuko zaitut beraz ene bihotz guziaz, o Jesus guziz ona, eta guziz ezia! Eskerrak darozkitzut, eta eskerrik handienak, laudatzen eta adoratzen zaitut, eta ez naiz nihoiz ere geldituko zure laudatzetik eta adoratzetik; zure eskuetan ematen naiz, eta ematen dut dudan guzia, har nazazu zure artharen azpian, beira nazazu bizitze iragankor huntan, eta gida nazazu bizitze eternalerat. Ene Jainkoa, eta ene Salbatzailea! egidazu grazia, zenbatenaz maizago hurbilduko bai naiz sakramendu handi huntarat, hanbatenaz ene baithan berret ditezen gehiago zure alderat amodiozko eta debozionezko sentimenduak.

Birjina Saindua! zuk zure sabel sakratuan ekharri duzun Jesus bera da orai ene baithan: lagun nazazu zure Seme amultsuak egin darotan grazia huntaz eskerren ematen, othoitz zazu, ez dadin sekulan ilkhi ene bihotzetik; prometatzen darotzut ene phentsamendu, hitz eta obra

guziak izanen direla niri eman zaitan Jesusenak, eta ez eneak; ukho egiten diot munduari eta haren plazer faltsoei, eta jarraikiko naiz zure Seme maitearen manamendu xoilei; ez nazazula othoi abandona, urrikal bekizu zure Semearen odol preziatuaz erosia den arima hau; har nazazu zure gomendioan, izan nadin leial ene promesetan; egizu goza nadin egun errezibitzen dudan graziaz mundu huntan, eta bizitze eternalaz bertzean.

**ILHABETEAREN
EGUN GUZIETAKO
MEDITAZIONEAK**

MEDITAZIONEA KREAZIONEAZ

I

Kontsidera zazu Jainkoak egin zaituela. Ez du hain denbora handia munduan zarela: zenbait urthe baizen ez du bizi zarela: han artean non zinen? Zer zinen? Ez deusean; ez deus bat zu zeroni. Iguzki hau bazen, ez ordean zure argitze-ko: lurrak fruituak ekhartzen zituen, ez ordean zure hazteko mundu hau bazen, ez ordean zu huntan: ez zinen oraino diren gauzen artean: lurreko har bat baino gutiago, hantsa eta herrautsa baino xumeago; ezdeus phuru bat zinen: horra zure estatua nolakoa zen duela zenbait egun, edo ilhabete aphur. Nola bet-betan kausitu zare munduan? Nork eman darotzu izatea? Noren ganik duzu bizia? Zeroni ezin egin zintezken; munduko kreatura guziak ez ziren gai zure gorphutzaren formatzeko, eta gutiago ziren kapable zuri arimaren emateko. Jainkoak egin zaitu beraz, haren eskuen obra zare, hura da zure egilea. Zer obligazione ez diozu Jainkoari

eman darotzunaz geroz izatea eta bizia! Orai duela zenbait urthe ezdeus bat zinela orhoitzen bazare, nola zure ezdeustasuna ahantzirik superbios izan othe zaitezke! Munduko laudorio eta lausengu guziek nola zure bihotza altxa eta hant dezakete! Bihur zaite zure herrautserat, eta ezdeusetarik egin zaituen Jainkoari eskerrak eman ez, haren graziak zure bihotzean distiatuko du.

II

Kontsidera zazu nolakoa egin zaituen zure Jainkoak. Zenbat dohain ez darotzu eman gizon egin zaituenean? Gorphutz bat baduzu bere postura nobleaz, bere membro guzien edertasunaz eta enpleguaz gainerako kreatura ageri direnetarik distingutzen, eta hekien errege egiten zaituena. Jainkoak eman darotzu adimendua, zure baithan, zutaz kanpoan, zu baino beherago, zu baino gorago diren gauzen, eta Jainkoa beraren ezagutzeko gai dena. Eman darotzu memoria bat, mila gauza on eta probotxusez bethe deza-zukena. Eman darotzu bihotz bat, Jaunaren maitatzeko, Jaunaz gozatzeko gai dena: eta halatan

bere idurirat egin zaitu. Ezagutu othe duzu zein baliosa zinen? Kotsideratu othe duzu zenbat ohoratu behar zinduen zure baithan Jaunaren iduria? Othe zinakien, bekhatuak imajina hura nothatzen eta desegiten zuela. Helas! Jauna, aithortzen dut ene falta, kondenatzen dut ene burua, egun ezagutzen dut ongi, maiz eta sobratan ene baithan belztu dudala zure imajina; eman diezadazu beraz bihotz urrikimenduz doloratu bat, jan-araz diezadazu nigarrezko ogia, eta edan-araz diezadazu abundanki ene nigarren ura.

III

Kotsidera zazu zertako egin zaituen Jainkoak. Beretzat egin zaitu; ez du bertze xederik izan zu egitean, eta ezin zuken. Kreatura bakhotxari eman dio bere fina, zure azken fina Jainkoa da, Jainkoarentzat zare beraz. Zure izpiruta haren ezagutzeko, zure memoria hartaz orhoitzeko, zure bihotza haren maitatzeko; zu zaren guzia haren ohoratzeko zare. Begiak ikhusteko, beharriak aditzeko ditugun bezala, ni ere guzia oso-oso Jainkoarentzat naiz. Obra bere egilearena

da, eta ni norena izan behar othe naiz ene Krea-tzailearena baizen? Ez naiz lurrean ontasun bil-tzeko, ez naiz munduan plazeren, edo aisien har-tzeko; bainan xoilki eta bakharrik ene egilearen zerbitzatzeko; haren zerbitzatzeko ez den guzia debekatua zait; nik egiten dudana harentzat ez bada, ene eginbidea hausten dut, hartaz landan bertze zer nahi denentzat egin dezadan, ohoin-keria bat, injustizia bat da, zeren dudan guzia, naizen guzia, egin ahal dezakedan guzia zor bai diot. Ah! zenbat humiliatzeko sujet ez dut ikhus-ten ene baithan! Zenbat ohoinkeriaz, zenbat injustiziaz ez naiz hobendun ene Jainkoaren aitzin-ean! Jainkoaz, eta haren araberako gauzez entrenitu othe da bethi ene memoria? Jainkoar-en eta Jainkozko gauzen maitatzen haritu othe da bethi ene bihotza? Jainkoaren zerbitzuan enplegatu othe ditut ene denborak, indarrak eta ontasunak? Ene egiteko bakharra izatu othe da Jainkoaren zerbitzatzea? Hala behar zen; ez da ordean halakoa izatu ene bizia. Ezdeuskeriei eman diotet ene haurtasuna, erhokeriei ene gaz-tetasuna, inutilkeriei ene gainerako denbora. Dostetek, atseginek, eta maiz bekhatuzkoek

okupatu dute ene bizia. Banitateari, gezurrari, gaixtakeriari eman diotzatet ene Kreatzaileari zor niotzan arima eta gorphutza, arimako eta gorphutzeko ahal guziekin. Damu dut, Jauna ene injustizia iraganaz, hartzen dut erresoluzione fermu bat hemendik harat zure zerbitzuan enplegatzekeo ditudan guziak, khartsuki zerbitzatuko zaitut azken hatserainokoan.

Meditazione baxhotxaren akhabantzian Andredena Mariari egin behar zaion othoitza

O! Birjina Saindua, Jainkoaren ama eta bekhatoreen ihes lekhua! egun fidantzia oso batekin ematen naiz ahuzpez zure oinetan; zu zaitut, Jainkoaz landan, ene kontsolazione eta esperantzaz guzia, egizu beraz beira nadin munduko bide lerragarrietarik, eta jarraik nakion zerurat daraman bide dohatsuari; eman nazazu, o! Ama amultsua, zure ume maiteen herrunzan, izanaraz diezadazu zure othoitzez Jaunaren legearentzat leialtasunik handiena, egizu bethi zerbi-

tza eta maita dezadan Zeru-lurren nausia, eta aita guzietarik hoberena; ofrendatzen darotzut ene bihotza, eta zure arartekotasun bothere-tsuaren azpian ezartzen ditut egun hartzen ditudan deliberazione salbagarriak.

MEDITAZIONEA GIRISTINOAREN DIGNITATEAZ

I

Jainkoak grazia eta fagore handia egin darotzu bathaioaz giristino egin zaituenean. Zer zinen munduan agertu zinenean? Zer zinen zure amaren sabelean kontzebitua izan zinen instant berean? Aita Adameren bekhatuaz belztua, lepra huts egina, zauri belz batez estalia, Jainkoaren etsaia, zerutik desterratua; ez zen Jainkoa zure Aita, Zerua ez zen zure primuza, orduan hil bazine, zureak egin zuken, eta eternitateko galdua zinen, Jainkoaren presentziaz eta gloriarez ez zinen sekulan gozatuko. Jainkoa zen bakharrik gai bekhatu orijinalaren notha beltzetik zure garbitzeko, eta bekhatuak zure baithan desegin zuen imajina ederraren erreberitzeko; ez zinuen merezi orduan pena baizen: zenbat haur ez dire desegiten bere amen sabeletan! Zenbat ez dire hilak sortzen, edo bathaiatu gabe hiltzen! Zu sorthu zarenean, zenbat bertze haur ez da sorthu Juduen, Paganoen, Turkoen ganik! Hek bada

zu bezala Jainkoak eginak dire; zu bezanbat gusta zaizko Jesu-Kristori, eta zu hek guzietarik hautatu zaitu, miseriakordiarik handienaz zorigaitz hartarik beiratu zaitu. Zer esker, zer laudorio ez diozu beraz zor hain fagore handiarentzat!

II

Bathaioaz ardietsi zinduen dignitaterik, edo goratasunik miragarriena. Jainkoaren ume egin zare, Jesusen membro maite, Izpiritu sainduaren tenplu bizi, zeruko primu. Aitak behatu darotzu bere haur bihotzekoari bezala, zure Aita da graziaz, zu haren ume zare bihurtua: Jesusen haurride, primu-lagun, membro bizi; Jesus da zure buruzagia, zu haren gorphutz mistikoaren parte eta portzione maitea. Izpiritu sainduak zure bihotzean finkatu du bere egoitza, haren tenplu bizi egin zare. Zerua da zure herria, zure primuza, zuzen duzu Aita Zerukoaren erresuman, eta orduan hiltzeko zoriona izan bazindu, deusek ez zintuen gibelatuko instant batez ere Jainkoaren gloriaz gozatzetik. Zein maitagarria ez zinen Jainkoaren begietan! Nola distiatzen zuen zure arimak! Dohainez guzia berregindua, graziaz

guzia beztitua, Zeruko tresorez guzia aberastua zinen. Nork ongi eta asko estima dezake giristi-noaren dignitatea! Bainan ezagutu othe dut ene noblezia? Ohoratu othe dut ene ethorkia handia? markatu ere othe diot hanbat maitatu naberen Jainkoari ene ezagutza?

III

Zure dignitatearen, edo goratasunaren araberakoa izan behar da zure bizitzeko moldea. Jainkoa da zure aita, beraz hura ohoratu behar duzu, hura maitatu behar duzu, hari obeditu behar diozu, hura zure ahalaz imitatu behar duzu, hura saildu den bezala zu ere saildu izan behar zare. Hala izatu othe zare? Examina zure burua eta ahalka zaite orhoitzean zein laster galdu zinduen zure bathaioko inozentzia. Jesu-Kristoren membro zare, beraz hari lothua egon behar zare, deusek ez zaitu behar separatu haren ganik; hark estimatu eta maitatu duena estimatu eta maitatu behar duzu, hark meziprezatu eta higuindu duena meziprezatu eta higuindu behar duzu: humil, ezti, pazient izan behar zare, zure gutizia guziak mortifikatu behar tutzu.

Hala egin othe duzu? Helas! ez othe da egia, egin behar nuenaren kontrarioa egin dudala? Ez dut Jesus segitu; mundua, haragia, plazera, horra nik bilhatu eta segitu ditudan nausiak. Izpiritu sainduaren tenplu zare, beraz zure arima eta gorphutza garbi izan behar dire, bekhatuak ez du zure baithan lekhurik kausitu behar. Zer afrontu ez diozu beraz egin Izpiritu sainduari, hare plazan eman duzunean ilhunbetako printzea? Giristino bezala Zeruko primu zare, beraz hura desiratu behar duzu, haren ardiesteko ahal guziak enplegatu behar tutzu; munduari zure desterruko lekhuari bezala behatu behar diozu.

Nihoiz ere desiratu othe duzu Zerua? Ez othe zaitzu lakhetu zure desterruan? Ohoratu othe duzu zure izen handia? Ez, ene Jauna eta Jabe soberanoa, ez dut orai artean ongi ezagutu zer zen giristino izatea; ahantz zatzu ene eskergabetasun eta errebelamendu guziak; promes ematen darotzut, zu, o! Aita Jainkoa, maitatuko zaitudala ene aita bezala; zu, Seme gizon egina, segituko zaitut ene buruzagia bezala; zu, o! Izpiritu Saindua, ene bihotzean ekharriko zaitut ene Jauna bezala: o! Zeru maitea, o! primuza doha-

tsua, zure ondoan ibiliko eta trabailatuko naiz
ene bizi guzian.

MEDITAZIONEA BEKHATU MORTALAZ

I

Ez gizonak, ez aingeruek ezin neurt dezakete bekhatu mortalak Jainkoari egiten dioen afrontuaren hedadura. Jainkoa da meziprezatua, eta nortaz? Gizonaz, bere kreaturaz, bere eskuen obraz, lurreko har eta xixari ezdeus batez. Jainkoa mintzo da, Jainkoak bere legeak eman ditu. Ez othe du zuzen guri manatzeko? Ez othe du arrazoin gure obedientziaren igurikitzeke? Ez othe da gure Jaun soberanoa, guri izatea, bizia, ahala eman darozkiguna? Bizkitartean hausten dugu haren legea, ostikatzen dugu haren manua, eta mihiz erraterat ausarta ez gintezkena, obraz erraten dugu, ez dugula nahi zerbitzatu. Errege guzien erregea, Jaunen jauna da guk meziprezatzen duguna; Jainko handi hura bere begien aitzinean ofentsatzen dugu, berak ikhusen gaituela dakigun denboran, haren manua ostikatzen ditugu; guk, bai guk, ezdeus batzuek, dugun hain ausartzia harrigarria! O Zeruak!

espanti zaitezte, eta lurra ikhara bedi; horra nolakoa izatu naizen! Ni, bai ni, Jauna, zure kontra altxatu naiz. Nor zare zu? Eta nor naiz ni? Zu guziz gora, eta ni ezdeustasuna bera. Nork ezagut dezake zure handitasun mugarrigabea? Eta beraz nork neurt dezake bekhatu mortalaren malezia infinitua? Nor da monstro hunen dorphe-tasun guzia konpreni dezakena? Nola hain krueki tratatu dudan Jainkoak utzi darot bizia? Nola ez nau Ifernuko lezean hondatu? nola nagoke nigarrez eta dolorez urthu gabe?

II

Bekhatu mortalak Jainkoa eskergabetasunik beltzenaz pagatzen du; bekhatoreak bere egilea, bere Aita, bere adiskidea ofentsatzen du; gizona Jainkoaren emaitzez berez baliatzen da bere ongi egilearen meziprezatzeko; haren ezagutze-ko duen izpirituaz, hartaz orhoitzeko duen memoriaz, haren maitatzeko duen bihotzaz, haren laudatzeko duen mihiaz, haren zerbitzatzeko duen osasunaz, podoreaz, karguaz, denboraz, guziez zerbitzitzen da haren desohoratze-ko: ez da egia, hautaz guziez, edo hautarik zen-

baitez baliatzen zarela bekhatu egiteko? Beraz egia da, Jainkoaren dohainak berak Jainkoaren kontra enplegatzen ditudala. Othe du ingratasun hunek bere parerik? Nola deithuko dugu giristino laxo baten eskergabetasun hau? Hitza faltatzen, eta bihotzak eskas egiten darot, o! ene Jainkoa, hain kruelki tratatu zaitudala orhoitzen naize-nean. Oha beraz, o! monstro beltza, aparta hadi ene aldaketarik; ukho egiten daroat oraiko eta sekulako, ez diat nahi hirekin parterik.

III

Bekhatu mortalaren eskergabetasuna urrunago doha oraino; bekhatu mortala egiten duenak ofentsatzen du bere Jainko Jauna, ongi egiten hari zaion, eta gehiago oraino egin nahi dion denbora berean; instant guziez kontserbatzen du, hazten eta bazkatzen du, Ifernutik beiratzen du, eta orduan berean mezprezatzen du; agintzarik maitagarrienak egiten diotza; Jainkoak prometatzen dio gizonari, haren legea goardatzen badu, bere adiskidetasuna, bere laguntza, bere grazia, bere gloria, eta hori bethiko, eternitate guziko. Sari handi hunek ez othe du ukitu-

ko? Ez, agintza hautaz kasu guti eginik, bekhatu mortala egin du; plazer labur bat, atsegin iragan-
kor bat hartzea gatik, zer diot? pasione brutal
bat kontentatzea gatik, ukho egiten dio Jainko-
aren amodioari, Parabisuari; maiteago du instant
batetako satisfakzioea, Zerua, Jainkoa baino;
trufatzen da Jainkoaz, Jainkoaren fagorez eta
agintza guziez. Ah! Jauna, ez nakien zer hari nin-
tzen, ez nuen ezagutzen zein ezia eta salbaga-
ria zen zure legea. Orai argitzen nauzu zure gra-
ziaz, orai idekitzen darozkidatzu begiak, eta orai
higuintzen dut ene burua. Zuri eskerrak, eta
eskerrik handienak zor darozkitzut, zeren ez
nauzun punitu ene intsolentzia eta ingratasuna-
ren arabera. Merezi nuen ifernua eta oraino
hemen uzten nauzu, garbituko ditut nigarrez ene
faltak, eta biziko naiz zuretzat. Nahiago dut hil
ezen ez zu bekhatu mortalaz ofentsatu.

BIGARREN MEDITAZIONEA BEKHATU MORTALAZ

I

Bekhatu mortala da Jesu-Kristoren burreu egiazkoa, hark kolpatu, sarraskitu eta eman du hain estatu urrikgarrian, hark hil-arazi du Juduen eskuz, eta nik bekhatu mortala egin dudan aldi guzietz, erreberritu dut Jesusen Pasione sakratua. Posible da horren urrun joan naizen! Nik ene Salbatzailea gurutzefika, hanbat on eta ontasun egin darotan ondoan! Hura ene gatik sor establia batean, hura pobre bizi botika ilhun batean, hura nekha eta odolez izert ene onetan, hura hil bi ohoinen artean, zauriz estalia, azote kolpez larrutua, burutik oinetaraino odolztatua, arantzez khorotua, afrontu suerte guzietz sasiatua, eta ene gatik hainbertze egin eta sofritu duen Jainko-gizon hura berri berritan gurutzefika! Konprenitu othe dut zer egin dudan, bekhatu mortalean erori naizenean? Ah! Salbatzaile adoragarria, zure sortzeak, zure biziak eta heriotzeak ezagut-arazten darot bekhatu mortalaren

malezia beltza. Ah! monstro lazgarria, higuin-
tzen haut, herioa, Ifernua bera baino gehiago; ez
nauk gehiago enganatuko, sopra plaza utzi daro-
at ene bihotzean, hire kontra armatua nagok,
bethi guduan hariko natzaik, eta esperantza diat
ene Jainkoarn laguntzarekin batean bentzutuko
haudala.

II

Bekhatu mortala da gizonaren etsairik han-
diena, eta arimaren burreu bakharra. Graziak,
Jainkoaren amodiak egiten du arimaren bizia,
eta bekhatu mortalak egiten du arima haren
heriotzea; gorphutza arima gabe hila den beza-
la, arima grazia saildutzen duena gabe hila da.
Bihotza bi erdi egiten duen ezpata kolpeak gorp-
hutzeko bizia eramaten darotan bezala, bekhatu
mortalak arimako bizia gal-arazten darot. Hil
nahi ninduken etsai bati ihes egin niozoke, eta
Jainkoaren begietan hil naben bekhatua ez
urrundu, bainan onhetsi, maitatu, bilhatu dut.
Zer erhokeria! Zer barbaria! Zer krudelitate ez
dut izan ene buruarentzat! Akhabo da, Jauna,
egin da, sekulan ez naiz aski erho izanen bekha-

tu mortalaren egiteko. Ez munduak bere agintza, edo dixiduekin, ez Ifernuak bere finezia edo tronperiekin, ez eta pasioneek bere adrezia edo lausengekin, deusek ez nau ekharriko ene arimari kolpe mortalaren ematerat.

III

Bekhatu mortalaren itsustasuna hobekiago ezagutzeko, kontsidera dezagun nola punitu duen Jainkoak denbora guzietan. Aingeruak bere Kreatzailearen kontra altxatzen dire, Luzifer bere supherbioaz guziz gora deitzen denaren tronuraino igan nahi da, eta gogoeta hau, desira urguilutsu hau bet-betan da garrazki punitua; Zerutik da Aingeru hain ederra bere lagun guziekin bethiko desterratua, Ifernuko lezerat da kondenatua. Gure lehenbiziko burasoek jaten dute fruitu debekatua, eta betan galtzen dute, bereztat, bere ondoko guzientzat, gorphutzeko eta arimako bizia; lurreko parabisu maitagarritik khenduak dire, nigarretarat, nekhetarat kondenatuak dire; bekhatu mortal haren ondoreak dire munduko pena, xagrin, gosete, gerlate, miseria, eritasun, atsekabe guziak; heriotzea bera hark

sor-arazi du munduan. Nola gero usteko dut ezdeuskeria, dosteta, edo gauza gutia dela bekhatu mortala, hain garrazki punitua ikhusten dudanean? Zerk mundu guzia, zortzi presunaz landan, uholde jeneralaz itho-arazi du? Zerk suzko eta sufrezko uri batez erre eta kontsumitu ditu Sodoma eta Gomorra bertze hiri dohakabee-kin? Zerk bada? Bekhatu mortalak. Erreflexione hauk ez othe dire gai izanen niri ezagut-arazteko zein higuigarria den bere kreaturetan hain garrazki Jainkoak punitzen duen bekhatu mortala? Zein gauza izigarria den monstro intsolentziaz eta ingratasunez bethe hau? Bai, ene Jauna eta ene Jainkoa, ikharatzen naiz ikhustez zein garrazki punitu duzun bekhatu mortala, instant huntarik gerla deklaritzen diot, eta zuretzat izanen naiz oso osoa: indazu grazia, zuk inspiratzen darotazun deliberazione hunen atxikitzeke, zure zerbitzuan bizitzeko eta hiltzeko.

HIRURGAREN MEDITAZIONEA BEKHATU MORTALAZ

I

Bekhatu mortalak kalterik handiena egiten dio gure arimari; gal-arazten darozkigu ontasun guzietarik handienak, aberastasun egiazkoak. Jainkoaren haur maite ginen, haren adiskide min ginen, haren erresumako primu ginen, Jesusen haurride eta menbro berezi ginen. Izpiritu sainduak gure ariman bere egoitza egiten zuen, gure bihotza zen haren tenplu bizia eta maitea. Trinitate adoragarriak bere tronutzat hautatu zuen gure arima. Oi! nolako artha zuen gutaz! Zenbat grazia eta fagore, zenbat behatze ezti, zenbat kontsolazione ez othe zuen isurtzen gure bihotzetarat! Ez zen deus ere gure estatu dohatsua- rekin konpara zaitekenik; lurreko ontasunak, gure arimako ontasunen aldean, basa puska batzuek bezala ziren, munduko ohoreak, gure zorionaren aldean, laido batzuek ziren, sentsuen plazerak, gure bihotzeko gozoen aldean, kharastan batzuek ziren. Oi ala gure dohatsuak, bethi

goardatu bagindu gure saindutasuna! Ordean
bekhatu mortalak bet-betan miseriarik handie-
nerat aurdiki gaitu. Bekhatu mortalean erortzen
garen pontutik, galtzen dugu Jainkoaren amo-
dioa, eta gureganatzen dugu haren higuintza
guzia. Ez gare gehiago Jesusen membro, bainan
bai Satanen esklabo. Ez dago gurekin Izpiritu
saindua, Deabrua da gure bihotzen nausia eta
jabea. Trinitate adoragarriak aborritzen gaitu,
eta galdu dugu Zeruko primuza. Ah! zer kalte,
zer bidegabe gure arimentzat! Nola behatu diot
orai artean bekhatu mortalari? Uste izan othe
dut ene arimaren etsai eta burreu baxharra zela?

II

Bekhatu mortala egin duen arimaren pobre-
zia osoa eta urrikalgarria da. Ordu artean bildu
ahal zituzken obra on guzietz, merezimendu
guzietz bilhuzia da. Barurik garratzenez, othoitzik
khartsuenez, amoinarik handienez, mortifikazio-
nerik luzeenez, komunionerik sainduenez,
hamar, hogoi, berrogoi urthez eta gehiagoz ere
penarekin egin zituzken irabazi guzietz gabetua
da: aberatsa dauka bere burua, deusen beharrik

ez duela, dio bere baithan, eta bizkitartean erro-
mes eta miserable da, gauza guzien beharrean
da. Nork esplikatuko daroku haren pobreziaren
hedadura guzia? Bekhatu mortala su bat da,
gauza guziak erroetarainokoan kontsumitzen
dituena, aire phozoatu bat da, lorerik ederrenak
ihartzen dituena, ohoin kruel bat da, merezimen-
du guziak arrobatzen dituena. Oi! beraz ala hire
dorphea! ala hire kruela, o bekhatu mortala,
betan hain miseria eta lazzeria handirat aurdiki-
tzen naukanaz geroz! Gure burua, gure intresak,
gure zoriona maite badugu, nola behatuko diogu
hanbat kalte egiten darokun bekhatu mortalari?

III

Anima zazu zure fede guzia, sar zaite zure
bihotzean barna, eta ikhusiko duzu zertarat bil-
hakatzen duen bekhatu mortalak zure arima;
obrarik hoberenak, akzionerik sainduenak, eta
berenez baliosenak egin baletza ere, bekhatu
mortalak haur guziei edekitzen diote Zeruko glo-
riaren merezitzeko balioa. Baiki, bekhatu morta-
lean naizeno egiten ditudan amoinak, barurak,
othoitzak, mortifikazioneak sari gabe dire Jainko-

aren eresuman. Senda banetza eriak, erna bane-
tza gor eta mutuak, xuxen banetza mainguak,
phitz banetza hilak; mirakuilu hauk guzietaz ez
nezake merezi gloriaren gradurik xumeena. Gra-
ziazko estatuan Jainkoarentzat egin nezaken
akzionerik xumeena hain balios da, non merezi
bai du Zeru guzia, eta bekhatu mortaleko esta-
tuan egiten diren obrarik miragarrienak ezin
dukete eternitatean saririk. Neroni hila naiz Jain-
koaren aitzinean, eta beraz nik egin dezakeda-
nak ez du bizitze eternalaren gainean zuzenik.
O! nonbait bekhatu mortala hire higuingarria,
goastatzen eta desegiten dukanaz geroz bere-
nez hain eder eta balios laitezken obra sailduen
merezimendua! Badakit hek egin behar ditudala,
eta noiz ditut beharrago nigarrak, auhenak,
othoitzak, amoinak, mortifikazioneak, bekhatu
mortaleko estatuan naizenean baino? hetaz
behar dut, eta hetaz xoilki ardiets dezaket ene
Jainkoaren bihotza, hetaz ema dezaket haren
kolera; hei beraz lothuko natzaiote khartsuki,
hetaz baliatuko naiz bekhatuak gal-arazi daroz-
kidan ontasunen biltzeko, eta berri-berritan
haren umeen herrunkan jartzeko. Behatzen eta

behatuko diot bekhatu mortalari ene Jainkoaren eta ene arimaren etsai bakharrari bezala, hura da bakharra higuinduko dudana, ene miseriarik handiena bezala; eta gainerako kalte, atsekabe guziak besarkatuko ditut, hek prezatuko ditut ene ontasunak bezala, eta hetaz eginen dut ene plazera.

MEDITAZIONEAK BEKHATU BENIALAZ

I

Bekhatu beniala da Jainkoaren lege saindua hausten duen hitz, obra, desira edo neglijentzia bat, ez gauza handi batean, baina gauza xume batean egiten dena. Bekhatu bat da, beraz Jainkoaren ofentsa bat da, beraz Jaunaren borondatearen kontra doha, bekhatu bat da, beraz Jesusi damu egiten dio; hala da, ez gaitu Jainkoaren etsai egiten, ez gaitu Satanen esklabo egiten, ez gaitu Zerutik khentzen, eta Ifernurat kondentzen; baina hanbat maite gaituen Jainkoari desplazer egiten dio. Eritasunak, oinhazeak, pobrezia, eta lurrean jasan daitezken pena suerte guziak baino gaitz handiagoa da bekhatu beniala, zeren hek zaurtzen bai dute kreatura xoilak, eta hunek ofentsatzen bai du Aingeruen eta gizonen Kreatzailea. Nihoiz ez da zilhegi bekhatu benial baten egitea; banaki ere bekhatu benial bat egiteaz senda netzakela eri guziak, libra netzakela gathibo guziak, konberti netzakela

munduko bekhatore guziak, saindu netzakela Judu eta Pagano guziak, Zerurat egor netzakela Purgatorioko arima guziak, Parabisuan sar-araz netzakela damnatu guziak, ez litzaiket permis bekhatu haren egitea; beraz gaitz handi bat da eta hagitz handia bekhatu beniala, eta nik hala uste izan othe dut? Hain gaitz handiarentzat iduki othe dut bekhatu beniala? Eta nola bada hain antsikabeki egin dut? Nondik heldu da hartan ohitu bai naiz? Ez deusentzat kondatu dut hain gaitz handia den bekhatura. Zer itsutasuna! Iraganak iragan, biguinduko dut bekhatu beniala, eta emanen diot Jainkoari berak eman darran, eta beretzat xoilki egin duen bihotza.

II

Bekhatu benialaren malezia hobekiago eza-gutzeko kontsidera zazu nola punitua izan den bekhatu beniala. Lot justuaren emaztea hunelako bekhatu bat gatik gatzezko figura batetarat da bihurtua, gatz da bera bilhakatua; Betsameko berrogoi eta hamar mila presuna, kuriostatezko bekhatu benial baten gatik, hil gogorrek dire eroriak. Moise Jainkoaren adiskidea, fidantzia eskas

arin bat dela kausa, ez da sarthu Jainkoak agindu zioen lur prometatuan; eta Maria Moisen arreba, murmurazione edo errenkura baten gatik, lepraz da kargatua; Ananias eta Saphira senhar-emazteak, gezur baten gatik, heriotze supituaz dire punituak. Horra nola Jainkoak behatzen dioen bekhatu benialari; horra Juje justu hark zein garrazki punitu duen bekhatu beniala. O! beraz bekhatu beniala, ala hire higuingarria, hanbat gaztiguz mundu huntan berean, eta miletan garrazkiago Purgatorioan punitua haizenaz geroz! gaitzesten eta aborritzen haut; orai ezagutzen haut haizenarentzat, eta orai ukho egiten daroat; hainitz eta sobra aldetatik sarthu haiz ene bihotzean, kuriostasunaz, ignorantziaz, neglijentziaz, atenzione eskasez, mortifikazione faltaz sarthu haiz ene ariman; bainan akhabo, ez duk gehiago lekhurik kausituko ene baithan, eta uste gabez nothatzen badarotak ene arima, nigarrez garbituko diat ene falta, eta khartsuki zerbitzatuko diat ene Jainkoa.

III

Bekhatu xumeez edo benialez kasurik egiten ez duena baratxe-baratxe mortaletan eroriko da. Badakit hainitz bekhatu benialek ez dezaketela egin bekhatu mortal bat, baina egia eternalak seguratzeko nau bekhatu benialetarik iraganen naizela bekhatu mortalera. Nola hori? Zeren bekhatu benialetan ohitzen denak galtzen bai du baratxe-baratxe mortalaren higuintza eta beldurra, flakutzen bai du bere baithan Jainkoaren amodioaren khar bizia, indarrak bere baithan ematen bai diotza bere etsaiari, eta gisa hortan ematen bai da bekhatu mortalean erortzeko arriskutan. Guti-gutiak dire kolpe-kolpez, eta bet-betan saildutzen direnak, eta orobat bakharrak dire berehala bekhatu mortaletan erortzen diren justuak. David, Errege hain saildua, Profeta hain argitua, nola erori zen hain bekhatu itsusian? Xede gaixtorik gabe, maleziarik gabe, behatze kuriosegi bat asko izan zen hura faltarik handienetan eror-arazteko; Judas dohakabea nola joan zen bere nausi maitea saltzerainokotan? Lehenik maitatu zuen dirua, gero abarizios bilhakatu zen, finean dirutan bere Jauna eta

Jabea traditu zuen. Horra zer darraion bekhatu benialari; horra zein egia den hetan ohitzen dena, hetaz kasurik egiten ez duena, eroriko dela bekhatu mortaletan. Ezagutzarekin ez dut beraz bekhatu den xumeena eginen; guziei ihes eginen diotet, zeren bakhotxa Jainkoaren ofentsa, eta ene arimaren gaitz bat bai da, zeren garrazki punitua bai da, eta maiz bekhatu mortalez segitua. Egizu, Jauna, orai hartzen dudan deliberazionea konpli dezadan ene bizi guzian.

MEDITAZIONEA HERIOTZEAZ

I

Deus ere ez duzu heriotzea baino seguragorik. Hilen zare; horra ezin den gutiena ere duda dezazukena. Egun oroz herioarekin eta herioaren kontra guduan hari zare. Jaten duzu, edaten duzu, beztitzen zare, zertako? Gosez edo egarritz, edo hotzez ez hiltzeko. Inguratzen zaituzten, estaltzen zaitzuten gauza guziek adi-arazten darotzute hil behar zarela. Zure aitzinean izan diren gizon eta emaztekiak non dire? Zer bilhakatatu dire sei mila urthe huntan, nor bere aldian, lurrean agertu diren erregeak eta sujetak, handiak eta xumeak, aberatsak eta pobreak, sendoak eta eriak, borthitzak eta flakoak? Helas! zenbait denbora aphurrez ibili, mintzatu, dostatu dire, bere buruez mintza-arazi dituzten jendeak, eta ondoan hil dire; hetaz eta zutaz gauza bera izanen da, gauza bera erranen da: experientziak eta arrazoinak bezala, fedeak ere erraten darotzu hilen zarela; posible othe da hainbertze alde-

tarik aditzen dugun bozari gorraena egitea!
Guziek erraten darokute hil behar garela, eta ez
gare orhoitzen hiltzeaz! Heriotzearen orhoitza-
pena urruntzen dugu, herioa bera, hura ahantzi-
rik, urrun ahal bagineza bezala! Hilena naiz beraz,
eta laster, bizitzerik luzeena amets bat da, den-
borak thonbarat banerama, ximista Zeruaren
parte batetarik bertzerat dohan baino lasterra-
go, eta ez dut gogoan erabiltzen herioa! Bethi
bizi behar banintz bezala nago! hau da erhoke-
ria! Hau da itsumendu auhendagarria!

II

Ezagutu behar duzu ongi zer den heriotzea,
hartarat ongi preparatzeko. Heriotzea da gauza
guzien akhabantza, inguratzen zaituzten guzien
fina. Gorphutza, mundua, denbora, grazia, Jain-
koaren miseriakordia, horra zer duzun, edo zer
izan dezakezun lurrean; bada hauk guziak akha-
bo izanen dire heriotzean; herioak hauk guziak
zuretzat ezdeustatuko ditu. Akhabo gorphutza,
herrautsetarat bilhakatuko da, xixariez estalia
eta jana izanen da hanbat artharekin aphaintzen
zen gorphutz hura; harren bazka dire eginak

hanbat solhaz egiten zuen mihia, hanbat behatze egiten zuten begiak. Horra gorphutzaren zortea. Zertako beraz huni harenbertze atsegina egiten diot? Zertako, huni plazer egiteko, galduko othe dut ene arima? Hiltzean akhabo enetzat mundua bere ontasun, bere gloria, eta bere plazer guziekin; hauk guziek utziko naute, egun batez eta laster guziak utzi beharko ditut: zertako orai danik bihotzez ez ditut abandonatuko? Zertako ez diotet orai beretik adios erranen? Ala erhokeria handia bai da khea bezala heriotzean suntsitzen diren ezdeus batzuei lotzea!

Heriotzean akhabo denbora, orduan hasten da behinere finik izanen ez duen eternitatea. Zer zorigaitz enetzat Jainkoaren etsaikoan banaiz orduan! ezen ez da orduan penitentziarik, ez da gehiago izanen graziarik, ez miseriakordiarik, justiziaren denbora ethorria daiteke. Orai dire salbamenduko egunak orai denbora fagorezkoak, momento guziak dire orai preziatu; baliatuko naiz beraz, egun eta oren guziez, Jainkoak bizitze eternalaren irabazteko eman darotan denboraz; ene nigarrez, ene plainuez, eta penitentzia garratzez urratuko ditut ene faltak, leial eta

khartsu izanen naiz Jaunaren zerbitzuan, bide huntaz izanen dut beldur baino esperantza gehiago heriotzeko orenean.

III

Heriotzea hain segura duzularik arren, heriotzea hain lazgarri delarik arren, ez dakizu ez non, ez noiz, ez nola hilen zaren. Non hilen naiz? Etxean, ala kanpoan? Herrian, ala atz-herrian? Ez dakit. Nik dakidana da, ni naizen lekhu guzietan, ene heriotzea izan daitekela; beraz lekhu guzietan bizi behar naiz, lekhu guzietan eta bakhotxean hil behar banintz bezala. Noiz hilen naiz? Aurthen, ala ondoko urthean? Gaztetasunean, ala zahartasunean? Ez dakit. Nik dakidana da, noiz nahi den hil naitekela, oren eta instant guziak izan daitezkeela ene azkeneko orenak eta instantak. Nola hilen naiz? Justuen heriotze preziatuaz, ala bekhatoreen heriotze terribleaz? Ez dakit. Helas! beraz ez dakit, ea mundu huntarik ilkhitzean, Zeruan izanen naizen glorian, ala lfernuan izanen naizen Deabruen artean. Zer eginen dut sailduki hiltzeko? Bizi behar naiz sailduki, bizi onaren fruitu ordinarioa da heriotze ona.

Nahi naiz beraz, Jauna, orai baliatu, hil ondoan inutilki gabe nezaken, zure miseriakordiaz. Bizi nahi naiz, egun oroz hil behar banintz bezala.

MEDITAZIONEA BEKHATOREAREN HERIOTZEAZ

I

Ez da deus ere hiltzerat dohan bekhatorearen estatu tristea baino dohakabeagorik. Norat nahi den beha dezan, ez du ikhusten doloratzeko sujetik baizen. Bere bizitze pasatu guzia gogorat heldu zaio, eta ordu artean ikhusi ez duen bezala ikhusten du bere arimako estatua. Bekhatu baxhotxa bere zirkunstantzia eta malezia guziarekin ikhusten du, eta entseiatzen delarik arren hekien ahanzterat, burreu kruel batzuek bezala, sarraskitzen diote bihotza. Hanbat denbora gaizki, edo inutilki enplegatuak, hanbat grazia meziprezatuak, hanbat inspirazione, mobimendu, Jaunaren deitze ezti, dohatsu egiteko gai zirenak, ostikatu eta galtzerat utzi dituenak betetan eta kolpe-kolpez presentatzen zaizko, eta hek erreportxatzen diote bere bizitze iraganeko gaixtakeria guzia. Hala da; badaki kofesatu dituela bere falta gehienak eta guziak ere,

ordean aithortzerat bortxatua da onerat konbertitzen ez gaituen penitentzia itxurazkoa eta agorra dela, kostuma gaixtoekin egiten den kofesioa, edo komunioea bekhatu berri bat dela, eta horra zerk izitzen duen. Ah! orduan desiratzten luke bertzela pasatu balitu bere denborak, orduan nahi luke sainduki enplegatu balitu bere gaztetasuneko sasoinak; ordean hek iragan zaizko, eta badaki ez zaizkola bihurtuko. Zer tristezia! Zer dolore! Zer orhoitzapen bihotz erdiragarri!

II

Pasatuak izitzen badu hiltzerat dohan bekhatorea, presenteko bere estatuak, eta Jainkoaren jujamenduak osoki ikharatzen dute: bere ohearen gainean etzana, izpiritua alde guzietarik penatua, bihotza mila xagrinez bethea, gorputza, edo sukhar batez ahitua, edo oinhaze minez ihartua, ikhusten du utzi behar duela maite duen mundua; hanbat penarekin, eta menturaz injustizia, eta tronperiekin bildu dituen urre, zilhar, muble eta ontasun maiteak bortxaz uzterat obligatua dela badaki, gathibo iduki duten kreatura

malurusetarik separatzerat dohala sentitzen du. Zer dolore ez du, bihotza amarratzen dioten plazer, ohore, atsegina eta satisfakzio banoetarik hastantzeko? Denbora aphen bat nahi luke, eta denbora errefusatua zaio. Munduak khentzen du bere ganik, eta ikhusten du herioa bere dardo zorrotzarekin kolpe mortalaren ematerat dohakola, eta bere krimen lekhuko izatu duen Jainko saindu, Jue garratzaren aitzinean agertu behar dela. Kontsiderazione hunek ez othe du ikhartzek behatuan hiltzerat dohala dakien giristinoa! Ez othe da bada lazten! Erradazu ea zer dioen orai zure arimak? eta baldin ukitua bada, zertako ez zare oraidanik konbertitzen? Ah! Jauna, ene konbertitzea zure graziaren obra da; egizu othoi ene fagoretan zure amodiozko mirakuilu bat; orai beretik has zaite ene gaztigatzen, hiltzerakoan ez dezazuntzat kausi deus ere ene baithan.

III

Hiltzerat doan behatoretak ez du hurren solejimendurik batere, kontsolazione guziez kasik gabetua kausitzen da. Batzuetan, osasu-

nean egin zituen kofesio eta komunione gaixto-
en punizionetan, ez du sakramenduen errezibi-
tzeko epherik; edo baldin astia badu, nola egin
othe dezake errexki hain gaitza den examina
oso-oso, deklarazione klar eta hedatua? Nola
bet-betan izanen du dolore eta kontrizione hain
baitezpadakoa, eta Jainkoak niholere zor ez dio-
ena? Bihotza deskantsuan, izpiritua errepau-
suan, gorphutza osasunian ere hanbat penarekin
egin den lan handia, nola egingen du izpiritua fla-
katua, bihotza trublaturia, eta gorphutza gaitzaz
xukatua duenean? Jainkoak mirakuili batez gan-
bia dezake, ordean mirakuilu hau hanbat urtez
mezprezatu duen Jainkoaren ganik igurikitzea
erhokeria bat da. Antiochus, Printze gaixtagina,
hiltzerakoan, othoitzez zagokon Jainkoari, zeina-
ren ganik ez baitzuen miserikordiarik ardiesteko;
eta justu da, Jauna, zure gonbidatze amultsuez
osasunean trufatu denaz, zu ere trufa zaitezen
haren heriotzean. Nitaz denaz bezanbatean
baliatu nahi naiz egin dudan meditazioneaz, zori-
gaitz berean ez erortzeko; jarraikiko natzaio
penitentziarat deitzen nauen bozari, lothuko
natzaio zure graziarekin batean bizitzen berri

bati, konplutuko dut zure lege guzia. Zuk zure grazia sailduaz lagun nazazu, ez dezazula per-meti hil nadien bekhatooren heriotzeaz; bainan egizu hil nadin justuen heriotzeaz.

MEDITAZIONEA JUJAMENDUAZ

I

Bere bekhatuan hil den girstinoa ahaideez, adiskideez, hauzoez inguratua da, batzuek eta bertzeak auhenetan, nigarretan daudez, eta haren arima Jainkoaren tribunal ikharagarrian presentatua da; gorphutza lurrean ehortzia izanen da menturaz ponpa eta manifizentziarekin, eta arima bere Juje soberanoki meziprezatu duenaren aitzinean agertuko da gorphutzetik separatu den pontutik; ordean bera bakhar-bakharra, lurrean zituen ontasunez, karguez, izen handiez, kreditaz, lagunez, adiskideez utzia. Nihor ez du ikhusten bere aldaketan, nihor bere inguruetan, bera da xoil-xoila bere Jujearekin: guzia argitua, botheretsua, guziz zuzena, ezin phazegatuzkoa den, eta handizki meziprezatu duen Juje batek jujatu behar duela badaki, ikhusten du, eta ezin itzur dakioke, ezin ihes egin diozoke, nihork ezin libra dezake haren eskuetarik; non dire, erraten dio bere Jainko-Jujeak, ene despit maitatu ditu-

kan plazerak, ohoreak, ontasunak? non dire ni utzirik hartu ditukan lagunak, adiskideak? Hire Jainkotzat hartu hituen kreaturak? Ehor bekizkik laguntzerat, eman behazate ene kolpeen gerizean; ethorria duk ene eguna, ordean hiretzat hain zorigatzezkoa izanen dena. Zer beldur eta ikhara ez du orduan bekhatoreak! Bere bizi guzian egin dituen bekhatu guziez da inguratua, bere obrek segitu dute Jujearen aitzinerat. Helas, Jauna aithortzen eta arbuiatzen ditut ene errebelamenduak, utziko ditut gauza iragankor guziak, maitatuko eta arthoski segituko dut Zerurat gidatzen duen bidea, obra onez berreginduko dut ene arima, hek izanen dire ene begiratzaile, sustengu, eta defendatzaile egun lazgarri hartan.

II

Bekhatuan hiltzen den giristinoa zorrozki eta xeheki izanen da examinatua; bere bizi guziaz, bizitzeko instant guziez ihardetsi beharko du. Kontu galdetuko zaio ordu artean eraman duen denboraz; zer egin duk? erranen dio Jainkoak, zertan enplegatu duk hire osasuna, zertan onta-

sunak? Zer egin duk, ene ezagutzeko huen izpirituaz, nitaz orhoitzeko huen memoriaz, ene maitatzeko huen bihotzaz? Zeri eman diok hire arima? errak mintzadi. Uргуuileriazko zenbat pentsamendu! Mendekuzko zenbat desira! Zenbat akzione krimineletan ez duk korronpitu hire burua! Kreaturez baliatu behar bidean ene maitatzeko, hetaz zerbitzatu haiz ene desohoratze-ko. Ene deitze guziez ez duk kasurik egin, ene pazientziaz trufatu haiz, nik orai jujatu behar ditiat hire obra iduriz onak ere. Nola egin dituk othoitzak? Ezpainez. Nola amoinak? Banitatez. Nola kofesioak? Kostumaz. Nola komunioneak? Bekhatuzko usantzan, bekhatua bihotzean. Nola entzun dituk mezak? Grimasaz. Ni nauk hire Jujea, eta guzien lekhuko izan naizena. Ah! zer lazturaz, zer trublez ez da bethea Juje hain garrazaren aitzinean interrogatua den arima dohakabea! Ala bai dire urrikaltzeko, kontzientzia erregelatu gabe, Juje ikharagarriaren aitzinean agertzen direnak! Othoitzaz eta nigarrez garbituko dut ene bihotza; molde huntan konfidentzia saindu batekin presentatuko naiz Jainkoaren tribunalean.

III

Jainko-Jujeak bekhatorearen kontra emanen duen arrasta terriblea izanen da: oha madarikatua, erranen dio, aparta hadi ene ganik, kreatura dohakabea; oha Deabraurentzat eta haren lagunentzat preparatua den su eternalean erretzen egoterat. Ah! zer ihurtzuri kolpea! hitz bakhotxa gai da bihotzaren arrailatzeko. Oha mada-ritakua: eta zer bilhakatuko da, Jauna, zuk mada-rikatzen duzuna? Zer izanen da zure ganik urrun-zen eta desterratzen duzunaz? Zu zare haren ontasun soberanoa eta baxharra, zure ganik urrun ezin daiteke soberanoki dohakabe baizen. Oha eta norat? sutan erretzerat, pena guzietarik handienetarat, suplizio guzietarik dorpheeneta- rat: eta norekin izanen naiz? Deabruarekin eta haren lagunekin. Helas, zer konpainia, zer sahis- kide! Deabruen artean, Zeruan glorian izan behar zena! Eta noiz artean sutan erreko da? Zenbat denbora han egonen da? Eternitate guzian. Ah sekula! Ah eternitatea! Nork konpre- nituko du hire hedadura mugarrigabea? Bethiko Zerua galdua, bethiko Jainkoa galdua; sekulako

Ifernua, sekulako sua, eternitatekotz Jainkoaz
madarikatua, sekulan ez kontsolazionerik, ez
eztitasunik, ez deskantsurik; bethi instant guziez
fin gabeko tormentak. Ah Ifernua, ala hire dorpe-
hea! Bekhatua, ala hire izigarria! Noiz higuindu-
ko haut bada! Nola har dezaket su eternalaz
punitua den plazer laburra! Ah! ene Jauna eta
ene Jainkoa, zure jujamenduen orhoitzapenak
ikharatzen nau; baliatuko naiz zeronek ematen
darotazun ordenaz: jujatuko dut zorrozki ene
burua, seguratua ez nauzula jujatuko zure kole-
ran, ez punituko eternitatean.

MEDITAZIONEA BI ETERNITATEEZ

I

Ez zare mundu huntan bethi mundu huntan egoteko: lurra desterruko lekhu bat da, bertze bizi bat izanen da hunen ondoan; iraganen dire urtheak, egunak, orenak; eta, helas, zein laster ez othe dohaz! eta ethorriko da eternitate behinere akhabatuko, iraganen ez dena; zu zeroni ere eternitate guziko zare, ez duzu finik izanen: zure gogoetak, desirak, hitzak eta obrak momento batez eginak dire, ordean eternitate guzian iraunen dute; eta nola egiten dituzu? eta zertako egiten dituzu? Zu egin zaituen Jainkoaren begietan bethi eta eternitatean izanen dire zuk denboran egiten ditutzun hitzak eta akzione guziak. Ez othe laiteke kontsiderazione hau bera asko izan behar zutaz saindu baten egiteko? Ah! Jauna, ikhusten duzu orai artean eternitaterik ez balitz bezala bizi izan naizela, handik bilhatu, desiratu eta maitatu ditut denborako aisiak, plazerak, ohoreak, atseginak; bethi gogoan erabili

dut, ea nondik edo nola gogaretan iragan neza-
ken bizitze iragankor hau, eta ez naiz penetan
eman behinere iraganen ez den eternitateko
biziaz: orai ezagutzen dut ene erhokeria handia,
barkha dazu, o, Jainko guziz ona, ene laxotasu-
na.

II

Badire bi eternitate suerte, eta ez gehiago; bi
eternitate suerte hautarik batean edo bertzean
izan behar zare, ezin itzur zaitezke. Eternitate
zorionezkoa, edo eternitate zorigaitzezkoa;
sekulan dohatsu edo sekulan dohakabe: bethi
glorian penarik gabe, edo bethi tormentetan
gozorik gabe: fin gabe Zeruko erresuma maita-
garrian, edo fin gabe Deabruarekin Ifernuko
lezean. Baiki, ene arima, gozatuko haiz eternita-
te guzian, Jainkoa Jainko deno, plazer gozo, eta
bozkario guziez: edo tormentatua izanen haiz
eternitate guzian, eta Jainkoa Jainko deno, supli-
zio guziez. Bethi Jainkoa laudatuko, adoratuko
eta glorifikatuko duk Zeruan, edo bethi Jainkoa
blasfematuko eta madarikatuko Ifernuan. O pen-
tsamendu terriblea! O erreflexione ikharagarria!

O sekula, o eternitatea, ala gaia bai haiz bihotzik gogorrenaren porroskatzeko! eta, helas, enea ukitua othe da? Sinhesten othe dut eternitate suerte hautarik batean, edo bertzean izanen naitzela? Sinhesten ez badut, fedea galdu dut, eta sinhesten badut, nonbait ongi sorhaitua naiz, ikharatua ez banaiz. Orhoitzen othe naiz egia hautaz? Haukien gainean ene bizia moldatu othe dut?

III

Zure biziaren araberakoa izanen da zure eternitatea; zure hautuak egin dezake zure zorion, edo zorigaitz eternala; zure eskuan duzu zure zortea; Jainkoak utzi darotzu, plazer duzunaren hautatzeko, libertatea, eta berak eman darotzun bizitze labur hunek dezidatu behar du zure dohatsutasun, edo zure dohakabetasun eternalaz; oraino bi eternitate haukien artean zare, biziaren hari flakoak zauzka hagoan, baldin herioak pikatzen balu, zein eternitatetarat othe zindoazke? Norat ere arbola erortzen bai da, han bethi egonen da, zer ere estatutan hilen bai zare, hala eternitate guzian izanen zare, eta

biziaren irudikoa ohi da heriotzea: ez da biltzen mahatsa elhorrietarik, eta laharrek ez dute ekhartzen fikorik, zure obren araberakoa izanen da zure fina. Examina zazu zure bizitze guzia; nolakoak dire ene pentsamenduak, nolakoak ene desirak, nolakoak ene obrak, nolakoak ene amodioak? Zer estimatzen, zer bilhatzen, zer maitatzen dut? Zertako nekhatzen, zertako trabailatzen, zertako mintzatzeko othe naiz? Zer egin dut orainokoan, eternitate dohatsuaren seguratzeko, eta zer ez dut egin eternitatean malurus izateko! Helas, hunelako, edo halako denboran, egunean, eta orenean hil banintz, segur naiz, eternitate guzian dohakabe izanen nintzela, zeren segur bai naiz, bekhatu mortalean nintzela; eta orai nola othe naiz? eta gero nolakoa izanen naiz? O sekula! O eternitatea! nitaz hain guti ezagutua izatu haizena! Orai danik hi hartu nahi haut ene biziaren erregelatzat; hire gainean moldatuko ditiat ene gogoeta, desira, obra, akzione guziak. O eternitate, o sekula dohatsua! zu desiratzen zaitut, zu bilhatzen zaitut; ukho egiten diotet zuretzat on ez diren gauza guziei, bai eta maiteenei ere; eta

zuretzat on diren guziak, bai eta kharatsenak ere gogotik besarkatzen ditut. Zuk, Jauna, argitu nauzun bezala, borthitz nazazu, azken hatserainokoan deliberazione hunen segitzeko.

MEDITAZIONEA

SALBAMENDUKO EGITEKOAZ

I

Jainkoak munduaren kreatzean, bere Seme maitea gizon egitean, gure zorion eternalari behatu dio; gauza guziak egin ditu gure salbatzeko, eta bere glorian gu bizi-arazteko. Zeruak, lurrak, Berboaren inkarnazioeak, sortzeak, bizi-tzeak, heriotzeak, guziek erraten darokute gu dohatsu egiteko izan direla. Gure beharrik ez zuen Jainkoa gure gatik gizon egin da, Bethleengo establian sorthu da, pobrezian, humiliazio-nean, gauza guzien eskasean bizi izan da; Caiphasen, Pilatusen, Herodesen etxean kausitzen dut afrontuz eta laidoz sasiatua, azote kolpez larrutua, eta Kalbarioko mendian ikhusten dut bi ohoinen erdian gurutzefikatua eta hila. Zertako, Jauna, horrenbertze? Ene erosteko, ene salbatzeko. Nork gero hozki behatuko dio bere salbamenduko egitekoari, Jainkoak hain egiteko handiari bezala behatu dionaz geroz! Horra, ene

Jauna, zuk egin duzuna, eta nik zer ez nuke egin behar salbatzeko!

II

Salbamenduko egitekoa da ene egiteko bakharra, nik egin beharra, bertze nihork ezin enetzat egin dezakena; ene lurrak bertzeek labora detzakete, ene tratuak bertzeek egin detzakete, ordean ene arima ezin bertzeek salba dezakete. Bertzeen obra onak, mortifikazioneak, saindutasuna, zoriona ez dire eneak; hek egin dute bereztat, eta nik egin behar dudana enetzat utzia da; hek irakhatsi darotet, nik neronek egin behar dudala ene salbamenduko egiteko handia eta bakharra. Baiki, hori da bakharra nezesario dena, bertze guziak hunen aldean dosteta batzuek dire, hortako zare mundu huntan, eta ez deus bertzetako; ez zare hemen hainitz bizitzeko, ontasunen biltzeko, edo plazeren hartzeko, baina Jainkoa maitatuz, salbatzeko; gainerako egiteko guziak ezdeuskeria batzuek dire, edo zerbait badire, guziak zure salbatzeko behar dire; non ez, utzi beharrak dire, gauza inutil edo kaltekor batzuek bezala. Eta nik nola behatu diot

salbamenduko egitekoari? Ez egiteko bati beza-
la. Zer denbora, zer atentziona, zer artha eman
diot? Kasik batere. Bertze gauza guzientzat den-
bora, astia, grina izan dut, eta ene egiteko bak-
harrarentzat antsikabe, ezaxolatu, eta alfer izatu
naiz, ez dut kasik deusik egin, edo hagitz guti
egin dut salbatzeko. Othe da ene erhokeriaren
parerik?

III

Salbamenduko egitekoa gaizki egiten bada,
kalte hau ezin erreparatuzkoa da, hau behin faltatzea, sekulako faltatzea da, Zerua behin galtzea eternitateko galtzea da. Zer probotxu da gizonarentzat, dio Jesu-Khristok, mundu guzia beretzea, galtzen badu bere arima? edo zertaz erreparatuko du bere kalte handia? Munduko gainerako kalte gehienek badute zenbait erremedio, edo kontsolamendu, ordean arima galduz geroz, ez da erremediorik, ez da kontsolamendurik. Orai urthe agor bat badut, gero sasoin aberats bat uste dut; eri banaiz, osasunaren esperantza badut; adiskide bat galtzen badut, bertze bat egiten dut; ordean arima galtzen badut, ez

zait gelditzen deus ere, lfernuan naiz, eta han ez da sosegurik, ez esperantzarik. Zertako bada ez naiz lehiatuko, denbora Jainkoak uzten darotano, haren ongi eta dohatsuki enplegatzerat? Zertako ezdeuskerietan iraganen ditut bethi ene urtheak, ene egunak, ene orenak? Ez othe darozkit Jau-nak ematen lan handi hunen ongi egiteko? Zer-tan nago nagi eta alfer? Nor da ene salbamendu-ko egitekoan intresaturik ni baizen? eta halarik ere dosteta bati bezala behatu diot orai artean. Ah! ene Jauna eta ene Jainkoa, atzar eta erna zazu ene arima bere lokhuma tristetik; ezagut-araz diozozu bere egiteko bakharra, eta hartan okupa-araz zazu, menturaz joan dire salbamen-duaren egiteko nituen denborarik ederrenak, bainan ora hasten naiz khartsuki ene salbamen-duko lanari lotzen, maitatuko eta serbitzatuko zaitut, utziko ditut zure gogarako ez diren gauza guziak, gostarik gosta salbatu nahi naiz; egidazu grazia deliberazione hunen konplitzeko.

MEDITAZIONEA DAMNATZEN DIRENEN NONBRE HANDIAZ

I

Kontsidera eta astiroki medita zatzu egia eternalaren hitz hauk; hainitzak dire deithuak, eta gutiak hautatuak. Othe da deusere Jesusen erran hau baino ukigarriagorik, eta gure baithan sar-arazteko gaiagorik? ala zabala eta largoa bai da heriotzerat, Ifernurat gidatzen duen bidea, eta hainitzak dire hura hartzen eta segitzen dutenak! eta ala hertsia eta nekhezkoa bai da bizitzerat, Zerurat daraman arruta, eta bakharrak dire hura hautatzen dutenak, eta hartan dohazenak! Bortxa zaizte hertsitik sartzeko, ezen nik erraten darotzuet hainitzek xerkhatuko dute hartarik pasatzea, eta ez dute ahalik izanen. Horiek dire salbatzailearen hitzak, zeinetaz klarki adi-arazten bai daroku, zein hainitzak diren damnatzen direnak, eta zein gutiak salbatzen direnak. Zerekin konparatuak dire Izpiritu sainduaz salbatzen direnak? adi ezazu, eta ikhara zaite. Gutienean hamabi ehun mila Israelda-

rretarik, lur guziei prometatuan sarthu ziren, Josue eta Calep, bi gizon xoil haukiekin; Uholde jeneralean gizon eta emazte guzien artetik arka edo untzi batean salbatu ziren zortzi presunekin; Sodoma eta Gomorra, eta gaineko hiri dohakabe suzko eta sufrezko uriak kontsumitu zituenetarik beiratuak izan ziren laur presunekin. Helas, zein xumea ez da beraz salbatzen direnen nobrea, eta zein handia damnatzen direnena! Ez othe naiz lazten eta ikharatzen Profetak eta Jainkoaren Semea hunela mintzatzeko aditzen ditudanean? Nondik heldu da hain bakharrak bai dire salbatzen direnak? Eta ni salbatuko othe naiz? Ene salbatzeko hil nahi izan zaren Jesus maitea! egizu ez nadin gertha damnatuko direnen baltsa handiko.

II

Jainkoak garen guziak salbatu nahi gaitu, ezin duda dezakegu haren borondateaz, hartarakotz kreatu nau, hartarakotz kontserbatu nau, hartarakotz bere Semearen odolaz erosi nau, hartarakotz giristino egin nau, eta bere Elizan hanbat laguntzaren artean ezarri nau; ezin beraz

uste izan dezaket Jainkoaren nahitik heldu dela hain gutiren salbatzea, eta hain hainitzen damnatzea. Nondik bada heldu othe da hori? Gizonen-ganik, zeren gutiak bai dire salbatzeko nezesario dena egiten dutenak. Salbatuko denak begiratu behar du Jainkoaren lege guzia; eta nork hura begiratzan du? Zenbat manera diferentez ez da hautsia, eta ostikatua Jaunaren lege saildua? salbatuko denak behar ditu gurutzefikatu bere nahikara eta gutiziak, eta gehienek hek kontentatzen, hek satisfatzen dituzte. Salbatuko denak behar du garbiki kontserbatu bat-haioko inozentzia, edo, bekhatu mortalaz galdu ondoan, penitentziaz kobratu behar du. Nork ez du galtzen, eta nork hura ardiesten du? Beraz gutiak salbatzen, eta hainitzak damnatzen badi-re, hori heldu da gizonen falta phurutik. Ene faltaz galdu behar naiz beraz, ene biziak behar du ene korte eternala finkatu, edo Zeruan, edo lfer-nuan; eta horrek lazten eta ikharatzen nau. Badakit, o, Jesus guziz maitagarria, ene-ganik galdetzen duzun guzia dela ene bihotza; maita-tuko zaitut beraz orai-danik finki eta gauza guzieren gainetik.

III

Zer bide hartu behar dut beraz damnatzen direnen nonbre handiko ez izateko, eta salbatzen direnen nonbre xumeko izateko? Ez bide da hau bezain deus ere inportantik. Nonbre handia galtzen da, ez beraz segi hekien arruta. Nonbre xumea salbatzen da, har zazu beraz hek dararmaten bidea. Salbatu nahi zare? Pratika zazu Ebanjelioak irakhasten darotzuna; sailduak salbatu dire, eta zu ere, hek bezala biziz, salbatuko zare: maita zazu bakhartasuna, othoitza, mortifikazionea, hurbil zaite maiz eta arthoski sakramenduetarat, egitzu eternitatearen gainean erreflexione husuak, eta bekhatu mortalaz galdu baduzu Jainkoaren amodioa, berehala penitentziarat laster egizu; horra salbatzeko egin behar duzuna. Ordean nola bizi izan naiz orai artean? Segitu othe dut bide hertsia? Helas! ikhusten dut dolorerekin bide largoan ibili naizela, eta beraz damnatzen ninduen arrutan. Deusetan ez dut bortxatu ene burua, bethi kontentatu ditut ene pasioneak, bethi satisfatu ene gutiziak; iduritzen zitzaitan gehienek bezala egitea ungi zela, tro-

pela handiari jarraitzeaz ez nuela deus ere arriskatzen, enganatua nintzen, galtzen hari nintzen. Zuk, o ene Jainko, salbatu nahi nauzuna! ene errebelamendutik athera nauzu, eta zureganat xuxen nezaken bide dohatsu eta segurean eman nauzu; nonbre xumearekin zu baxharrik zerbitzatuko zaitut beraz, dohatsuekin glorifika zaitzadan eternitatean.

MEDITAZIONEA IfernUAZ

I

Ifernua da leze bat ilhunberik baizen ez dena, iguzkiaren arraiarik ez da sekulan sartzen pre-sondegi hartarat, ez da han ez bakerik, ez des-kantsurik, gerlak eta nahasturak han erregina-tzen dute, ez da aditzen marrubiarik, hortzen kharraskatzerik eta auhenik baizen; desolazio-nea, desesperazionea eta errabiamendua, horra zer kausitzen den Ifernuan. Gogorat ekhar zatzu pena eta gaztigu ahal daitezken terribleenak, gosetea, gerlatea, izurria, oinhazeak, kaxoterik lizunenak, lezerik phozoatuenak; hauk guziak Ifernuaren aldean itzal flako batzuek dire, erdiz-kara ere hura ezin ezagut-araz dezaketenak: on guzien bilhuztasuna, gaitz guzien bilduma, horra zer den Ifernua. Han aitak haurren kontra, hau-rrak aiten kontra, lagunak lagunen kontra, espo-sa esposaren kontra daudez bethi borhoz eta madarizionez: ez dute ikhusten monstro belz eta izigarririk baizen; Deabru guziak dire lagun, eta

tormentatzaile. O Ifernua ala hire terriblea eta hire izigarria!

II

Jainkoa bera damnatu hekien punitzen hari da, bethi jazartzen diote urrikalmendurik batere gabe, gorraena egiten diote hekien nigar guziei, hekien auhenek eta suspira minek ez dute ukitzen, ez beratzen haren bihotza; bethi edaten dute ligarainokoan Jaunaren koleraren jarroa, eta ezin agortuko dute sekulan: gaitza gaitzaren gainean, tormentak tormenten gainean egortzen diotzate; ez da nihoiz ere flakatuko bethi zehatzen dituen beso mendekaria. Lehenago bekhatoreen punitzeko uholde bat egorri zuen, zortzi justuz landan bertze guziak itho zituena; hiri dohakabe batzuen funditzeko Zerutik jauts-arazi zuen suzko eta sufrezko uri bat. Batzuetan lurra arrailatu du gaixtaginen bizirik iresteko, bertzeetan itsasoan hondatu ditu bere etsaiak hekien desegiteko; gaztigu diferent hauk guziak zer ziren, Jauna, Ifernuan damnatuei jasan-arazten diotzatzutenen aldean? Zenbait zure justiziaren xorta bakhar, zure koleraren itsaso ezin agortuz-

kotik eror-arazi zintuenak; ordean zu Ifernuan damnatuen tormentatzen hari zare eta oso-osoa, gerizatzen diozute damnatuei zure bisaia amultsua, eta bethi agertzen zaizkote koleraz armatua. Egia hauk sinhesten othe ditut, ala ez? edo sinhets detzadan edo ez, ez dire gutiago egiak: eta sinhesten baditut, nola nagoke trankilki bekhatu mortalean? Nola egon naiteke damnatzeko arriskurik klarenean? Zer izanen da nitaz, baldin ez banau Ifernuaren kontsiderazioneak ukitzen, ikharatzen eta berehala konbertitzen?

III

Jainkoak damnatuen erretzeko bere kolera phiztu du, eta bethi phiztua dauka Ifernuko sua; su bat da hain borthitza, non gure sua haren aldean itzal flako bat bai da: su bat da, bethi erretzen, eta nihoiz ere kontsumitzen ez dituen: su bat da gorphutzak bezala arimak ere erretzen dituen: su bat da bakhotxari bere falten arabera sofri-arazten dioena; eta zertaz ere bekhatu egin bai dute hartan gehienik erretzen ditu. Finean damnatuek ez dute ikhusten surik baizen, ez dute iresten surik baizen, berak dire susta-

tuak eta hurren su haren itxindi batzuek. Krisela gorriak, kaldera irakituak, burdinazko orratzen punta zorrotzak ez dire deusik Ifernuko suarekin konparatuak direnean. Helas! gutarik nork, hauts eta herrauts bilhakatu gabe, jasan lezake oren erdi batez gisu labeko sua, eta beraz gutarik zeinek hautatuko du Ifernuko suan egotea? Nork nahiko du egon khar eternal hetan? Ez nik, dio gutarik baxhotxak; horra zer diodan, horra zer nioen, eta bizkitartean hunela mintzo nintzen denboran bekhatu egiten hari nintzen. Othe zen ene erhokeriaren parerik? Bainan akhabo, o ene Jauna, akhabo, hausten dut bekhatu guziekin, uzten ditut hain garrazki punituak diren plazerak, ene plazer baxharra izanen da ene erretzeko phiztu ditudan suen nigarrik abundantenez iraungitzea. Eskerrak bihurtzen darozkitzut, o Jainko guziz ona, zeren ez nauzun kondenatu Ifernuko lezerat, ene bizitze guzian laudatuko, benedikatuko eta maitatuko zaitut.

BIGARREN MEDITAZIONEA IFERNUAZ

I

Damnatuak berak egiten du Ifernuan bere suplizioa, bera da bere buruaren burreu kruela, instant guziez bere burua tormentatzen du egiten dituen erreflexione bihotz-arrailagarriez: damnatua naiz, dio, eta ene faltaz: galdu dut ene aita maitagarria, galdu dut ene zoriona, eta hemen tormentatua, hemen sutan erretzen nago. Jainkoaz eta haren gloriaraz gozatzeko nintzen kreatua, erosia, giristino egina; eta hemen naiz ilhunbean dohakabeen artean; eta noren faltaz? helas! ene faltaz, ene falta phuruz; hori badakit, hortaz seguratua naiz; salba ninteken; zenbat laguntza handi ez nuen Zerurat joateko! eta zertako ez naiz hetaz baliatu? Zenbat exenplu on ez nuen begien aitzinean! zergatik ez ditut hek segitu? Zenbat instrukzione ez nuen aditzen! zergatik ez naiz hetaz baliatu? Zenbat aldiz ez darotet erran bekhatuak hunat nindak-harkela! eta trufatu naiz guziez. Harenbertze

graziez Jainkoak gonbidatzen ninduen bere ganat, banituen sakramenduetan sendatzeko erremedioak, Jesusen odolaz garbi ninteken ene notha beltzetarik: zer nuen eskas salbatzeko? Deus ere; halarik ere, eta halarik ere damnatu naiz ene faltaz. Ene adineko, ene herriko, ene ofizioko hainitz Zeruan dire, eta ni ere Zeruan izan nindeken. Zergatik ez dut egin hek egin dutena? Aithortzen dut ene faltaz, eta ene falta phuruz dohakabe, eta damnatu naizela. Othe da arima batentzat erreflexione hau bezain desesperagarririk? Bai, huna bertze bat eta bethi egiten duena.

II

Damnatuak oraino bere buruari erraten dio erretzen duten kharren erdian, ezdeusen gatik galdu dela: damnatua naiz eta ezdeusen gatik: ezen zergatik ofentsatu dut ene Jainko ona? Zer bilhatu dut edo kausitu bekhatuan? Ezdeus bat, plazer iragankor, eta kharastasunez bethe bat; haizearen pare den ohorezko pontu bano bat; ontasun aphur bat, eta funs-gabeko bat, berehala ametsa bezala joan den sentsuen satisfakzio-

ne labor bat. Horra zergatik bekhatu egin dudan. Eta hauk guziak zer ziren? Orai dakit ongi; ezdeus phuru batzuek. Zer gelditzen zait orai hetarik? Doi-doia dastatu ditudalako orhoitzapen hiragarri bezain desesperagarria: horra guzia. Eta damnatua naiz, eta erretzen nago. Mundu guzia enetu banu, lurreko ontasun guzien jabetasuna ardietsi banu ere, plazer suerte guzietz gozatu banintz ere, guzietz ohoratua, estimatua, adoratua izan banintz ere, zer ziren hauk guziak? Itzalak, kheak, haize huts batzuek: eta guzien ondoan orai ez dut ur ihintz bat ere, erretzen, tormentatzen naben su huntan mihi puntaren freskatzeko. Eta damnatua naiz. Ala ene dohakabea! ezdeusen gatik naiz soberanoki, eta erran ahal dezakedan baino dohakabeago. Horra zer dioten Ifernuan damanatuek: eta horra zer nik ere erranen nuen, baldin ene Jainkoak punitu banindu lehenbiziko bekhatuaren ondoan. Aithortuko nuen ezdeus gatik damantua nintzela, eta orai nola naiz? Herioa heldu balitzait, zer estatutan kausi othe nintzake? Ah Jauna, zuk ikhusten duzu ene bihotza; baldin zenbait bekhatu gordez hila bada ene arima, ezagut-araz dazu

ene hobena, eta indatzu haren auhendatzeko graziak.

III

Finean damnatuak egiten du erreflexione desesperagarri hau; damnatua naiz, eta damnatua izanen naiz eternitatean. Oraino noizbait ilkhi behar banintz presondegi dorphe huntarik, oraino noizbait akhabatzen balire ene penak, noizbait iraungitzen balire erretzen nauten suak, zerbait laiteke, kontsola ninteke, ez netzake hurren senti tormentak, ez litezke hurren kondartzeko hemengo oinhazeak; bainan badakit, seguratua naiz, ikhusten dut sekulakoak direla, eternalak direla hemen alde guzietarik pairatzen ditudanak. Mila urthe, eta mila miliun urtheren ondoan, ez dire laburtuko, ez eztituko hemengo suak. Itsaso guzian ur xorta bezanbat, arboletan hosto den bezanbat miliun menderen ondoan orobat izanen naiz, ene tormentek ez dute izanen sekulan finik. O eternitatea ala hire luzea! ala hire ezin kontzebitua! Eta, o eternitate dohakabea ala hire desesperagarria! Eternitatea, sekula, zertako ez zarete izan nitaz bethi medi-

tatuak? Zertako ahantzi eta bistatik galdu zaituzte? Horra zer dioten Ifernuan damnatuek, eta probotxu gabe. Ni balia nadin hek egiten dituzten erreflexioneez; ez beitez izan enetzat agorrak, hekien erhokeriak zuhur beneza: zorte bera dago enetzat, hek bezala bekhatuan bizitzen eta hiltzen banaiz: nolako artharekin ez diot beraz ihes egin behar hain garrazki eta luzeki punitua den bekhatuari?

MEDITAZIONEA KOFESIOAZ

I

Jainkoaren misericordiak, gure bekhatuen barkatzeko, eman daroku erremedio bat osoki indartsua eta erretxa. Bathaioan egin darokun grazia handia galtzerat heldu garenean gure faltaz ez gaitu uzten laguntza gabe; eman daroku bide bat harekin errekonziliatzeko, mainhu sakratu bat utzi daroku, eta han Jesu-Khristoren odol preziatuaz gure arimako notha guzietarik xahutzen gaitu. Zenbat ere handiak eta zaharkituak bai dire gure bekhatuak, penitentziako sakramenduan ardiets dezakegu guzi-guzien barkhamendua. Othe da erremedio hau baino indartsuagorik? Eta ez othe zaiku erretx huntaz baliatzea? Ez da behar itsasorik pasatu hunen kausitzeko, ez da dirurik eman behar hunen ardiesteko, ez da arartekorik behar huntaz baliatzeko; denbora guzietan, sasoin guzietan idekiak daudez graziaren ithurburu baliosak; Jesu-Khristoren Ministroek berek deitzen eta gonbidatzen gaituzte gure sendatzeko; asko dugu gure kon-

tzientzia examinaturik gure bekhatu guziak dolore eta urrikirekin kofesatzea; bide hortaz izanen dugu barkhamendua. Othe da deus ere erretxagorik? Ifernua merezi duenari sobra galdetzen othe zaio bada, ordenatzen zaionean bere falten higuintzea eta kofesatzea? Merkeago izan othe zezaken galdu duen grazia? Zerbait gehiago behar balitz ere, ez othe luke gogotik bere bizia ere sakrifikatu behar su eternalari ihes egiteko, eta Zeruko gloriaren ardiesteko? Bai, ene Jainkoa eta ene Salbatzailea, gogotik eta bihotz onez isur nezake ene odol guzia zorigaitz eternalari ihes egiteko; baliatuko naiz beraz zuk ematen darotazun erremedio indartsu eta erretxaz; mainhu sakratu huntan garbituko naiz ene bekhatu guzietarik zure odol preziatuaz.

II

Ez da posible behar den bezala; erran nahi da, Jainkoarekin baketzeko on den bezala, bekhatuez orhoitzea Jaunaren grazia gabe; beraz othoitzaz behar gare lehenik entseiatu Zeruko argien ardiesterat, eta horra zer hagitz gutik egi-ten duten. Gero examinatu behar dugu gure

burua, ikhusi behar dugu, ea zertan bekhatu egin dugun gogoz, hitzez, obraz, edo neglijentziaz; hortarakotz kontsultatu behar dugu Jainkoaren legea, begien aitzinean eman behar ditugu Elizaren manuak, gogorat ekharri behar ditugu izatu ditugun okasioneak, tentazioneak, lanak, egitekoak; ilhabete, aste, egun guziak bat-banazka miratu behar ditugu, jakiteko ea non, noiz, nola, eta zertan egin dugun bekhatu. Guziz ez dugu arinki iragan behar gure estatuko obligazioneen gainean, ezen hetan egiten diren faltak ondore tristeenez segituak ohi dire. Kostumaz edo usantzaz egin ditugunek atenzione berezi bat galdetzen dute. Examina hau artha handirekin egin behar da. Egiteko inportantagorik othe dugu munduan hau baino? Eta nik nola egin othe dut ene examina? Zer artha hartu dut ene buruaren interrogatzeko? Zer pena ene bekhatuez orhoitzeko? Helas! hagitz arinki begi kolpe bat aurdiki dut ene bizitzearen gainerat, eta ondoan berehala aitzinka joan naiz kofesorearen oinetarat. Balin-ba, Jauna, orai egin gogodudan kofesiorat hobekiago preparatuko naiz.

Osoki eta klarki behar dire deklaratu bekhatu mortal guziak, ezen bakhar bat ere ahalkez, bel-durrez, edo maleziaz gordetzen balitz, bekhatu mortal berri bat eginik lioake haina bere etxerat, eta ez lezake ardiets bakhar baten barkhamendua. Guziak beraz bat-banazka kofesatu behar dire bere zirkunstantzia guziekin; oraino erran behar ditugu, berenez ez bekhatu izanagatik, guk bekhatu dauzkagun guziak; segurki egin ditugula dakizkigun faltak, segurak bezala, dudazkoak dudazkoak bezala; posible bada, nihor izendatu, eta ezagut-arazi gabe. Suerte bakhotxaren nonbreaz ez bagare justuki orhoitzen, bederen aphur bat gora-behera uste dugun bezala kontua eman behar dugu; ezen nola kofesorak bertzela jakinen du gure estatua? Zer ordenatuko daroku? Zer kontseilu edo erremedio emanen daroku? Aithortzen dut, Jauna, ez naizela bethi aski artharekin preparatua hurbildu penitentziako sakramendurat. Zenbat huts ez dut egin beraz, huts guzien erreparatzeko lek-huan? Damu dut guziez, hartzen dut deliberazio-ne fermu bat, hemendik harat zure miseriak

eman darotan mainhu saindurat joateko kon-
tzientzia ongi examinaturik, han deklaratzeko
ezagut-araziko darozkidatzun bekhatu guziak:
zure grazia sainduaren arraioez argi zazu ene
adimendua, zure amodio sakratuaren kharrez
susta zazu ene bihotza, zure kontra egin ditudan
falta guziak ezagut, deklaratu eta higuin detzadan;
aithortzen dut ez dudala merezi zure miserikor-
dia, baina, o Jesus guziz ona! zuk enetzat isuri
duzun odol preziatuak ematen darot fidantzia
oso bat; eta esperantza dut, sakramendu huntan
emanen darotazula ene bekhatu guzien barkha-
mendua, eta zu ez gehiago ofentsatzeko grazia.

MEDITAZIONEA KONTRIZIONEAZ

I

Bekhatuen dolorea, eta gehiago bekhaturik ez egiteko deliberazione fermua baitezpada nezesario da, penitentziako sakramenduan ardiesteko grazia eta barkhamendua; urriki min eta deliberazione hau gabe ezin ilkhi gaitzke Jainkoaren etsaitasunetik, ezin athera gaitzke bekhatuen esklabotasunetik, examina guzietarik serioseña, eta arthosena, deklarazione guzieta-rik konpliena, eta osoena ez dire asko errezibitzeko absoluzionea, oraino higuindu behar dire bekhatu mortal guziak, eta damu egiazko bat izan behar da guziez. Kontrizione hau da penitentziako sakramenduan gure ganik galdetzen den dispozitionerik beharrena: eta noiz penetan eman othe gare hunen izateko? Zer egiten dugu harekin kofesora ganat joateko? Iduritzen zaiku examina ongi egiten badugu, gure bekhatu guziak klarki kofesetzen baditugu, eta ematen zaizkigun penitentziak konplitzen baditugu,

behar den guzia egin dugula; kontent, alegera goaz gure etxerat, Jainkoarekin adiskidetu bagine bezala; eta, helas! ez dugu ikhusten dolore min batek ez badu gure bihotza phorroskatzen, gure bekhatuekin garela, apheza ganik errezibitu dukegularik arren absoluzioea. Finka zazu egia hau zure izpirituan eta bihotzean, engana ez zaitezten hain materia inportantean.

II

Zein dire kontrizione on batek izan behar dituen kondizioeak? Gure baitharik ezin dugu, eta Jainkoaren graziak inspira dezakegu hain nezesarioa den kontrizioea: Jainkoaren dohain bat da ni hori zor ez zaiona, beraz galdetu behar diogu othoitzaz, nigarrez eta obra onez. Bihotza eta bihotz guzia dolore hunek behar du zaurthu, arrailatu, phorroskatu. Ganbiatu eta berritu behar du ene bihotza, eta ez xoilki ene hizkuntza edo kanpoa. Dolore hunek obligatu behar nau bekhatu mortalik maiteenen higuintzerat munduko gaitz guziak, herioa, Ifernua bera baino gehiago ere, gaitz guzietarik handiena denaz geroz bekhatua. Xede on eta giristinozko batez

behar dugu higuindu bekhatua; edo zeren bere baithan den higuingarria, edo zeren merezi-arazten duen Ifernua, edo zeren gal-arazten darokun Zerua, edo zeren ofentsatu dugun Jainko guzia maitagarria: baldin bekhatua higuintzen baduzu zeren gal-arazi darotzun edo osasuna, edo munduaren estimua, edo ontasuna, edo ohorea; xede hauk baizen ez baditu izan zure doloreak, inutila, agorra, funtsikgabea izatu da. Interrogazazu zure bihotza, galdegiozu ea zer egin duen dolore hunen Jainkoari eskatzeko, ea bekhatu mortal guziak, maiteenak ere higuindu dituen, ea zergatik eta nola higuindu dituen. Helas, Jauna, gutiak dire egia saindu hauk meditatzen dituztenak urriki hunen kontzebitzeko, gutiak dire bekhatuaren belztasunaren, eta ofentsatzen duten Jainkoaren maitagarritasunen gainean erreflexione egiten dutenak. Ni guti haukien non-breko izan othe naiz? Ni gehienak bezala hautaz guti orhoiturik kofesatu banaiz, zenbat arrazoin ez dut ikharatzeko, eta ene kofesioak inutilak direla, uste izateko!

Nondik ezagut dezaket ea othe nituen disposizione hauk kofesatu naizen guzian? Huna markak. Adi ezazu atentzionerekin, kontsidera zatzu astirekin. Baldin kofesatu ondoan apartatu bazare bekhatuzko okasionetarik, Jainkoaren etsaikotan eror-arazi zaituzten konpania, lekhu, plazer, enplegu eta okupazione guziei ukho egiten badiozute, zure lagunekin errekontziliatu bazare, kalte eginak erreparatu badituztu, bizitzea gantziatu baduzu, eta zure eginbideak arthoski konplitzen badituztu, zure kofesioak onak direla uste izan behar duzu. Kontrarat baldin kofesatu ondoan okasione beretan, usantza beretan, etsaiko beretan, eta zure obligazioneen kontrako bekhatu mortaletan berriz erori bazare laster eta errexki; belas! ikhara zaite; juja dezazuke zure kofesioak inutilak, eta kaltekorrak izatu direla, behar zen urrikia eta deliberazione fermua ez zinduela; beraz kofesio hek guziak erreberitu behar ditutzula. Non edo nola naiz zurekin, o ene Jainko-Jauna? Nolakoak izatu dire ene kofesioak? Preparazione eta disposizione haukiekin eginak izatu othe dire? Beldur naiz ez ditudala bethi

hauk izatu, eta horra zerk obligatu behar naben hemendik harat arthoskiago preparatzerat. Egidazu grazia haukiekin bethi kofesatzeko, eta sekulan ez hauk gabe.

MEDITAZIONEA KONBERTSIONEAREN LUZAMENDUAZ

I

Ez dezazula luza egunetik egunerat zure konbertsionea; zuk ofentsatu duzun Jainkoak berak gonbidatzen zaitu penitentziarat; ez othe laiteke beraz hari damu berri bat egitea, zure bekhatuetan oraino bihar artean ere egotea? Nola giristino bat egon daiteke oren batez ere bere Jainkoaren etsaikoan? Lurreko handi bat, printze edo errege bat ofentsatu bagindu, othe ginduke sosegurik hura phazegatu artean? eta ez othe laiteke haren mezprezatzea, baketzeaz kasurik ez egitea? Zer laiteke, berak deitzen bagintu bere ganat? Berak gonbidatzen bagintu bere palasiorat? berak agintzen balaroku bere adiskidetasuna, eta harekin batean bere erresumaren erdia? eta harenbertze hark egin ondoan ez bagindu egiten urhatsik harekin baketzeko? Gure ezaxolamenduak ez othe luke merezi punizionerik garratzena? Horra bizkitartean nolako

garen gure Jainkoarentzat. Deitzen gaitu gu bekhatoreak bere ganat, agintzen daroku barkhamendua, bere amodioa, bere erresuma guzia; eta nola gaudezke itzuli gabe haren ganat? Luzamendu hunek ez othe du markatzen antsiarik ez dudala, ez Jainkoaz, ez Zeruaz? Atsegin dudala ene bekhatuaz? Kontent naizela Deabruaren esklabotasunaz? Nahiago dudala egon Satanekin, ezen ez Jainkoarekin? Othe da deus ere Jaun soberanoa gehiago mezpreza dezakenik dispoziione hau baino? Damu dut, Jauna, ene luzamendu guziez, orai beretik ukho egiten diot munduari, zerbitzatuko zaitut ene indar guziez, maitatuko zaitut ene bihotz guziaz; hori nahi dut, hori da ene gutizia; konpli zazu, othoi, ene ahal eskasa.

II

Zure intres egiazkoak obligatu behar zaitu berehala konbertitzerat, ezen zer zare Jainkoarekin errekonziliatu artean? Jaunaren etsaia, bekhatuaren esklaboa, Deabruaren gathiboa, Zerutik desterratua, eta lfernuko surat erortzeko menean; horra zure estatua. Othe da estatu triste hortarik lehen-bai-lehen ilkhitzea baino deus

ere zuretzat baliosagorik? Bertze alde, zuk estatu dohakabe hortan egin ahal dezazuen guziak ez du saririk merezi Zeruan, Jaunak ez darotzu zor errekonpentsarik glorian, eternitateko khoroa ezin irabaz dezazuke hek guziez. Helas horra beraz gloriakotz galduak hanbat obra, bekhatuan ez bazine hain balios litezkenak! Ez othe zare beraz zure buruaren etsai, hek hola galtzerat uzten ditutzunaz geroz? Zertako ez zare lehiatuko ahalik lasterrena konbertitzerat, Zerukotz on diren obren zure ahal guziaz egiteko? Zure burua maite baduzu, berehala bekhatutik athera behar zare, berehala konbertitu behar zare.

III

Erhokeria handia laiteke munduaren errankizunen gatik konbertitu gabe egotea. Jainkoak manatzen darotzu, zure intresak galdetzen dute, konberti zaitezela; zertako entzunen ditutzu jendeen erasiak? Eta hauk zer erranen dute, erran ahal guziak erranik ere? Utziko ditutzun lagun libertinek usteko dute, zenbait damu erreberrituz, largatu ditutzula; erranen dute estranio eta

estrabagant bat zarela; zutaz eta zure ganbiantzaz trufatuko dire; adimenduaz gabetu zarela erranen dute: ez kasurik egin hekien erasia guziez, zohaz zure bide onean, ez zaituzte hek gibelatu behar hartu duzun deliberazionearen segitzetik. Ez da espantitzeko kondenatzen bazaituzte zure bizitze berriaz, ezen zuk zure ganbiantza dohatsuaz kondenatzen duzu hekien libertinkeria. Tentazione hau garait zazu, eta hunen kontra eramanen duzun bitoriak bertze hainitz iraba-araziko darotzu; zenbat flako bai zare ere, zerbitzatu gogo duzun Jainkoak borthiztuko zaitu; ongi deliberatzean datza guzia, zinzinez nahi bazare saildutu eta salbatu, saildutuko eta salbatuko zare. Ah! Jauna, ikhusten dut salbatu nahi nauzula; denbora da ihardets diozodan zure borondateari. Gonbidatzen nauzu ni bekhatorea zure ganat: heldu naiz orai beretik. Barkha datzu othoi ene luzamendu iraganak; zure gloriak, ene intres egiazkoek obligatzen naute berehala konbertitzerat, eta deusek ez nau gibelatuko, orai artean bezala, zuri ene bihotza ematetik. Zu zare ontasun eta zorion guzieren ithurburua; urrunduko dut beraz ene bihotzetik

munduaren alderako jaidura sobraniozkoa, eta
betheko ditut zure manu salbagarriak.

BIGARREN MEDITAZIONEA KONBERTSIONEAREN LUZAMENDUAZ

I

Erhokeria handi bat da ethorkizunaren gainean kondatzea. Zuk zure buruari agintzen dizun denbora gerokoa nork agindu darotzu? Ez dezazula erran heldu den urthean, edo hauzi hau xuritu ondoan, edo ezkondu ondoan, edo ene familia altxatu eta antolatu ondoan konbertituko naiz; ezen ez zare denboraren nausi, ez da zure eskuan egun bakhar baten izatea ere: Jainkoak eman diozoke plazer duenari plazer duen bezanbat denbora, nihori ez dio agindu oren bakhar bat ere; zenbat ez da, uste zuen denbora baino lehenago, hil? Eta zuri hei bezala gerthatzen bazaitzu, horra non, konbertitu gabe, herioak atzemanen zaituen; eta beraz bekhatuan, eta beraz Jainkoaren etsaikoan, eta beraz damnatuko zare. Zertako nahi duzu galtzerat utzi oraino denbora baliosa eta segurki duzuna, dudazko, menturazko denbora batez baliatzeko? Arriska-

tzen duzu mentura baten gainean, eta zer? Zerua, eternitatea, zure arima. Munduko egitekoetz dohanean, badakizu segur denaren hartzen, menturazkoak utzirik; eta eternitateaz dohanean arriskua hartuko duzu bada? Erhokeria bat da beraz, ethorkizunaren gainean fidaturik, gerorat konbertsionearen egortzea.

II

Erhokeria handiago bat da oraino, konbertitzeko nezesario duzun graziaren gainean kondaturik, orai duzun Zeruko laguntza galtzeratuztea. Zuk nahi izatea ez da asko, denbora izatea ez da asko egiazki konbertitzeko; oraino Jainkoak bere dohanez argitu eta borthiztu behar zaitu, Zeruko on den gisa bekhatuen ezagutzeko, eta higuintzeko. Bekhatu egiteko zeroni asko eta franko zare; ordean ongi penitentzia egiteko zu eta Jainkoa behar zarete. Eta noiz agindu dio Jainkoak, bere konbertsionea luzatzen duenari, nahi dueneko grazia? Nork erran darotzu, plazer duzunean, izanen duzula konbertitzeko laguntza hura? Zein profeta, edo ebanjelista, zein liburu edo lerrotan irakurri duzu, Zeruko dohain hura

zure eskuko, zure manuko izanen duzula? Kontrarat zenbat aldiz ez zaitu Jainkoak dixidatu grazia berezi, dohain handi hura errefusatuko darotzula? zuk orai haren bozari gorraena egiten badiozu, hark ere duela adituko zure oihu mina? bilhatuko duzula, eta ez duzula kausituko, eta gisa hortan zure bekhatuan hilen zarela? Horra haren mehatxu terribleak; eta gero nola konda dezazuke orai arbuiatzen duzun graziaren gainean? Ez othe da justu ere, hanbat aldiz meziprezatu duzun dohaina ez dakizun eman, zuk plazer duzunean? Jaunak orai bere boza adi-arazten darotzu, ez othoi tapa zure arimako beharriak; itzul zaite, konberti zaite Jauna ganat, beldurrez gero ez dezazun izan konbertitzeko ahala.

III

Uste duzu menturaz, zure konbertsionea luzatuz, gero errexkiago utziko duzula bekhatua? helas! tronpatzen zare. Ez duzu ikhusten, bekhatuan egonez, bekhatua onhesten dela? hura onhetsiz maitatzen dela, maitatuz nausitzen dela, eta gisa huntan baratxe-baratxe penarik gabe, antsikabeki egiten dela? Hortik heldu

da, egarri denak ura bezala, edaten bai du bekhata; lehenbizian penarekin egiten zen falta ondoan aise eta errexki egiten da; geroago eta areago, bekhaturtik bekhaturat goaz, eta luzamendu hunek Ifernurat garamatza. Lurrean egonago eta borthitzago dohan arbola hurren imposible da erroetarik atheratzea: eritasun zaharkitu batetarik sendatzea ala guziz gaitz bai da! Zuhar zahar makhurra nork xuxenduko du? balinba erretxago da gazte deno haren plegatzea. Tira zazu zeronek kontsekuentzia; beraz gaitzago izanen da, bekhaturan egonez, konbertitza, beraz orai beretik konbertitu behar naiz.

Bai, Jauna, orai beretik konbertitzen naiz, zeren ez bai dakit gerorik izanen dudan. Orai beretik zure ganat heldu naiz zeren ez bai dakit ea gero ahalik izanen dudan. Orai beretik bekhatuak uzten ditut, zeren ez bai dakit ea gero utziko ditudan. Denbora da ene salbamenduaz orhoitzeko, sobra orai artean ahantzi dut; ez dut nahi galdu instantik, orai beretik oso-oso emanen natzaitzu, ordean hartarakotz zure laguntzak behar ditut, hel zakizkit, o ene Jainko ona, inda-

zu grazia, zuk inspiratu darotazun deliberazio-
nearen konplitzeko.

MEDITAZIONEA OTHOITZAZ

I

Othoitzak Jainkoarentza glorios bezain ohargarri da guretzat. Othoitzean laudatzen dire Jainkoaren puxantza soberanoa, ontasun mugarrigabea, zuhurtzia handia, jakintasun infinitua, probidentzia osoa eta hain maitagarria. Ezen zertako othoizten dugu gure beharretan, lekhu guzietan, okasione guzietan? Zeren bai dakigu bothere guzia baduela gure laguntzeko, ezagutza guzia gure beharren ikhusteko, ontasun eta amodio guzia, gure sokorritzeko: ordu beretik aithortzen dugu, haren ganik guziak uste ditugula, haren baithan dela gure fidantzia osoa, hark libra eta salba gaitzakela; horra othoitzza egiten dugunean, nola ohoratzen dugun gure Jainko-Jauna. Zertako ez dugu beraz, maitatuko othoitzza? Eta guri zer on ez daroku ekhartzen? Guziz gora deitzen denarekin mintzatzea, Aingeruek ikharaz betherikako errespetu batekin adoratzten duten majestatearekin familierki konbertsatzea, Zerulurren Jaun eta Jabe bakharrarekin, adiskide bat

bere maitearekin bezala, entretenitzea, ez othe da guretzat ohorerik handiena? Eta horra zer abantail, zer zorion dukegun, plazer dugun guzian, denbora eta lekhu guzietan. Nola nagoke beraz othoitzza maitatu gabe? Eta zer estimu orai artean hartaz egin othe dut?

II

Hain nezesario duzu othoitzza, non ez bai duzu deus ere ardietsiko haren bidez baizen. Guzian eskasean zarela badakizu; etsaiez inguraturua zarela frogatzen duzu; tentazioneez atakaturua zarela sentitzen duzu; itsu, flako, eri, eta pobre zare; beraz galdetu behar duzu argia, indarra, osasuna, ontasuna; ezen bertzela ez duzu deus ere izanen; eta zer bilhakatuko zare hanbat arrisku eta etsaien artean, begiak, besokak, eta bihotza hedatzen ez badituzu lagun, borthitz eta sustenga zaitzaken Jainkoaren ganat? Nondik heldu dire zure behaztopatze guziak? Nondik heldu da hain maiz epheltasunerat eta bekhaturat erortzen bai zare? Nondik bada? Othoitzaren ez egitetik. Nezesario duzun indar guzia kausi zinezake othoitzean; hau duzu

laguntza guzien ardiesteko bide segura, eta halere uzten duzu! Sainduak estimatu dute othoitza, zeren ezagutzen bai zuten haren beharra eta balioa, handik hain Saindu handi egin dire. Egizu hek bezala. Dudan zare ez jakinez zer egin? Galde zozu Jaunari nezesario duzun argia. Tentazioneez atakatua, arriskuz bethea eta inguratua zare? Oihu egiozu zure aita onari, eta segurtatua izan zaite, ez zaitzula faltatuko laguntza eta behar duzun fagorea.

III

Othoitza hainitz orai artean egin duzu, eta probotxu guti tiratu duzu. Nondik heldu da hori? Zure faltatik. Ez duzu zure othoitza egin behar den bezala. Humiltasunekin, fidantziarekin eta pertseberantziarekin egina den othoitza da Jainkoaz entzuna. Helas! zer gare gu, eta zer da Jainkoa? Kontsidera dezagun gure sortzea, guzia da miseriaz bethea; gure bizia bekhatuz kargatua; gure gorphutzen ethorkia eta fina hautsa eta herrautsa; gure arimak menturaz zauriz estaliak; eta Jainkoa handitasun soberanoa, zuzentasuna bera, saindutasun infinitua, goratasun mugarri-

gabea. Ez othe da bada justu humiliatuak, eta ezdeustatuak ager gitezen gure Jainko-Jaunarekin mintzo garenean: ala gutitan disposizione hunekin agertu bai naiz Jainkoaren aitzinean! Fidantziaz armatua izan behar da ene othoitzza, eta huna zerk inspiratu behar darotan konfidentzia hau. Jainkoaren miserikordiak, zeren nahi bai darot egin, nik merezitu gabe, grazia; Jainkoaren ontasunak, zeren bai dakit maite nabela, eta salbatu nahi nabela; Jainkoaren leialtasunak, zeren seguratu bai nau entzunen nabela, eta bere hitza atxikiko duela: guziz Jesusen odol preziatuak eman behar darot esperantza guzietarik handiena, eta haren izenean galdetu behar dut grazia eta miserikordia. Konfidentzia hunen faltan, zenbat othoitz ez dire alferretan eginak! Finean pertseberantziarekin egin behar da othoitzza: galde, ez behin, bietan, edo hamarretan, bainan ardiets dezazuken artean: pobre beharretan denak bezala, eska zazu duzuden artean: zure galde husuez obligatuko duzu Jainkoa grazia egiterat, eta zuri gusta behar zaitzu, maitekiago goarda dezazuntzat. Indatzu, Jauna, othoitzean baitezpada nezesario diren disposizione

saindu hauk, zutaz entzuna izan nadintzat ene galde guzietan.

MEDITAZIONEA TRABAILUAZ

I

Trabailua edo lana da gizonaren zortea. Bethi bere inozentzian egon balitz ere, trabailatu beharko zen. Lurreko parabisu edo baratze dohatsuan ezarriak izan baziren ere gure lehenbiziko burasoak, obligatuak zire han lanean haritzerat, eta orduko lanak nekherik gabekoak izanen zirelarik arren, bethi trabailu batzuek izanen ziren; ordean kontsideratzen badugu gizona bekhatuaren ondoan, ikhusiko dugu klarki, trabailurat kondenatua izatu dela. Horra ofentsatu zuen Jainkoak Adami eta haren ondoko guziei eman dioten penitentzia. Ogiak haziko zaitu; ordean jakin zazu, zure nekheaz, eta izerdiaz irabazi beharko duzula zure janharria. Ez darotzut lurrak ekharriko laharrik, eta arantzerik baizen; zure trabailu kontinualaz beharko duzu erakharri zure bazkaren ematerat: trabailua da beraz Jainko berak guziei ordenatu darokun lan handia. Jesu-Kristo bera nahi izan da trabailatu, xarpanterkoan haritu da Saint Josephen botikan, eta ofizio

nekhagarri hartan zenbat aldiz ez da izertu sainduen deskantsua egiten duen Jainkoa? Nola beraz guk arbuiatuko, edo biguinduko dugu Jesussek maitatu eta besarkatu duen lana? Othe da lan kontinuala baino hobeagorik tentazioneen bentzutzeko? Bethi okupatua dena menturaz Deabru baxhar batez da tentatua, diote sainduek, ordean alferrik dagoena zazpi Deabruz eta gehiagoz ere atakatua da. Zenbat arrazoin ez dut beraz nik trabailuaren maitatzeko, eta nihoiz ere alferrik ez egoteko?

II

Trabailua guzientzat hain nezesario eta probotxus delarik arren, guziak ez gare trabailu suerte beren egiterat obligatuak. Jainkoa guziei lana ordenatu daroku; ordean baxhotxari gisa batetako. Hark egin ditu munduko kondizione diferentak, eta kondizione baxhotxari iratxaki diotza trabailu berezi batzuek. Zein ere estatutan ezarri bai nau Jainkoaren probidentzia bethi zuhur eta justuak, hartan diren lanak egin behar ditut, ez dagot niri hautatzea, ez etare hobeagoaz baliatzea; bainan niri dagot ene kondizioneko

eginbideen bethetzea. Laborari banaiz, lurreko lanak egin behar ditut; tratuko presuna banaiz, negoziatz behar naiz okupatu: ofizioa banaiz, ene ofizioak egin behar du ene lana: sehi banaiz, buruzagien kontentatzeak egin behar du ene grina oso-osea: munduan egoteko banaiz, hango trabailuak behar ditu besarkatu; hitz batez, ez edozein lan, bainan ene kondizioneari darraiona egin behar dut: hori da Jainkoak ene ganik galdeztzen duena. Zenbat aldiz bizkitartean alferkeriak edo amodio propioak enganatu naute hobearen, edo debozionearen itxura faltso batez! Zenbat aldiz Jaunak ene ganik galdetzen zituen eginbideetarik bertze zerbaitetarik aldaratu naute. Zertako bada hau utzirik bertzei lothuko natzaiozte? Zertako hobeago baten itxuran gure zoriona arriskatuko dugu? Maita zagon gure bokazionea, gaudezen fermuki gure kondizionean, eta egin detzagun Jainkoak hartan galdetzen darozkigun lanak.

III

Zure estatuko eginbideak bethe behar dituzu, lehenbizikorik Jainkoaren amodioan; haren

grazian eta adiskidetasunean egiten denak balio du Zeru guzia: kondizione hau ez badute, helas! gloriakotz galduak izanen dire, ez dute eternitatean saririk izanen: duzun beraz artha bethi graziazko estatuan egoteko. Bigarrenekorik egitzuzure lan guziak Jainkoarentzat; edo haren obeditzeko, edo haren laudatzeko, edo haren maitatzeko, edo hartaz gozatzeko, edo haren justuzia satisfatzeko xedearekin. Finean egitzu guziak bozkario eta alegrantziarekin, gogotik eta bihotz onez, ez lazoki, kostumaz, desgustu edo herabetasunekin; berdin hek egin behar ditutzu, zertako ez ditutzu beraz eginen atseginekin? Orhoitzaite Jainkoa beha dagotzula, Jainkoak errekonpentsa eman nahi darotzula. Nekhatua zarenean, orhoitzaite Jesus zuretzat nekhatu dela: izertua zarenean Jesus zuretzat izertu dela, eta junta zatzu zure pena xumeak haren pena handiekin; helas, dohakabea, zer ez duzu galdu artha hori izan faltaz! Ah! Jauna, orai artean ez dut ezagutu trabailuaren nezesitatea eta haren balioa: ez dut jakin zuk ezarri nauzun kondizio-neko lanez ohoratu behar zintudala, eta ez dut konprenitu nola hek balios errenda netzaken;

orai, Jauna argitu nauzu, orai kausi-arazten darotazu tresor preziatu bat ene estatuko eginbide-tan, egidazu grazia hetaz aberasteko zure begie-tan.

MEDITAZIONEA JAINKOAREN AMODIOAZ

I

Guziz handia eta ezta da Jainkoaren maitatzeko dugun obligazionea: hau da lege saindua, manamendu handia et lehena: hau galdetzen daroku Jainkoak, nahi du gutaz izan maitatua, eta gaztigurik ikharagarrienez dixidatzen gaitu, ez badugu maitatzen; bainan zertako mehatxuak? ez othe da guretzat zorion bat, hura maitatzea? eta zorigaitzik handiena ez othe laiteke, hura ez maitatzea? Lege hunen konplitzerat gu hertxatzeko dire gainerako manamendu guziak. Ez du gizonak deusere beharragorik hau baino. Bethi gare eta eternitate guzian izan behar gare Jainkoaren maitatzerat obligatuak: gainerako eginbide guziak akhabo izanen dire gure biziarekin; ordean Jainkoaren maitatzerat obligatzen gaituen legea, Jainkoa bera bezala, eternala da. Fedeak ez du Zeruan lekhurik, zeren ikusten bai da sinhesten zena; esperantzak ez du han lekhurik, zeren igurikitzen zena poseditzen bai da;

amodio phuruak bethi han erreginatuko du, zeren bethi maitatuko bai da, bethi maitagarri zaikun Jainkoa. Zertako beraz orai beretik ez dugu hasiko eternitatean egin beharko dugun ofizioa? Zertako ez dugu orai eginen bethi gure zoriona eginen duen lana? Maita dezagun beraz gure Jainkoa, eta hartan kausituko dugu gure kontsolazione osoa; bake egiazkoa da Jainkoa maitatzeari darraion fruitu preziatua. Zer eztitasun ez dugu izanen hura maite duguno? Amodioa den lekhan ez da nekherik, ez kharastasunik; eta nekhe edo kharastasunik bada, guziak maitagarri kausi-arazten ditu amodioak. Zer erhokeria beraz Jainkoaz bertzetan gure deskantsuaren bilhatzea! Eta nola bizi gaitezke Jainkoa maitatu gabe!

II

Ezagutzen bagindu ongi zein maitagarria den bere baithan Jainkoa, handizki maita ginezake; nola guti ezagutzen bai dugu, hargatik hain guti maitatzen dugu. Zer dire kreaturetan ikhusten diren maitagarritasun guziak Jainkoaren maitagarritasunen aldean? Ezdeus batzuek. Ez da

edertasunik harenekin konpara daitekenik: guzia da saindua eta saindutasuna bera; ona da, eta ontasun soberanoa; manifikoa eta manifizentzia bera; handia eta handitasun infinitua; bothere-tsua, aberatsa, liberala zuzena eta zuzentasuna bera: gogorat ekhar atzu perfekzione suerte guziak, eta haren baithan kausituko ditutzu eskasik batere gabe. Kreaturarik konplienak hutsak dire hura gabe; haren ganik dute, duten ontasun, edertasun, eta maitagarritasun guzia. Ah! ikhusten bagindu bere baithan den bezala! gure bihotzak haren ganako amodioaz sustatuak laitezke; zer diot? Ezin nahi bezanbat maitatuz, amodioaren kharrez akhaba laitezke. Jainkoa da; erran nahi da, perfekzione guzietan infinituki perfet den izate guziz maitagarria. Nola nagoke beraz hura maitatu gabe? Susta zazu, Jauna, zure amodioaren kharraz ene bihotza; bera zazu ene bihotz gogorra, urth zazu ene bihotz hormatua. Khen zazu ene bihotzetik bertze amodio guziak, eta egizu zure amodioak bakharrik erregina dezan ene baithan. Oxala banitu mila miliun bihotz, guziak zuretzat nintuzke: bat eman daro-

tazu, eta hau guzi-guzia, oso-osea bethikotz, sekulakotz ematen darotzut.

III

Jainkoa, bere baithan hain maitagarria, zure amodio guziaz digne bada, edo beraren gatik maitatu behar baduzu, zuretzat guzia ona dela-ko orhoitzapenak obligatu behar zaitu soberanoki haren maitatzera. Gure Jainkoa da, kreatu gaitu eta bere idurirat egin gaitu, gu kontserbatzen, mantenatzen, gobernatzen, laguntzen gaitu, eta gu dohatsu egiteko deusik ez du guphidesten; Zeru-lurrak guretzat egin ditu, eta gu esklaboentzat, gu bekhatoreentzat, gu kreatura miserable eta dohakabeentzat bere Seme bakharra eman du. Miletan beiratu nau Ifernuko lezetik, miletan barkhatu darozkit hanbat bekhatu handi, eta bertze hanbat nik baino bekhatu gutiago egin zutenak damnatu dituen denboran, niri egin darot grazia et miserikordia; eta hauk guzien ondoan hazten nau bere gorphutz sakratuaz, sasiatzen nau bere odol preziatuaz. O karitate mugarrigabea! O samurtasun infinitua! Noiz ene bihotzeko amodioak ihardetsiko othe daro-

tzu! Nola nagoke zu maitatu gabe! Ene intresek, zure maitagarritasunek, eta enetzat egin dituzun amodiozko mirakuiluek obligatzen naute zure maitatzerat. Zu zare ene Jauna eta ene Jainkoa, ene ona, ene ontasuna, ene bizia, ene guzia: maite zaitut ene bihotz guziaz.

BIGARREN MEDITAZIONEA JAINKOAREN AMODIOAZ

I

Oso-osea galdetzen zaitu zure Jainkoak, deus ez da zure baithan eskatzen ez darotzunik. Zor diozu zure bihotzeko, eta bihotz guziko amodioa: maitatuko duzu zure Jainko-Jauna zure bihotz guziaz, zeren bihotz hura guzia berak egin bai du, berak erosi bai du eta berak kontserbatzen bai du: Bihotzaren jelos da, ezin kontenta daiteke parte batez, ez erdiaz, ez gehienaz, ez hurren guziaz; oso-osea galdetzen du: erran nahi da, hura maitatu behar duzula gauza guziak baino gehiago; ontasunak, ohoreak, plazerak, ahai-deak, burasoak, haurrak, eta zure burua baino gehiago, eta hauk guzien gaineratik. Hain egiazkoa izan behar da guzien gaineko amodio hau, non prest egon behar bai zare hauk guziei ukho egiterat Jainkoaren amoreak gatik: gehiago behar duzu prezatu eta estimatu Jainkoaren maitatzea, ezen ez mundu guziaz gozatzea: lasterra-go galdu behar duzu duzun guzia ezen ez Jainko-

aren amodioa. Horra zer aditzen dugun galde-
tzen zaikun bihotz guziko amodioaz. Ordean nik
nola maitatu othe zaitut, o ene Jainko-Jauna! Zer
ahalkatzeko sujet ez dut, orhoitzen naizenean,
ezdeus batzuek zu baino gehiago maitatu ditu-
dala! Plazer labur baten hartzeagatik, ontasun
aphur bat biltzea gatik, haizearen pare den oho-
rezko puntu bano baten gatik, egin zaitan damu
xume baten gatik, ahantzi, abandonatu, mezpre-
zatu zaitudala; zer diot? krueki tratatu, eta guru-
tzefikatu zaitudala. Nola erran dezaket beraz
maite zaitudala ene bihotz guziaz! Othe da ene
ausartzia baino handiagorik!

II

Zure izpiritu guziaz maitatu behar duzu zure
Jainko-Jauna; hura ezagutu behar duzu, hartaz
orhoitu behar zare, hari behar diotzatzu eman
zure gogoeta eta pentsamendu guziak. Gogoan
erabili behar dituzu haren maitagarritasunak,
haren egia guziak. Gogotik behar duzu egon
harekin othoitzean, plazerekin aditu behar duzu
hartaz mintzatzen, zerori ere maiz hartaz min-
tzatu behar zare, estima behar dituzu haren

legeak, maximak, eta kontseiluak; ezen hori da izpiritu guziaz Jainkoa maitatzea. Ala urrun izatu bai da ene gogoia amodio hortarik! Galdetzen zautanetik, deus ere, edo hagitz guti baizen ez diot eman, eta horrek doloratzen nau. Gutti pene-tan eman naiz ene Jainkoa ezagutzeko, gutiago haren maitagarritasunen kontsideratzeko: bertze guzietako denbora asko eta sobra hartu dut, eta behar nueneko, behinere astirik asko ez nuen: ene gogoetak munduko gauzen ikhasteko, hetaz mintzatzeko, hekien gustatzeko izatu dire: unhatzen nintzen ene Jainkoaren presentzian, nekhatzen hartaz mintzitzen zaizkidanean, khe-xatzen haren perfekzioneak, eta maitagarritasu-nak aiphatzen zauzkidatenean: bertze konber-tszazione guziak agradatzen zitzaizkidan, Jainkoz-koak bethi luzegi kausitzen nituen. Ah! laxotasu-na! Ah sorhaiotasuna! Ala higuingarria bai da ene konduita!

III

Zure indar guziez maitatu behar duzu zure Jainko-Jauna. Zure lan, pena, izerdi, sofrikari, hitz, obra eta akzione guziak eman behar diotza-

tzu. Haren baithan, haren graziaz, haren laguntzaz bizi, nekhatzen eta trabailatzen gare; justu da haren ganik dugunaz geroz dugun guzia, guziak harentzat izan daitezen: edo jan eta edan dezadan, edo trabaila edo pausa nadin, edo atzarria edo lo egon nadin, zer nahi den egin edo sofri dezadan, guziak Jainkoaren gloriaren ohoretan izan behar dire. Atseginetan eta atsekabetan, abundantzian eta gabetasunean, osasunean eta eritasunean, ohoretan, eta laidoetan, ontasunetan eta miserian, bizitze labur huntako okasione guzietan Jainkoa guziez behar dut benedikatu, guziak harentzat behar dire; onetan eskerak, gaitzetan sumisionea zor diot, eta hori zeren behar bai dut ene ahal guziaz maitatu. Ala ordean urrun izatu bai naiz disposizione hain giristinozkoetarik. Helas! Jauna, erran dezaket zu benedikatu behar bidean, bistatik galdu zaitudala: miletan murmuratu ere naiz zure probidentzia amultsuaren kontra; bainan barkhamendu eskatzen darotzut; errezihi zazu othoi ene bihotz guziaz, ene izpiritu guziaz, ene ahal guziez egi ten darotzudan ofrenda: guzia nahi naiz ahitu

eta kontsumitu zure amodioan, zure grazia sain-
duarekin batean.

MEDITAZIONEA LAGUN-PROXIMOAREN AMODIOAZ

I

Guziz hertsia da lagun-proximoaren maitatzeko dugun obligazionea. Adi zazu Jesu-Khristo; maitatuko duzu zure proximoa, hau da ene manua: manamendu berri bat ematen darotzut, eta hura da elkharren maitatzea: ene dizipulu zaretela jujatuko dute elkhar maite baduzue: izan zaitezte guziak bat amodioaz, ni ene Aitarekin Jainkotasun beraz bat naizen bezala. Ikhusuten duen bere anaia maite ez duenak, nola maita dezake ikhusuten ez duen Jainkoa? dio Jondoni Joani Ebanjelistak; legearen bethetasuna amodioan datza. Salbatzaileak bere plazan bezala utzi darozkigu gure proximoak; zer ere egiten bai diozute hauki, hura hari berari egitea da; berak guziak hekien presunetan errezibitzen ditu. Nola gaudezke elkhar maitatu gabe, hain klarki eta hain maiz Jesu-Khristok hortarak obligatzen gaituenaz geroz. Iduritzen zait fedea gal-

dua nukela ez banu errespeturekin aditzen hain haltoki mintzo zaitan Jainkoa; eta adimendua ez othe nezake gal ez banu maitatzen ene laguna? Nola nuke bekhokirik Jainkoari errateko, gure Aita, baldin ez banitu maite bihotzez giristino ene anaiak? Examina dezadan beraz orai ene burua, kontsulta dezadan ene bihotza: goardatu othe dut manamendu handi hau? Artha izan othe dut ene proximoaren maitatzeko? Ikhusten othe dut ene baithan Jesusen dizipulu egiazkoen marka hau?

II

Nor da maitatu behar dugun proximoa? Ez zaitela othoi engana. Gizon guziak, eta hetarik baxhotxa da zuk maitatu behar duzun proximoa. Zein nahi den herritako, ala kondizionetako, zein nahi den hizkuntzetako, edo erreligionetako den, bethi zor diozu amodioa, zeren hala Jainkoak manatzen bai darotzu, zeren guziak haren obrak, haren idurirat eginak, zure idurikoak bai dire, eta zu bezala eternitate dohatsuaz goza bai ditezke. Horra zergatik guziak maitatu behar dituzun; ordean manera berezi batez maitatu behar ditu-

tzu giristino zure lagunak; hek dire zure anaiak, Eliza beraren umeak; zu bezala dire Jesusen primu lagunak, lege beraz argituak, artzain beraz gobernatuak, ur beraz bathaiatuak, mahain berean haziak, janhari beraz bazkatuak. Sortzeak, ontasunek, karguek edo herriek eman dezakete zuen artean diferentzia aphur bat, ordean hau da oso-osea axaletikakoa, fedearen eta errelijionearen begietan ez da batere diferentziarik, eta maiz larrua ageri dabilan pobre eta meziprezatua, ontasunpean bizi dena baino ohorezkoago eta baliosago da Jainkoaren aitzi-
nean. Ez beraz beha kanpoari, ezen tronpa zaitzke: kontsidera zazu fedea, eta ikhusiko duzu maitatu behar ditutzula eta bihotzez guziak eta beregainki zure giristino-lagunak. Amodioa bera zaren Salbatzaile amultsua! gizon guzientzat isuri izan duzu zure odol adoragarria; egizu beraz guziak maita detzadan, eta bihotzez.

III

Maitatu behar dut ene lagun-proximoa, Jesus-
sek ni maitatu naberen bezala; hala dio berak,
beraz amodio efetuzko batez, ez hitzez edo

mihiz, bainan obraz eta egiaz. Hala maitatu othe dut? Gose eta egarri zirenei jaterat ematea, bil-huziak zirenen beztitzea, aflijituen kontsolatzea, ignoranten instruitzea, bekhaturen erorien altxatzea, arriskutan zirenen abertitzea, horra zer den maitatzea. Hori egin othe dut? Eta ene faltaz hek utzi baditut sofritzerat, eta hauk galtzerat, nola erran dezaket maite nituela, Jesu-Kristok ni maitatu naben bezala? Maitatu behar dut oraino ene laguna ene burua bezala; beraz amodio khartsu batez, amodio bethiereko batez, zeren hala maite bai dut ene burua: eneganik ahalaz gaitz guziak urruntzen ditut, on guziak ene ganatzen ditut; gauza bera egin othe dut ene lagunarentzat? Helas, ala huts handitan erori bai naiz puntu hunen gainean! Ikhusi dut beharretan, eta ahala nuelarik, ez dut lagundu; ikhusi dut kalumniatua eta medisentziaz larrutua, eta ez dut hitz bat erran ez erran-arazi, eta halere erran dut maite dudala ene burua bezala. Ahantz zatzu, Jauna, orai artean lege saindu hunen kontra egin ditudan falta guziak, egizu hemendik harat egiazki eta efetuzki maita dezadan ene lagun-proximoa.

MEDITAZIONEA ETSAIEN MAITATZEAZ

I

Jainkoa mintzo zaitzu, hark manatzen darotzu zure etsaiaren maitatzea; ez othe du bada zure gainean zuzen justua plazer duen legearen zuri emateko? Gogor zaiku gaizki egileari ongi egitea, ordean orhoit gaitezen Jainkoak manu eman darokula, Jesu-Kristok bere exenpluaz irakhatsi darokula, sainduak bere bizitzeaz markatu darokutela, eta gure intresek hortarat obligatzen gaituztela: egiten zaizkigun gaizkiak bihotzez ahanzten, eta gaizki egileak maitatzen baditugu, gure bekhatuen barkhamendua ardietsiko dugu, ez ordean bertzela. Gure etsaiak maitatzen baditugu, Jaunaren graziak eta fagore berezienak merezitzen ditugu, Jaunaren haur maite gare, bertzela ez dugu haren erresuman parterik igurikitzeke. Nola ere gure lagunak tratatzen bai ditugu, halaber gu Jainkoak tratatuko gaitu: barkhatzen badiogute, barkhatuko daroku; maitatzen baditugu, maitatuko gaitu: horra legea, horra

manamendua, eta horra nik ongi ezagutu ez dudan obligazionea, horra nik segitu ez dudan bidea; eta zergatik ez dut segitu? Helas! zeren sobra aditu bai dut ene burua, sobra kontentatu bai dut ene pasionea, sobra satisfatu bai dut ene amodio propia. Zer kalte, zer bidegabe ez diot egin ene buruari! Zer ofentsa ene Jainkoari!

II

Funsgabeak dire herratsu eta mendekariak ekhartzen dituzten arrazoinak etsaikoan egoteko. Diote deus ere egin gabe afrontatu eta desohoratu dituztela: hori hala balitz ere, horiek dire maitatu behar diren etsaiak: eta zuk Jainkoa, ala Jainkoak zu ofentsatu zinduten? eta nahi zinduke ez baliezazu barkha zure bekhatua, ez baliezazu eman bere grazia eta Zerua? Bada zuk hura arrazoinik batere gabe, eta arrazoin guzien kontra meziprezatu duzu. Diote oraino handiegia dela errezibitu duten afrontu edo kaltea; ordean guzietarik handiena da arima eta Zerua galtzea, eta ho zer egiten duzun zure etsaia maite ez baduzu. Ereman darotzute kalumnia beltzez ohorea, ohoinkeriez zure ontasuna, tratamendu

kruelez laburtu darotzute bizia? Gaizki egiten dute, eta zuk gaizkiago egin zinezake herran egonez, zeren gal bai zinezake nihork ezin gal-araz diezazuken Jainkoaren amodioa, grazia eta erresuma. Finean diote etsaiei barkhatzen badiote gaizkiago tratatuak laitezkelak, gaixtoago bilhaka laitezkelak, on dutela zebatuak izatea; ordean Jainkoari zaio erreserbatua mendukua, jakinen du gaixtoen punitzen, zure pazientziaren saristatzen. Areago bilhakatuko dire, diozunaz; tronpatzen zare, ongia hei maiz eginez, bere baithan hobeki sarthuko dire, eta onduko dire; eta guziarekin ere gaixtatzen badire, hori hekien falta bat izanen da, zuk barkhatuz zure obligazio-nea egiten duzu. Zer kontsolazione zuretzat jakitea Jainkoari plazer egiten diozula maitatuz zure etsaia.

III

Ez da asko gaizkirik ez egitea zure etsaiari, ez da asko ez mendekatzea, oraino maitatu behar duzu; on eta ontasunak desiratu behar diotzotzu; haren atseginez atsegin, desplazerez eta penez damu izan behar duzu; gose bada jaterat, egarri

bada edaterat; bilhuzia bada soinerat eman behar diozu; hitz batez, zure burua bezala maitatu behar duzu, ez hitzez bainan obraz eta efetuz; beraz manera suerte guziez markatu eta ezagutarazi behar diozu, hark lehenik zu ofentsatu bazintu ere, ahortzi duzula hark egin darozun gaizkia, prest zaudela hau atsegin egiterat, eta maite duzula; beraz salutatu behar duzu beraz okasionetan mintzatu behar zaizko, beraz, haren konpainian gerthatzen zarenetan, han egon behar zare, beraz hartaz eta harenez estimurekin mintatzu behar zare; ezen hori da legeak manatzen duena, amodioak galdetzen darotzuna. Examina zazu zure burua. Nolakoa izan zare orai artean? Ez othe zare kontentatu gaizki egin darotzunari gaizkirik ez egiteaz? Ah! Jauna, aithortzen dut ene falta, iduritzen zitzaitan, asko zela ez mendekatzea, ez aspertzea; orai ezagutzen dut zerbait gehiago galdetzen zinduela ene ganik; nahi ditut beraz ene etsaiak maitatu bihoitzez, obraz eta zure gatik.

MEDITAZIONEA HUMILTASUNAZ

I

Humiltasuna da berthute bat, zeinak ezagut-
arazten bai daroku gure ezdeustasuna, eta ait-
hor-arazten, dugun guzia Jainkoa ganik dugunaz
geroz, guzietz hari laudorioak zor diotzagula.
Humil denak badaki bere baitharik deus onik ez
duela, bere funtsetik miseria bera dela, eta mez-
preza-arazten dio bere burua; ikhusten du sor-
tzez pobrezia bera, bekhatuan kontzebitua, Jain-
koaren etsaia, Zerutik desterratua zela, eta
horrek ezdeustasunean barna sar-arazten du.
Humil denak kontzebitzen du bere bekhatu non-
bre gabekoez galdu duela Jainkoak miseriakordiaz
eman zioen bathaioko inozentzia eta edertasu-
na, berriz Satanen gathibo egin dela, eta eterni-
tateko suan erretzen egotea merezi zuela, eta
horrek arbuia-arazten dio bere burua. Humil
denak ezagutzen du, deus ere onik badu edo
gorphutzean edo ariman, hauk guziak hanbat
dohain direla Jainkoak eman eta intresarekin gal-

detuko diotzanak, bethi bere buruari zerbitzari inutil bati bezala behatzen dio, eta guziez Jaun soberanoari eskerrak emanaz, ez bere obretan, bainan Jainkoaren miseriak handian ezartzen du bere konfidentzia guzia. Humil denak onhesten ditu mezprezioak, ez dabila laudorioen bilha, hei ihes egiten diote; ez du hartzen ohorezko plaza edo herrunka, Jaunaren borondateari sumetitzeko baizen; eta bere kondizioez bertzeak baino gorago altxatua bada, bihotzez guziak baino ahalago eta ezdeusago dauka bere burua. Horra nolakoa den humila, horra zer den humiltasuna. Othe da hunelako hainitz giristinoen artean? Fedea duten guziek aithortzen dute dispoziore horietan izan behar direla; ordean zenbatek othe dituzte bihotzean?

II

Humiltasuna berthute nezesario eta baitezpadakoa da; hunek sor-arazten ditu, hunek kontserbatzen ditu, hunek berretzen ditu, hunek khorroatzen ditu berthute guziak, hau gabe ez da berthute egiazkoarik, eta hau bethi da berthute guziez segitua. Jainkoak kontra egiten diote sup-

herbiosei, eta plazerekin behatzen diote humilei; urruntzen da bere buruak zerbaitentzat dauzkatenetik, eta bere buruak ezdeustatzen dituztenei ematen diotzate bere graziak. Publikano humilaren othoitzaren entzuna da Farisaba arrogantarena mezprezatu duen Jainkoaz; bere baitan altxatzen direnak beheratuak dire Ifernuko zolaraino, eta humiliatzen direnak altxatuak dire Zeruko tronuraino. Ah, humilitate maitea, zu izan behar zare ene partaia, zutaz egin behar dut ene ontasuna, zu maiteki kontserbatu behar zaitut. O Jesus humila! O goratasun soberanoa beheratasunik handienetarik jautsia! egizu, humil izan nadin zure imitazionetan; humiliatu zare zure Apostoluei eta Judas berari oinak garbitzerainokoan, humiliatu zare gurutzean enetzat hiltzerainokoan, egizu beraz, maita dezadan zuk hanbat maitatu duzun humiltasuna.

III

Humiltasuna hain berthute nezesarioa delarik arren, hartaz estimu guti egin duzu. Kondatu othe duzu berthuteen artean? haren izateko zer egin duzu? Jainkoari galdetu diozu? Hark eman

dezake. Humiliazioneak onhetsi ditutzu? hek sor-
araz dezakete. Zure baithan maiz sarthu zare?
Horrek inspiratuko zarotzun. Ez othe duzu zure
burua sobra estimatu? Zure miseriak ez ditutzu
kontsideratu, eta Jauna ganik zintuen onez hantu
zare. Ohoreak, karguak desiratu, lehenbiziko
plazak bilhatu, munduaren estimua maitatu
duzu, eta kreaturen laudorioaz egin duzu zure
zoriona. Zer zen bizkitartean laudorio hura? Khe
bat zure zoratzeko xoilki gai zena, eta niholere
merezi ez zinduena. Nola behatu diozute mez-
prezioei, laidoei, afrontuei? Eta ez othe ditutzu
higuindu zenbait damu egin darotzutenak? Zure
buruaz hartua, pretentziona erhoiez bethea, uste
izan duzu guziek zor zarotzutela atentzionerik
osoena: horra zure pintura naturala. Bai, Jauna,
horra ni oso-oso, horra ene portreta. Ezagutu
banu ene burua naizen bezalakotz, ikhusiko
nuen ezdeus arbuiagarri bat nintzela, eta merezi
nuela laidoa, desohorea, eta konfusione osoa.
Egizu hemendik harat ez nadin engana, apha-
l izan nadin zure begietan; ezdeustasuna da ene
tokia, han egon nahi naiz bethi, hura da ene zen-
troa, hark egin dezake ene arimaren zoriona;

orai danik eta bethikotz besarkatzen dut humil-
tasuna.

MEDITAZIONEA KASTITATEAZ

I

Kastitatea berthute preziatu eta guziz baliosa da. Hari dagoko sentsuen plazeren erregelatzea eta moderatzea arrazoinaren eta fedearen araberak; berthute hunek santifikatzen ditu atsegin inozentak, eta kondenatzen ditu zilhegi ez diren guziak; hunek, justu den bezala, gorphutza arrazoinari, haragia izpirituari, sentsuak fedeari sumetitzen diotza, gorphutzez eta izpirituz guri adora-arazteko guzia saildu eta garbi den Jainkoa: kondizione guzietan debekatua da beraz, damnazionearen penan, haragiaren esklabo izatea, edo haren gutizia deserregelatuen segitzea. Mende guzietan Jainkoak garratzasun handienarekin punitu du lohikeria, eta bizio guzien artean ez da nekhezago barkhatu duenik; hunek urrun khentzen du Jainkoaren izpiritua, itsutzen eta sorhaitzen du gizona, halako manieraz non ez bai du sentitzen ere bere hobenaren izigarritasuna. Nola beraz asko higuin eta abhorri dezakegu lohikeria! bainan nola asko maita eta preza

dezakegu garbitasuna! Nolako prekauzioneak hartu behar ditugu hatsik mendreenak nohartzten eta histen duen berthute hunen begiratzeko! Hunen balio guzia ezagutzen duenak hau kolpa dezaketen okasione urrunenei ere ihes egiten diote, bertze sentsuko presunen hitz lausenguzkoak, eskaintza honestak ere, mundutarren dibertimenduak eta konpainiak, inozentekak diruditen kuriostasunak, adiskidetasunak, eta solhasak berak perilosak zaizko, eta izitzen dute; garbitasunari ukitzen zaizkon gauzen gainean, guziez beldur izan behar da; askok, zeren ez diren beldur izatu, bere herbaltasunaz esperientzia doloragarri bat egin dute.

Jesus, birjinen esposa, amatzat birjina bat berezi duzuna! indazu garbitasunarentzat amodio samur bat, ardiets diezadazu garbitasunean bizitzeko hain baitezpadakoa den ene buruaren beldur hura, eta tresor preziatu hunen arthoski eta maiteki begiratzeko grazia.

II

Kastitateak baditu hirur grado, bata baino bertzea perfetago direnak, eta hirur estatutan

kausi daitezken presunetan ediren behar da; ezkonduetan kausitu behar da, eta hei irakhas- ten diote sakramenduaz duten zuzenaz sainduki baliatzen, eta ezkontzaren finaren kontra doha- zen, edo haurren izateko gai ez litezken liberta- te suerte guzietan ihes egiten. Alhargunetan konti- nentzia deitzen da, eta hura datza, Jaunak eman zioten esposaz Jainkoaz beraz gabetuak izan ondoan, bere buruak Jesusi kontsekratzean, debekatuak diren plazerei, eta zilhegi litzakote- nei ukho eginik. Hau perfetagoa da ezkonduena baino. Nihoiz ere gorputzeko garbitasuna kol- patu ez dutenetan deitzen da birjinitatea, eta hau edireten da Jesus baxharra behin bethikotz bere espostzat hautatzen dutenenetan, edo bederen bethi bere buruak garbi kontzerbatzen dituztenetan. Hau da berthute hunen perfekzio- nerik haltoena. Ez da obligazionezkoa; ez da sal- batzeko baitezpada nezesarioa, zilhegi denaz geroz ezkontzea; baina ez othe da klar, berthute hau guzia maitagarria, guzia preziatua eta Jainkoarentzat ohoragarria dela. Eman biozate mundutarrek estatu saindu hau besarkatzen dutenei plazer duten izen laidotsuena, bethi Jain-

koaren begietan agradagarria izanen da birjinitatea, bethi hunek ohoratuko du Jainkoa, zeren hari sakrifikatuko bai dio ez bere dirua, bainan bere burua oso-osoa plazerik inozentenekin batean. Ala beraz dohatsuak bai dire lurraren ganean berthute huntaz berreginduak diren arimak, eternitatean izanen dute bildots notha gabeari jarraikitzeke zoriona.

III

Handiak eta nonbregabeak dire birjinitatearen abantailak. Zenbat arriskutarik kanpoan ez dire birjina daudezenak? Arriskuak kausitzen dire lurrean espos bat hautatu gogo denean, eta nolakoak ez dire arrisku hek? Jainkoaren gogora egiten othe da hautu hau? Kontsultatzen othe da haren borondatea? Zenbat arrisku handi ezkon artean? Zenbat ezkondu ondoan? Zenbat espos batekin? Zenbat familiarekin? Zenbat haurren giristinoki altxatzeko? Zenbat bertze barnetik eta kanpotik? Hauk guzietarik libro eta segurean da Jesus bere espostzat hautatu duena. Ezkonduen bihotza partaiatua da bere esposaren eta Jainkoan artean, huni zor dio amodio osoa, eta

hari plazer egiterat obligatua da. Erretx othe da bi eginbide haukien bethetzea? eta bethi? eta denbora guzietan? eta gogotik? eta hil arteraino-koan? ordean birjinaren lan bakharra da, bere Jainkoari plazer egitea, bere Jainkoari laudorioen errendatzea, bere Jainkoa maitatzea. Ah birjinitate preziatua! lore minbera bezain ederra! ala maitagarria bai zare! ala desiratzekoa bai zare! eta guziarekin ala guti maitatua eta ezagutua ere bai zare munduan! zutaz nik egiten dut ahal bezain estimu handia. Plazer nuke, Jesus maitea, zuk hala nahi bazindu, zutaz bertze esposik ez izatea, zure baithan ene guzia kausitzea: zer nahi galde diezadazun, prest naiz zure borondatearen konplitzerat, promes ematen darotzut, sekulan ez dudala deus ere eginen, ez erranen, ez prometatuko kastitatearen berthutea ene baithan, edo bertzeen baithan kolpa dezakenik.

MEDITAZIONEA KOMUNIONEAZ

I

Guziz handia eta soberanoa da Jesusek guretzat duen amodioa. Bere amodio phuruz kausitzen da aldareko sakramendu sainduan, eta zenbat amodiozko mirakuilu ez du egiten hartarakotz? Betan kausitzen da Zeruan eta lurrean, glorian eta abaxamenduan, Aitaren eskuinean eta aldarearen gainean; betan hostia sakratu guzietan, eta hetarik bakhotxean, eta hostia bakhotxaren parterik xumeenean. Humiliatzen da, ogiaren idurien azpian bere burua ematerainokoan: humiliatzen da, gizon baten bozari eta hitzari obeditzerainokoan: humiliatzen da, bere Jainkotasuna bezala, bere gizontasuna osoki gobeltzerainokoan: humiliatzen da, nonbre gabeko afrontuak, plenu gabe, hitz bakhar bat egin gabe, sofritzerainokoan. Zer amodio! zer samurtasun! Ala ordean, Jauna, guti ezagutua, guti maitatua bai zare gutaz! Eta guti ohoratua bai zare hanbat maite ditutzunez! Deus ere ez

duzu guphidesten gu maitatzeko; eta guk zer egiten dugu zure ohoratzeko? Noiz heldu gare zure ohoratzerat? Egunaz eta gabaz zaude aldareko sakramendu sainduan, eta ni ez gabaz ez egunaz ez naiz zutaz orhoitzen. Othe da eta izan othe daite nazionerik gu garen baino ohoratuagorik? bainan othe da gizon guzien artean ni baino laxoagorik?

II

Jesu-Kristok aldareko sakramendu sainduan hazi nahi gaitu bere gorphutz sakratuaz, eta bere odol preziatuaz, horra zertako dagon gure aldaretan. Jainkoa ene janhari, Jainkoa ene edari dut. Nahi nau bazkatu, eta gizendu bere gorphutz sakratuaz, bere odol preziatuaz. Hala berak segurutzen nau: har zazue, eta jan zazue, hau da ene gorphutza, hau da ene odola; ene haragia da egiazki janhari, ene odola da egiazki edari; ni jaten nabena komunionean bere baithan du bizitzea, ni haren baithan bizi naiz, eta hura bizi da ene baithan, ni ene Aitaz bizi naizen bezala, hura ere nitaz bizi da, ni jaten nabena, ene baithan dago, eta ni haren baithan nago; horra Jesu-

sen hitzak, horra Jesusen erranak. Nahi du beraz komunioan egin gurekin alientziarik hertsiena, unionerik handiena, batasunik perfetena; ethorri nahi da gure ganat, ez aphur batetako bainan bethiko; egon nahi da gurekin sekulako; berekin bat egin nahi gaitu; gutaz, hunela erran badaiteke, harenbertze Jesus egin nahi du: gonbidatu nahi gaitu bere ganat: bere iduriko egin nahi gaitu: komunioan berekin gorphutz eta odol bere egin nahi gaitu. O amodio mugarrigabea! O karitate soberanoa! O samurtasun sobraniozkoa! Non da artzaina bere gorphutzaz bere arthaldea bazkatzen duena? Non da ama bere odolaz bere haurra hazten duena? Zu zare, Jesus, artzain ona, gu zure ardiak zure gorphutzaz neurritzen gaitutzuna. Zu zare, Jesus, aita samurra, zure umeak zure odol preziatuaz sasiatzen gaitutzuna. Nola asko estima dezaket egin darotazun emaitza handia! Nola asko adora zaitzaket, o ene Jabe soberanoa? Sustenga zazu, Jauna, ene izate guzia, ez dezadan pentsa, ez dezadan erran eta ez dezadan egin deus ere zure arabe-
ra baizen; egizu, o amodiozko Jainkoa, zutaz,

zure baithan, eta zurekin bat egina bizi naizen bezala, zuretzat izan nadin oso-osea.

III

Ez noizean behin, bainan maiz nahi gaitu Jesusek hazi komunione sainduan bere gorphutz sakratuaz, eta odol preziatuaz: hartarakotz dago egun oroz gure aldaretan: hartarakotz erraten daroku, bere plazerak ematen dituela gizonen umeezin izatean: hartarakotz bere burua ezarri du ogiaren eta mahats arnoaren idurien azpian: hargatik dio, haren haragia janhari dela. Desiratzten du beraz, gutaz maiz errebitua izatea, ez erremedioa hartzen den bezala, bainan neurri-mendua hartzen dugun bezala, maiz eta husuki. Ah Jauna! asko eta sobra ohoratua izanen nintzen zu bethi adoratzeaz. Nik igurikitzeke nuen grazia baino handiagoa eginen zinarotazun, urthean edo bizian behin ere zure burua niri emateaz, oraino zure xedea da, maiz haz nadin zure gorphutz sakratuaz; bizkitartean kontentatu naiz urthean behin zu errebitzeaz; eta orduan ere nola? Menturaz bortxaz; menturaz munduaren errankizunen gatik; menturaz preparazione guti-

rekin; menturaz zure herran eta etsaikoan nintzelarik. Barkha datzu, Jauna, orai arterainoko falta guziak; indatzu zeronek nigar gozo eta baliosak, auhenda detzadan zure amodiozko sakramenduan egin darozkitzudan afrontuak; promes ematen darotzut egiaz eta izpirituz adoratuko zaitudala, maiz eta sailduki errezibituko zaitudala; egidazu grazia promes hunen konplizeko.

BIGARREN MEDITAZIONEA KOMUNIONEAZ

I

Handiak dire maiz komuniatzeko ditutzun arrazoinak. Helas! zure burua maite baduzu, maiz Jesus zure baithan errezibituko duzu. Zer zorion ez da zuretzat zure Jainkoaz husuki haztea, zure Jainkoa maiz zure bihotzean ostataztea! Ohoratua zintezke zure Erregeren mahai-
nean maiz jartzeko libertatea bazindu, eta beraz zer gloria, zer zorion ez da zuretzat errege guzien Erregeaz zure buruaren bazkatzea! Nola-ko onak eta ontasunak ez othe darraizko komunione saildu bati? Zer izanen da komunione husuaz? Komunione on batek phazegatzen eta flakatzen du gure pasione gaixtoen bizitasuna, ematen daroku Deabruaren tentazioneen kontra indarra, kontserbatzen eta berretzen du gure baithan graziaren bizia, finkatzen du fedea, bort-
hizten esperantza, sustatzen eta hedatzen kari-
tatea; hura da pena eta nahigabetan gure kontsolamendua, eta phizte glorios baten bahi pre-

ziatua. Zer ez du beraz Jesusek eginen gure arimetan fede bizi batekin, konfidentzia oso batekin, amodio khartsu batekin, humilitate egiazko batekin, saindutasun eta garbitasunekin maiz errezibitzen dugunean. Egizu experientzia, eta ikhasiko duzu zein on den maiz eta sainduki komuniatzea: kostuma dohatsu huntan behin ematen bazare lehenbiziko giristinoak bezala, zure dolore baxarra izanen da komuniatu gabe egun bat iragatea. Zure intentziona da, o ene Salbatzaile maitea! maiz gure ganat ethortzea, eta arimako intresek ere hertxatzen naute husuki zure ganat joaterat; ethorriko naiz beraz maiz, eta aldi guziez bihotz xahu batekin; berthute guziez ene ahalaz berreginduko dut ene arima, gai izan dadintzat zu ostatatzeko, o Jesus ene amodioa, ene bizia, ene guzia! Zure graziaz efektuzko errenda zatzu oraiko ene deliberazione hauk.

II

Funsgabekoak dire komunionen husutik gibelatu nahi zintuzketen atzekiak. Ez da konbeni, diote batzuek, mundupean bizi behar dena hain

maiz mahain saindurat hurbiltzea. Zergatik ez? Zer bada komentuetan bizi direnak baizen ez dire Jesusez gonbidatuak? Mundupean dagoenak ez dezake bada higuin bekhatua, eta maita Jainkoa? Mundupean dagoenak ez dezake garbi kontserba bere arima? Lan, okupazione eta egiteko handiak ditut, dio bertze batek; eta nik diot, beraz maiz komuniatu behar duzu. Zertako? Zure egitekoetan ongi joateko, zure lanak balios Zerukotz errendatzeko. Ez naiz, diozu finean, ez naiz asko perfeta hain maiz komuniatzeko, eta bada maiz eta sainduki komuniatuz ardietsiko duzu desiratzen duzun perfekzionea; mahain saindutik urrunduz ez zare perfetako bihurtuko; nor borthizten eta gizentzen da jan eta edan gabe egonez? Nahi badut gauza guziez balia naitenke, o ene Jesus maitea, zu errezibitzerat preparamatzeko; bekhatu xoilak da zure ganik urrun nazakena, ukho egiten diot orai beretik eta bihotzez, eta hasten naiz zuri jarraikitzen; garbi nazazu bekhatuaren notha guzietarik, indazu guzien gaineko higuintzarik handiena, eta zure ganako amodiorik khartsuena.

III

Maiz komuniatzeko ukho egin behar diozu bekhatu mortalari; ezen nihoiz ere ezin komunია dezakeguke bekhatu mortalean gure kondena-zionetan baizen; ordean maiz, hala nola astean behin, komuniatu nahi duena izan behar da, ez ustegabeko, edo flakeziazko falta xumerik gabe, bainan bai bekhatu benialaren ganako afekzio-nerik gabe, erran nahi da, gaitzetsi higuindu eta aborritu behar dituela bekhatu benial guziak; ezen maiz Jesusen mahainean jartzeko, haren adiskide min eta maite-maitea izan behar da; beraz hari damu egiten dioten bekhatu en amodia eta afekziona gabe kausitu behar da: horra maiz komuniatzeko behar den dispoziziona; eta nork gibela nazake hunen izatetik? Oraino desira khartsu bat izan behar dut Jesusen errebitzeko, gose eta egartsu handi bat ene arima hartaz neurritzeko, gutizia handi bat hartaz bizitzeko, lehia handi bat haren ohoratzeko eta berthutean aitzinatzen. Sobra galdetzen othe zait? Ez othe du bada merezi Jesusek niri eskatzen zaitan desira, egartsu, gutizia eta lehia saindu hura?

Ah! Jauna, lazo izatu naiz eta antsikabe orai artean, ez dut ezagutu ene burua, gutiago ezagutu dut zure ontasuna, bainan orai argitzen, orai atzartzen nauzu; nahi naiz baliatu zure samurtasunaz eta miseriakordiaz, zu errezibitzeko maiz ene bihotzean, zu kontserbatzeko maiteki ene ariman.

MEDITAZIONEA MEZAKO SAKRIFIZIOAZ

I

Ez da giristinotasunean deus ere mezako sakrifizioa baino errespetagarriagorik; han ofritzen da egiazki eta errealki Jesu-Kristo ogiaren eta arnoaren idurien azpian: kreatura guzien Kreatzailea, gizon eta Aingeruen Jauna, Zerua-ren eta lurraren Jabe soberanoa bere Aitari zaio ofrendatua; behin xoilki gurutzearen gainean egin duen ofrenda egun oroz erreberitzen du aphezaren eskuez aldareen gainean. Gizonek eta aingeruek bere obrarik handienez, bere adorazionerik khartsuenez baino gehiago eta gehiago ohoratzen du Trinitate saindua mezako sakrifizio bakhar batek, zeren balio infinitu bat bai du hemen ofritzen zaioen Jesu-Kristok: bere burua imolatzen du Jainko-gizon hunek gure partez, izate soberanoaren adoratzeko, egin darozkigun nonbregabeko on eta ontasunez eskerren emateko, guk egin diotzagun ofentsa eta afrontuen barkhamenduaren galdegiteko, eta hain nezesa-

rio tugun grazia eta laguntzen eskatzeko. Horra zer hari den Jesu-Kristo aldareen gainean, eta hauk guziak egiten ditu enetzat, ene salbatzekotzat. Zer obligazio ez diot, zer errespetu ez diot zor? Nola egon behar nindeke Elizan meza-ko sakrifizioan? Nola unha naiteke, aldareetan ene Jesus dudanean? Nola luzegi kausi othe dezaket bethi laburregi iduritu behar zaitan denbora saildua?

II

Sakrifizio hunen handitasunaren araberakoak izan behar dire zure sentimenduak. Han zare lekuko bezala, beraz han zer iragaten den jakin eta kontsideratu behar duzu. Han zure moldean aphezaren eskuez sakrifizioa ofritzen duzu, beraz sailduki han egon behar zare, beraz humiltasunekin eta errespetuekin meza entzun behar duzu, zure esperantza eta konfidentzia phiztu behar dituzu. Han zure burua Jesusekin batean Aita Zerukoari sakrifikatzen diozu, beraz zure bekhatuak bigundu behar dituzu, hetaz Jesusen izenean miserikordia galdegin behar duzu; hitz batez, Kalbarioko mendiaren gainerat

bazindoaz bezala joan behar zare Elizarat meza entzuterat. Hortik juja zazu nolako deboziona, atenziona eta errespetua galdetzen duen meza sainduak. Ikhus azu nolako kharrarekin joan behar zaren, nolako artharekin han egon behar zaren, zertaz han entretenitu behar zaren. Aingeruek berek ikharaz betherikako errespetu batekin adoritzen dute Jesus aldareen gainean, eta nola zu egon zaitezke errespeturik gabe? Helas, Jauna, aithortzen ditut mezako denbora saiduan egin ditudan huts guziak; enetzat ofritzen duzun sakrifizioan maiz berretu ditut urratu behar nituen bekhatuak, eta irritatu dut phazegatu behar nuen zure kolera; barkha dietzadatzu beraz ene hobenak, eta garbi zazu egun ene arima bere notha guzietarik.

III

Mezako sakrifizioa hain errespetagarria delarik arren, gutiak dire hari zor zaion ohorea ekhartzen diotenak. Nolako kharrarekin lehiatu othe zare meza entzuterat? Artha izan othe duzu, ahala zinduen guzian, sakrifizio hain errespetagarrian kausitzeko? Ez othe duzu pasatu astea

oso-osoaz lazotasun phuru batez meza entzun gabe? Eta han kausitu zarenean, nola egotu othe zare? Joan zare obligazionezko egunetan ere kostumaz eta usantzaz, ez fedeaz eta debozio-neaz animatua. Jainkoaren adoratzeko, Jainkoari eskerren ematen, Jainkoari barkhamendu eskatzen, Jainkoari grazien galdetzen enplegatu othe duzu bethi mezako denbora laburra? Hala behar zen; ordean hala egin othe duzu? Orhoitu othe zare non zinen, zertan zinen, eta zertako Elizarat joan zinen? Ez da egia miletan, zure izpiritua barriatua, egon zarela, alde guzietarat beha egon zarela, postura imodest batean egon zarela, Jesus aldareen gainean zena ahantzirik, sahetsekoekin solhasean egon zarela? gorphutzez Elizan, izpirituz kanpoan; belhauniko lurrean, gogoz munduko egitekoetan; arrosarioa, edo liburua eskuan, eta bihotza konpainietan okupatua; ez nola meza entzuten zinduen, baina ea noiz, zein laster meza akhabatuko zen. Ez othe da hau izatu zure meza entzuteko moldea? Ez othe zare bethi hunelako izatu? Menturaz joan zare Elizarat, ez Jainkoaren adoratzeko, baina hunelako edo halako presunak, bertzetan errex-

ki ikhusiko ez zintuenak, han ikhusterat, eta hetaz ikhusia izaterat. Hargatik menturaz arri-matu zare, eta aphaindu idola bat bezala. Ahal-katzen naiz, Jauna, orhoitzen naizenean Elizan mezako denboran egin ditudan huts handiez, guziez miserikordia galdetzen darotzut, promes ematen darotzut hemendik harat ahal bezain maiz meza entzunen dudala, eta ahal bezain sailduki han kausituko naizela.

MEDITAZIONEA JAINKOAREN MISERIKORDIAZ

I

Guziz handia eta hedatua da Jainkoaren miserikordia. Sofritzen ditu bekhatorosik handienak; bere ganat deitzen ditu gaixtaginik errebe-lenak; gonbidatzen ditu ihesi dabiltzanak, barkhamendua prometatzen diote bere etsaiei; oihuz dohakote, eta besoak hedatzen diotzate galtzerat dohazinei; berak eskatzen diote berak eman bihotza; eta behin, bietan, hiruetan gorraena eginik ere, ez da gibela joaten: hark gu ofentsatu bagintu bezala, gure xerkha dabila; bilhatzen gaitu, gure beharra balu bezala. Artzain ona bezala (edo ez othe da bera artzain hura?) gu errebelatuen ondoan abiatzen da, ez du guphidenen nekhea eta izerdia, ez ditu kondatzen urhatsak; eta kausitzen gaituenean, bozkariatzen da, maiteki ematen gaitu bere sorbalden gainean, gidatzen gaitu bere heirat, eta ezartzen gaitu bere ardi leialen, bere adiskide minen

herrunkan. Zeru guzia alegantzietan da; plazer gehiago da, Aingeruen artean, bekhatore konbertitu batez, ezen ez bethi prestutasunean egotu diren lau-hogoi eta hamar justuz; eta seme prodigoak bere falta aithortzean, haren aitak izatu zuen bozkarioak erdizkara bezala ezagut-arazten daroku, Aita Zerukoak, gu humiliatuak bere aitzinean ikhusteaz, duen plazera. O Jainkoaren miserikordia mugarrigabea! O amodiozko gaindidura ezin konprenituzkoa! Eta nola nagoke bekhatuan! Nola momento batez ere luza dezaket bekhatutik atheratzea! Baliatuko naiz, Jauna, zure deitze ezti, gonbidatze amultsuez; damu dut ene luzamendu eta eskergabetasun guziez, utziko dut bekhatua, eta itzuliko naiz zure ganat ene bihotz guziaz.

II

Zure bizitze pasatua examinatzen baduzu, Jainkoaren miserikordiaren efeturik miragarrienak zure baithan kausituko ditutzu. Nolakoa izatu zare haurtasunetik lehora? Nolakoa gaztetasunean? Zer egin duzu kausitu zaren lekhu eta enplegu diferentetan? Helas, zenbat bekhatu

handi gogoz, zenbat hitzez, zenbat obraz, zenbat neglijentziaz! Zenbat bertzeei eragin othe diozute zure arinkeriez, zure aire libroez, zure dosteta ergelez, zure kantu imodestez! Nork kondatuko ditu zure falta guziak! Nork ezagutuko du zure zaurien handitasuna! Nork zundatuko ditu zure bihotzeko gaitz zaharrak! Nola zare oraino munduan! Nola ez othe zare Ifernuan! Orduan hil bazine, non izanen zinen orai? Errazu. Helas! damnatuen artean, Deabruen baltsan, erreprobatu guzien konpainian. Nork beiratu zaitu hain zorte izigarritik? Nork bada? Jainkoaren miseri-kordia handiak. Estatu dohakabe hartan ere zenbat aldiz ez zaitzu mintzatu Jainkoa bere inspirazione sainduz, bere ministroez, eritasunez, zure lagun gaixtaginen heriotzeaz, edo bertze batzuen konbertsioneaz: hauk guziak maite zintuen, eta salbatu nahi zintuen Jainkoaren boz batzuek ziren. Hauk guziei gorraena egin diozute. Hartu duzu maiz konbertitzekko desira, deliberatu duzu bekhatua utzi, bizitzea ganbiatu behar duzula; ordean bethi ber-bera egon zare; merezi zinduen beraz Jainkoaz abandonatua izatea, halarik ere egun berri-berritan deitzen, her-

xatzen zaitu. O miserikordia, ala zure handia! Norat nahi den beha dezadan, guzietan ez dut ikhusten zure ontasunik baizen. Zer laiteke nitaz, oraino uzkur banindago, oraino gibela banindago? Ez, Jauna, orai beretik heldu naiz zure ganat, orai beretik probotxatu nahi naiz hain arraiki eta jeneroski ofritzen darotazun miserikordiaz. O Jesus guziz urrikalmendutsua! ene bekhatuek ikharatzen naute; bainan zure izenak berak animatzen nau; bekhatoros naiz, eta bekhatorosik dohakabeena; bainan zu ene Salbatzailea zare.

III

Jainkoari afronturik handiena egin zinozoke, dudatzen bazindu haren miserikordiaz. Zuk ofentsatu duzun Jainkoa ona eta ontasuna bera, leiala eta leialtasuna bera da; seguratzeko gaitu, eta juramenturekin, ez duela nahi bekhatorearen heriotzea; ez da egundaino, haren baithan fidatu denik, galdu; eta ez, hura behartu duenik, laguntza gabe gelditu: Jainkoari damurik handiena egi-tea laiteke beraz, haren baithan ez fidatzea: hori laiteke Cain dohakabearen segitzea; hori laiteke

zure bekhatu guziak baino handiagoko krima bat; hori laiteke odol hotzean damnatzea. Ah! diozu ordean, ene bekhatuak handiegiak, ene zauriak zahartuegiak dire, eta nihork ez du nik bezanbat eta nik bezalako gaixtakeriarik egin. Zure bekhatuak handiak dire; ordean Jainkoaren miserikordia handiagoa da. Zure zauriak zahartuak dire, eta nihork ez du zuk bezanbat, ez zuk bezalako gaixtakeriarik egin; zure bekhatu handiek obligatu behar zaituzte konfidentzia handi baten izaterat: plazerekin Jainkoak seinalatzen du bere miserikordia handia, eta, bekhatorosik handienei barkhatzean, ezagut-arazten du klarikienik bere bothere soberanoa. Nola sofritu zaitu, ofentsatzen zinduenean? eta nola ez dartzu beraz eginen agindu darotzun, eta eskatzen diozun miserikordia. Ala ene dohatsua, hain Aita onarekin egiteko izateaz! Ez duzu nihoiz ere ahortzi, o ene Jainkoa, zure haurra naizela, nik ahortzi arren ene Aita zinela. Heldu naiz, zuri ene falta guzien aithortzera, grazia eta miserikordia eskatzera. Orhoit zaite, othoi, zure promesaz, beha diozozu zure Seme maite enetzat

gurutzean hilari, eta haren amoreak gatik bark-
ha datzu ene bekhatu guziak.

MEDITAZIONEA PERTSEBERANTZIAZ

I

Ez da asko deliberazioe sainduen hartzea, edo konbertitzeko gutziaren izatea; behar da egiazki bizitze girstinozkoa besarkatu eta segitu; inutil laiteke ere zenbait denboraz, zenbait urthez berthutearen pratikatzea, finereinokoa iraun behar du Jainkoaren amodioak: azken hatserainokoa irauten duen pertseberantziarik agindua eta emana zaio eternitateko khoroa! Zer probotxu da ongi hastea, gaizki akhabatzen bada bizia? Zer probotxu da ezagutzea Jainkoa, bekhatua higuintzea, berthutea maitatzea, denbora batetaraino, baldin biziaren finean Jainkoa ahanzten, berthutea uzten, eta bekhatua onhesten bada? Saul Erregea ongi hasi zen, Judas zenbait denboraz ongi zioen; ordean bata eta bertzea gaizki hil dire, damnatu dire. Zorigaitz harrek ernatu behar gaitu, hekien eta bertze hainitzen malurak zuhurtu behar gaitu. Zenbat aldiz ez duzu deliberatu oso-osoa behar zaizkola

eman Jainkoari? gogotik lothu behar zaizkola zure salbamenduko egitekoari? zin-zinez behar zarela trabailatu Zerukotz? bizkitartean lan hau, hasi orduko, utzi duzu, gibelat joan zare, hartu zinduen bidetik aldaratu zare, zure bizitze zaharrrerat bihurtu zare. Orai kondenatzen duzu zure laxotasuna; eta nolakoak izanen dire orai hartzen ditutzun deliberazioneak? hauk ere ahantzi-ko eta hautsiko othe ditutzu? Ez, Jauna, ez naiz berriz bihurtuko orai auhendatzen ditudan bekhatuetarat, zure laguntzarekin fermu egonen naiz ene deliberazionean.

II

Deliberazione onak har-arazi darozkitzuten arrazoin berek obligatu behar zaituzte hekien atxikitzerat. Bekhatua utzi duzu zeren higuingaria dela ikhusi bai duzu; bada bethi bekhatua orobat izigarria izanen da, monstro hau Jainkoaren kontrako erreblota ingratasunez, eta intsolentziaz bethe bat izanen da; zertako ez duzu bethi aborrituko eta gaitzetsiko bethi aborrigarri den bekhatua? Menturaz, Jainkoaren justiziaren zorrotasunak, eta garratzasunak ikharaturik,

hasi zare bekhatuari ukho egiten; bada Jainkoa bethi justutasuna eta zuzentasuna bera izanenda, bethi higuinduko du bekhatusa eta bekhato-rea, beraz bethi beldurtasun saindu hunek obligatu behar zaitu bekhatuari ihes egiterat. Menturaz Jainkoaren maitagarritasunen kontsiderazioneak obligatu zaitu haren maitatzerat; bada ez da sekulan jauna ganbiatuko, bethi berbera izanenda, guziz ona, infinituki perfeta, soberanoki ederra, mugarri gabe maitagarria, zure Aita, zure Nausia, zure Erregea, zure errekonpentsa: beraz bethi behar duzu maitatu, bethi behar duzu zerbitzatu; deusek ez zaitu behar separatu haren ganik: deusek ez du behar hoztu edo gutitu, hari zor diozula ezagutzen duzun amodioa. Helas! Jauna, ikharan nago zeren ezagutzen baidut ene inkonstantzia; zuk ere ordean hura ezagutzen baiduzu, izan zaite ene sustengua; egizu iraun eta pertsebera dezadan zeronek ene bait- han, sor-arazi ditutzun disposizione sainduetan.

II

Deliberazione onak har-arazi darozkitzuten arrazoinez bertze alde errexutako bekhatuaren

beldurak finkatu behar zaitu besarkatu zinduen bizitze sainduan. Zer laiteke zutaz bihurtzen bazine orai nigarrez garbitu dituzun falta bere-tarat? Helas! zure ondoko estatua lehenbizikoa baino areago laiteke; ezen zerk bihur-araz othe zintzake, hain laxoki abandona zinezaken, Jainko-Jauna ganat? hagitz gaitza laiteke zure konbertsionea, errexutako bekhatuan orai, bai orai erortzen bazine. Lehenago zure bekhatuen esku-satzeko erran zinezaken, ez zinduela ongi ezagutzen hekien belztasuna, baina orai ez zinduke eskusa hautarik batere. Jainkoaren miseri-kordia-rik handienen efetuak errezibitu dituzun egun hautan; beraz heldu bazine Jaunaren ofentsatze-rat, ez da egia mezprezatuak laitez-kela zutaz haren miseri-kordialren dohainak? Hautsi dituzun Satanekin amarratua zindauzkatzen gathe borthitzak; desarmatu eta bentzutu duzu borthitz-armatua; garaitu duzu zure arimaren tirano kruela; berriz bekhatuaz sar-araz bazineza zure bihotzean, helas! mutiriago eta nausiago han ego laiteke; bera baino gaixtoagoko zazpi Dea-bru harturik, zure ariman finka lezake bere egoitza dohakabea. Nola khen zinezake zure ganik?

Ikhusen duzu beraz zein obligazioe hertsia
duzun fermu egotea hartu duzun bizitze berrian.
O Salbatzaile amultsua! ahantz zatzu ene erre-
xuta iraganak, finka zazu ene bihotzean errexu-
taren higuintza, eta indazu grazia oso-osea zure
zerbitzuan enplegatzeke ene bizi guzia: eta zuk,
o Birjina saindua! ama guzietarik maitagarriena
eta samurrena! ardiets diezadazu iragan denbo-
rarentzat urrikirik minena, presenteko leialtasu-
nik handiena, eta ethorkizuneko deusek ezin
inharrosiko duen konstantzia bat, egizu, o Ama
maitea! ongi konpreni dezadan, saindutzen gai-
tuen grazia hura dela ene artha guziak galdeiten
dituen ontasun baxarra, haren gatze xoilak
merezi detzakela ene auhenak eta nigarrak; bide
hortaz eternitate guzian kantatuko dut Zeruan
Jaunaren misericordia eta zure ontasuna.

HAGONIAKO OTHOITZAK, LITANIAK

Jauna, duzun urrikari.

Kristo, duzun urrikari.

Jauna, duzun urrikari.

Andre dena Maria, hunentzat
othoitz egizu.

Aingeru, eta Arkanjelu guziak,
hunentzat othoitz egizue.

Abel saindua, hunentzat othoitz egizu.

Justuen gorthea, hunentzat othoitz egizu.

Abraham saindua, hunentzat othoitz egizu.

Jondoni Joani Baptista, hunentzat othoitz
egizu.

Patriarka, eta Profeta guziak, hunentzat
othoitz egizue.

Jondoni Petri, hunentzat othoitz.

Jondoni Paulo, hunentzat.

San Andres, hunentzat.

Jondoni Joani, hunentzat.

Apostolu, eta Ebanjelista guziak, hunentzat
othoitz egizue.

Jaunaren dizipulu guziak, hunentzat.

Inozent saildu guziak, hunentzat.

Jondoni Estebe, hunentzat. Jondoni Laurendi,
hunentzat.

Martir saildu guziak, hunentzat.

San Silbestre, hunentzat.

San Gregorio, hunentzat.

San Agustin, hunentzat.

Aphezpiku, eta kofesor guziak, hunentzat
othoitz egizue.

San Benedikto, hunentzat.

San Frantzes, hunentzat.

Fraide, eta ermitau guziak, hunentzat.

Magdalena saildua, hunentzat.

Santa Lucia, hunentzat.

Birjina, eta Alhargun guziak, hunentzat.

Saildu eta Sainda guziak, hunentzat ararteko
izan zaitezte.

Jauna, urrikal bekizu, eta barkha diozozu.

Jauna, urrikal bekizu, eta beira zazu.

Zure koleraatik, beira zazu, Jauna.

Heriotzeko arriskutik,

Heriotze gaixtotik,

Ifernuko penetarik,

Gaitz guzietarik,
Deabruaren eskuetarik,
Zure Sortzeraren medioz,
Zure Gurutzearen, eta Pasionearen medioz,
Zure Heriotzearen eta Ehorztearen medioz,
Zure Phizte gloriosoaren medioz,
Zure Zeruetarat igate miragarriaren medioz,
Izpiritu kontsolatzailearen graziaz,
Azken judizioko egunean,
Bekhatorosak, othoi entzun gaitzatzu. Beira
zazu, Jauna.
Huni barkhatzeaz othoizten zaitugu, arren
entzun gaitzatzu.
Jauna, duzun urrikari.
Kristo, duzun urrikari.
Jauna, duzun urrikari.

Othoitza

Zohaz, arima Kristaua, ilkhi zaitte mudu huntarik, zu kreatu zaituen Jainko-Aita guziz botheretsuaren izenean, zure gatik sofritu duen Jesu-Kristo Jainko biziaren Semearen izenean, zure

gainerat isuria izatu den izpiritu sainduaren ize-
nean; Aingeru, Arkanjelu, Tronu, eta Dominazio-
ne, Printzipatu, eta Potestate, Kerubin eta Sera-
finen izenean; Patriarken eta Profeten, Apostolu,
eta Ebanjelisten, Martir eta Kofesoren, Fraide eta
Ermitau, eta Birjinen izenean; arren bakean izan
dadila zure lekhoa, eta Parabisuko gloriaren
erdian zure egoitza, Jesu-Kristo gure Jaunaren
medioz. Halabiz.

Jainko urrikalmendutsua, Jainko ezti eta man-
tsoa, Jainko, zeinak, zure miserikordien nonbre
handiaren arabera, urratzen bai ditutzu urriki
egiazko bat dutenen bekhatuak, eta pasaturika-
ko krimarik handienak egiten izatu ez balire
bezala, urrikal bekizu N, zure zerbitzaria, eta
arraiki beha zozu; ezagutzen ditu, eta aithortzen
ere darozkitzu bere bekhatu guziak; bihotzaren
erditik, helas! barkhamendu eske dagotzu;
othoi, Jauna, entzun ezazu. Zeronek, o Aitarik
samurrena, garbi diotzotzu, haragiaren flakezaz,
edo Deabruaren tronperiaz, egin ahal izatu
dituen huts guziak; eta zure odolaren gostuz
erosi duzun menbroa junta zozu zure Elizaren
gorphutzari: duzun konpasionen, Jauna, horren

marrazkez; urrikal zakizkote horren nigar minei. Zure miserikordian du xoilki bere fidantzia: erre-zibi zazu arren zure adiskideen herrunkan, Jesu-Kristo gure jaunaren medioz. Halabiz.

Gomendatzen zaitut (ene anaia, edo arreba maitea) Jainko guziz botheretsuari, eta haren kreatura zaren bezala, ematen zaitut haren eskuetan, arren, noiz ere, herioa ethoririk, naturari zor diozuna pagatuko bai duzu, bihur zaitez-en, zu lurretik formatu zaituen, Autor bera ganat.

Zure arima beraz gorphutzetik ilkhitzean, aitzinera ethor dakiola Aingeruen tropa, hurbil dakizkitzula jujetzat jarriak daudezen Apostolu handiak; dathorzula oraino Martir gloriosoen armada triunfanta; ingura zaitzala Kofesoren gortheak; bozkarioekin erre-zibi zaitzatela Birjina garbiek, eta plaza zaitzatela Patriarken gal-tzarrean.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima lehenago Enok eta Elias gizonen heriotze komu-netik beiratu zintuen bezala. Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Noe uholde jeneraletik beiratu zinduen bezala.
Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Abraham Ur Kaldeakoaren eskuetarik beiratu
zinduen bezala. Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Isaak, Abraham bere aitaren eskuetarik, imolatu
gabe, beiratu zinduen bezala. Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Lot Sodomako sutik beiratu zinduen bezala.
Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Moises Faraon Ejiptoko Erregearen eskuetarik
beiratu zinduen bezala. Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Daniel lehoinen putzutik beiratu zinduen bezala.
Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
Susana, faltsoki akusatua zen krimatik, beiratu
zinduen bezala. Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima,
David Saul Erregeren, eta Goliaten eskuetarik
beiratu zinduen bezala. Halabiz.

Jauna, beira zazu zure zerbitzariaren arima, Jondoni Petri, eta Jondoni Paulo presondegiatarik beiratu zintuen bezala. Halabiz.

Eta nola beiratu bai duzu Santa Tecla Birjina eta martir dohatsua hirur suplizio dorpheetarik, hala othoi beira zazu zure zerbitzari hunen arima, eta emozu Zeruko gloriatzeko grazia, Halabiz.

Gomendatzen darotzugu, Jainko handia, N. zure zerbitzaria, eta zu othoitzten zaitugu, Jesu-Kristo munduaren Salbatzailea, arren ez dezazun errefusa plazatzea Patriarken galtzarrean horren arima, zeinaren gatik hain amultsuki mundurat jautsi bai zare. Ezagut zazu, o Jauna, zure kreatura, ez Jainko faltso eta arrotzek, bainan zuk zeronek, o Jainko bizi eta egiazkoa, kreatua: ezen, Jauna, ez da zu baizen Jainkorik, eta nihon ere ez da zure obra handiak bezalakorik: bozkaria ezazu beraz horren arima zure presentziaz; ez orhoit leheneko horren bekhatuez; hek guziak gaztetasunaren fuliak, eta pasioneen suak eginarazi diotza. Aithortzen du, Jauna, hoben handitan erori dela; bainan bederen ez ditu ukhatu eta arnegatu Aita, Semea, eta Izpiritu saindua, aitz-

tik Jainko gauza guzien Kreatzailea laialki adortu du.

O Aita guziz ezta, ahantz zatzu horren gaitasuneko huts eta ignorantzia guziak, eta, zure miseriak handiaren arabera, zure gloriaren erditik hortaz orhoit zaite. Idek-otzu Zeruko portaleak, Aingeruekin bozkaria dadintzat. Zeruko armadaren manamendua merezitu duen Micael Arkanjelua errezibi dezala horren arima: dat-hortzkotela aitzinerat Aingeru sailduak, eta eraman dezatela Zeruko gloriaren erdirat: han har dezala jondoni Petri Apostolua, zeinari Jesu-Kristok eman bai diotza Zeruko gakoak: lagun dakiola Jondoni Paulo, zeina izan bai da Kristo berak hautaturikako jarro berezia: hortaz othoitz egin dezala Jondoni Joani Ebanjelista Jaunaren Apostolu maiteak, zeinari konfidatuak izatu bai zaizko Zeruko sekretuak. Othoitz egin dezatela oraino bertze Apostolu guziek, zeinei eman izan bai zaie amarratzeko, eta laxatzeko podorea. Finean egin dezatela horrentzat othoitz mundu huntan harenbertze sofritu duten bertze Saildu guziek, arren, gorphutzetik horren arima separatzan denean, merezi dezan sartzea Zeruko glo-

rian, aitzingidaritzat duela Jesu-Kristo gure Jauna, zeina bizi bai da, eta erreginatzen bai du Aita eta Izpiritu sainduarekin menderen mende guzietan. Halabiz.

FINA